HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK

# HEZKUNTZA PREMIA BEREZIARI BURUZKO ARAUDIA EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN

10

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEI BURUZKO ARAUDIA EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN

# HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEI BURUZKO ARAUDIA EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1.998

**Azalpen, eskema eta eta aurkibideen egileak:**

**Curriculuma Eratzeko eta prestakuntzarako Euskal Herriko Institutoa (CEI-IDC)**
***H.B.B. arloa*:**
Rafael Mendía Gallardo
Mª Sol Gómez Güemes
Mª Dolores Damborenea Isusi
Alicia Sainz Martínez
Eduardo Ubieta Muñuzuri

**Argitaraldia:** 1.a
**Ale-kopurua:**

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

**Internet:** www.euskadi.net

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Duque de Wellington, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Itzulpena**:

**Fotokonponketa**:

**Inprimaketa**:

**ISBN:**

**Legezko Gordailua**

# AURKIBIDEA

**Aurkezpena** ......................................................................................................

**Sarrera** ...........................................................................................................

**Araudia** ...........................................................................................................

**Hiztegi argibidea eta Siglak** ...................................................................

**Gai Aurkibidea** ...............................................................................................

# AURKEZPENA

1982an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak HEZKUNTZA BEREZIKO PLANA diseinatu zuen Euskal Autonomia Erkidegorako. Plan horrek Hezkuntza Bereziaren eremuan une hartan zeuden zerbitzuen filosofian eta antolamenduan aldaketa handiak eragin zituen.

Eskola arrunta izaki aipatutako plan horren erreferentzia-punturik garrantzitsuena, proposatutako transformazio-prozesua ahalbidetuko zuen oinarrizko azpiegitura sortu zen.

1990eko urriaren 3ko Lege Organikoa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea (LOGSE), izan du abiapuntu estatu osoko hezkuntza-sistemaren erreforma orokorrak. Erreforma hori jada aipatu zen Hezkuntza Bereziaren eremuan Euskal Hezkuntza Sisteman 1982ko Hezkuntzako Plan Berezian eta Hezkuntza Bereziko Batzordearen txostenean, "Eskola muinbakarra eta integratzailea" izenekoan, sakoneko filosofia eta gure erkidegoan pixkanaka ezarritako praktika gisa aldarrikatzen ziren neurrien bidez.

1993ko otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak eskola eta ikastetxeak honela definitzen ditu: "anitza, elebiduna, demokratikoa da, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzazkoa, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitateen bateratzailea."

Ildo horri jarraiki, azken lau urteetan euskal hezkuntza-sistemaren kontsolidazio- eta garapen-prozesua gauzatu da. Berorren lehentasunetako bat ikasle guztiei eta horien artean hezkuntza-premia bereziak dituztenei kalitatezko hezkuntza eskaintzea izan da.

Nolanahi ere den, azpimarratzekoa da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak irakaskuntzaren kalitatea etengabe eta pixkanaka hobetzea azken helburu duen hezkuntza-politikarekin duen konpromiso etengabea eta ukaezina. Konpromiso hori orain gutxi adierazi da ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzun egokia emateko orientabideak

eskaintzen dituzten eta baliabideak antolatzen dituzten dekretu baten eta zenbait agindu eta erabakiren argitalpenaren bidez.

Legezko xedapen horietan nabarmen identifika daiteke ardatz egituratzaile gisa aukera-berdintasunaren printzipioa gauzatzeko kezka. Horrek, batetik hezkuntzan desberdintasunak, edozein jatorri eta izaeratakoak izanda ere, berdintzeko jarduketa jakin eta ausartak martxan jartzea eskatzen du, eta bestetik, ikasleen interesen, gaitasunen eta motibazioen aniztasunari egokitutako erantzuna artikulatzea.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei irakaskuntza normalizatua eta kalitatezkoa eskaintzeko prestatutako hezkuntza-sistema, zalantzarik gabe, ikasle guztiei kalitatezko irakaskuntza bermatzeko giza baliabide eta baliabide material eta tekniko gehiago eta hobeak dituen hezkuntza-sistema da. Bada, testuinguru horretan, inola ere osagarri izan gabe, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen heziketa erronka eta kalitatezko irakaskuntza eskaintzeko hezkuntza-sistemak duen gaitasunaren adierazle izango da aldi berean.

Bolumen honetan Hezkuntza Bereziko ikasleei eman beharreko erantzunaren inguruan azken honetan agertu diren arauak bildu ditugu. Berorren hartzaile eskola-komunitate guztia izango da eta berori garatzea eta aplikatzea, berriz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailaren hezkuntza-kalitatearen konpromisoa.

**INAXIO OLIVERI ALBISU**

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua.**

# SARRERA

Orain gutxi Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza-premia bereziei buruz araudi berria argitaratu izanak, sarrera gisa, berorretara hurbiltzea eskatzen digu, izan ere, Hezkuntza Bereziaren eremuko hainbat pentsamendu-korronteren, nazioarteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko txostenen eta azken hamabost urteetan gure erkidegoan izan den araudiaren garapenaren ekarriak berorren praktikan eta teorian hartu dira barne.

*Aldaketa kontzeptuala eta koalitatiboa Hezkuntza Berezian*

Nazioartean bezalaxe, Euskal Herrian ere aldaketa ugari sortu dira Hezkuntza Berezian. Berariazko ez-gaitasun batzuk zituzten pertsonen multzo bat hartzaile zuen Hezkuntza Berezitik, ikasleak dituen premiei erantzuteko hezkuntza-sistema arruntak eskura jartzen dituen neurrien, zerbitzuen, estrategien eta baliabideen multzo gisa ulertzen dugun Hezkuntza Berezira iritsi gara. Gisa horretan erantzunak anitzak izango dira eta taldeko kide bakoitzaren premietara egokitutakoak.

Hezkuntza Bereziaren ikuspegi berri honek zailtasun bereziak dituzten pertsonekiko harremanetan baztertzailea ez den eskuhartzeko moduan oinarritzen diren, gizabanakoen arteko desberdintasunei behar bezala erantzuteko kezkak gidatutakoen, aniztasunaren inguruko hainbat hezkuntza-posizio ditu elikagai.

Honakoak dira, hain zuzen ere, pixkanaka-pixkanaka gure erkidegoko hezkuntza-zerbitzuetan nahiz beste gisa bateko zerbitzuen sareetan aintzakotzat hartu diren printzipioak: hezkuntza normalizazioa, sektorizazioa eta indibidualizazioa.

Printzipio horiei jarraiki hezkuntza-markoan jarduteak berekin dakar hezkuntza premia-bereziak dituzten ikasleei beharrezko laguntza eta zerbitzuak, curriculum egokituak eta egokiak eta ahalik eta gutxien mugatuko dituzten inguruneak eskaintzea.

"Ahalik eta gutxien mugatuko duten inguruneak" diogunean joera-ildoa hori dela adierazi nahi dugu eta azken erreferentea beti ingurune arrunta dela. Bestela esan, ikasle gehienek hezkuntzarako duten ingurunea.

Horri jarraiki, beti izango da egokiagoa ildo normalizatzailean ahalik eta ingurune normalizatzailenean aurrera egitea, ingurune horrek berak bakarrik eskolako integrazioa, gizarte-integraziorako funtsezko urratsa dena, errazten ez duela, baina horretara hurbiltzeko ezinbestekoa dela, ulertuta.

Ez-gaitasunen bat dutenen hezkuntzaren aldaketa kontzeptuala eta koalitatiboa, hirurogeiko hamarkadan hasi zena, eskematikoki honako dimentsio hauetan zehaz dezakegu.

- Medikuntza-eredu batetik, hezkuntza-eredu batera igaro zen, hau da, urritasunetan oinarritutako sailkapena hezkuntza-premietan oinarritutako arretarekin ordeztu zen.

- Hezkuntza-sistema arruntetik bereiztutako eta urritasunak dituzten ikasleetara bideratutako Hezkuntza Bereziko eredu batetik, Hezkuntza Berezia hezkuntza-sistema arruntean aldi baterako hezkuntza-premia berezi edo premia iraunkorren bat duten ikasle guztiei curriculum arruntetik abiatuta erantzuna eskainiko dien elementu gisa barne hartu nahi den sistema dela dioen kontzeptura pasa zen.

- Subjektuaren erritmo eta abiadurara erraz egokitzen diren curriculuma eta curriculum-egokitzapen indibidualak (CEI) sustatu ziren. Horrek ez du esan nahi taldearen jarduerak baztertu behar direnik. Bestalde, errendimendua ez da talde normatibo baten arabera ebaluatuko, haurraren beraren aurrerapenaren arabera baizik.

- Laguntzak, hezkuntza-zerbitzuak eta abar zehaztu ziren.

Gure autonomia-erkidegoan Hezkuntza Bereziko eredu berriek Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua izan zuten abiapuntuetako bat[1].

Plan horrek oinarri duen filosofia, edo hobeto esan, ildo pedagogikoak “integrazio” kontzeptuaren, espezializazioaren filosofiari aurkajartzen zaionaren, ingurukoak dira. Halako aukera bestelakoak baino hobea edo egokiagoa zela iritzi zen; baina inola ere ez zen balio unibertsal gisa hartzeko dogmatismoan erori.

Planaren bigarren inspirazio-printzipioa sektorizazioa izan zen. Printzipio hori berekin dakar integrazioaren filosofiak, hori neska-mutilei hezkuntza-erantzuna beren ingurune naturalean eskaini nahi dion eskolatze-modu gisa ulertuta. Zerbitzuen sektorizazioaren printzipioa zentralizazioaren printzipioari aurkajartzen zaio. Teorikoki ez litzateke ona izango pertsona horrek ingurune naturaletik eta gizarte-ingurunetik kanpo egindako integrazioa.

Planak Minusbaliatuen Integraziorako Legera igortzen gaitu eta Gizarte Integraziorako printzipioa izenekoa du inspirazio.

Printzipio horretan sinesteak gizabanakoen eta taldeen arteko desberdintasunetan sinestea eta desberdintasun horiek osotasuna aberastuz jarduten dutela sinestea esan nahi du. Gisa horretan talde heterogeneoek talde homogeneoek baino aukera gehiago eta hobeak izango dituzte garatzeko. Ildo horretatik, integrazioa aldarrikatzen dugunean ez gara aldarrikatzen ari gizabanako baten jokabideak aldatu egin behar direnik ezaugarri homogeneoak dituen talde jakin batekoek dituztenekin bat etortzeko. Aitzitik, gizabanakoaren ezaugarriekiko errespetua defendatzen ari gara eta gizabanako bakoitzak talde-dinamikan aktiboki parte hartzea. Gisa horretan taldea ez da izango zatien batura, zerbait berria izango da. Ez gara ari aurretiaz eratutako talde baten barruan neska edo mutil bat integratzeari buruz. Banakako ezaugarriak,

[1] Hezkuntza eta Kultura Saila. Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitamua. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1983

igurikapenak, garapen kognitiboak eta afektiboak eta abar taldean —gure kasuan taldearen funtsezko helburua hezkuntza izango da— errespetatuz integratzea aldarrikatzen ari gara.

Gure erkidegoan 1982az geroztik egindako praktikak eta hori berrikusteko beharrak, Warnock[2] (1978) txostenak adierazitako pentsamendu-korrontea gure herrialdean pixkanaka ezartzearekin eta LISMI hezkuntza-testuingurura zabaltzearekin batera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila Hezkuntza Bereziko Batzorde bat eratzera eraman zuen. Batzorde horrek 1988ko abenduan argitara eman zuen "Eskola muinbakarra eta integratzailea"[3] izeneko txostena.

Aipatutako txotenaren helburua hezkuntza-komunitateari eta horren inguruko interesa duten gainerako sektoreei Batzordearen hausnarketak eta gomendioak eskaintzea zen. Batzorde horrek 1987 eta 1988 urteetan zehar hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza egokiari dagokionean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jarraitu beharreko ildoak zehaztu zituen.

Lana batzorde horrek inplikatutako hainbat erakunde eta talderekin batera egindako azterketaren emaitza da. Horrenbestez, hainbat gizarte- eta hezkuntza-sektorek elkarbanatutako plana dugu.

Txostenaren oinarrian dagoen funtsezko orientabidea hezkuntza-premia bereziak fenomeno erlatibo eta elkarreragile gisa, ikaslea bera baino harantzago doan eta hezkuntza- eta gizarte-testuinguru jakin batean kokatzen den fenomeno gisa, ulertzean datza.

Horrela bada, gomendatutako ekintzek hezkuntza-sistema orokorra bera hobetzea azpimarratzen dute. Horretarako bere ikasle guztien ezaugarrietara egokitzea ahalbidetuko dioten tresnak beharko ditu.

Gisa horretan, modu integratzailean aniztasuna onartu nahi duen eskola muinbakar hau gizarte demokratikoa izan behar duenaren ernamuina izango da.

Hezkuntzak beti ezaugarri gisa izan behar duen banakako nahiz taldekako osabidezko alderdian sakonduz, guztion zeregina gidatu behar duten zenbait printzipio azpimarratzen dira: erabakiak hartzeko prozesuan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek eta beren familiek izango duten inplikazio berria, ikasleetatik hurbil dauden programa egokien garapena, bizitza-zikloan zeharreko ekintzen jarraitasuna, hezkuntza goiztiarrean eta helduarora bideratzerakoan lehentasun jakin batzuk izango dituena, eta desabantaila eta premia handieneko egoeren aldeko lehentasunezko ekintza.

Aurrekoarekin bat etorriz, txosten horren jarduketa-neurriek honako printzipio hauek dituzte oinarri.

---

[2] Mary Warnock. Hezkuntza-premia bereziei buruzko txostena. Siglo Cero. 120. zk. 1990eko uztaila-abuztua.
[3] Hezkuntza Bereziko Batzordearen txostena, "Eskola muinbakarra eta integratzailea". Gasteiz. 1988. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 1989.

a) Hezkuntza-helburuak berdinak dira ikasle guztientzat.
b) Desabantaila eta premia gehien duten ikasleen aldeko ekintza positiboa.
c) Ikasle baten premiak erlatiboak, aldi batekoak, elkarreragileak eta curriculuma egokitzeko ekintzari lotutakoak izango dira.
d) Prebentziorako, identifikaziorako, ebaluaziorako eta hezkuntza-erantzunerako testuinguruari lotutako mekanismoak ezarri behar dira.
e) Berrikuntza pedagogikoa eta ikasle guztiek hezkuntza egoki baterako sarbidea izatea ahalbidetuko duen gizarte-jarreraren ezinbesteko aldaketa eskaintzera bideratutako jarduketa-modura hurbildu behar dugu.
f) Integrazio-prozesuak hezkuntza-prozesuaren funtsezko elementu izan behar du eta bertan inplikatuta egon behar dute sistemaren zati diren pertsona guztiak eta ez bakarrik hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren irakasleak.
g) Ikastetxeetan eta komunitatean bertan jarrerak, fokatzeak eta praktikak aldatu egin behar dira.
h) Hezkuntza goiztiarra eskaini behar da.
i) Erabakiak hartzerakoan ikasleak eta beren familiak inplikatu behar dira.
j) Eskola-sisteman baliabideak garatu behar dira.
k) Gizarte- eta osasun-zerbitzuek hezkuntza-zerbitzuekin batera jardutea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta egokia eskaintzeko.

*Hezkuntza-premia berezien kontzeptua*

Hezkuntza-premia berezien kontzeptua Warnock Txostenaren, gero Erresuma Batuan 1981eko Hezkuntza Legearen inspirazio-iturri izan zenaren, argitalpenarekin sortu zen. Warnock Txostenak bi irakaskuntza-sistema desberdineko —bata berezia eta bestea arrunta— biko eredu tradizionala, bi ikasle-motarentzakoa (batzuek urritasunak dituztenak eta besteak ez dituztenak) ez zuen onartzen. Aitzitik, Hezkuntza Bereziak ikasleek beren curriculum arruntera egokitzeko eskolatze guztian zehar izan ditzaketen premia iraunkorrei edo aldi batekoei erantzun behar zien. Txostenak ikasle horiei hezkuntza-premia bereziko ikasle deitzen zien.[4]

Horrenbestez, legedi britanikoaren arabera, ikasle batek hezkuntza-premia bereziak izango ditu hezkuntza-neurri berezia eskatzen duen ikaskuntza-zailtasunen bat duenean.

Brennan-ek[5] dioenez, hezkuntza-premia bat izango dugu urritasunen batek (fisikoa, sentimenen ingurukoa, intelektuala, emozionala, soziala edo horien konbinaketaren bat izan daiteke) curriculumerako, curriculum berezi edo aldaturako, edo irakaslea eraginkortasunez hezia izan dadin bereziki egokitutako ikaskuntza baldintzetarako sarbide berezi batzuk edo guztiak behar izateraino irakaskuntzan eragiten duenean. Premia edozein puntutan sor daiteke, premia arinetik premia larrira doan continuum batean; iraunkorra izan daiteke edo ikaslearen garapeneko aldi bateko fase batean zehar iraun dezake.

---

[4] Sarrera honen zati batek informazio-iturri gisa Sagrario Sanz del Río-ren lan hau hartu du: “Integración de Alumnos con Necesidades Educativas Especiales: Panorama Internaiconal”. Real Patronato de Prevención y atención a Personas con minusvalía. 2/95 Agiriak. (Erakunde-zirkulazioa).
[5] Brennan, W.K. El curriculo para niños con necesidades educativas especiales. Madril. Siglo XXI eta MEC.1988

Beste autore batzuek kontzeptu hori birdefinitzeko beharra aipatu dute. Funtsezko bi dimentsio hartu nahi dituzte barne: dimentsio elkarreragilea (premia premia hori sortzen deneko testuinguruarekiko harremanetan definitzen da) eta erlatibotasunaren dimentsioa (premiak espazio eta denbora jakin bati egiten dio erreferentzia eta ez da ez unibertsala ez eta betirakoa ere izango).

LOGSE (1/1990 Lege Organikoa, urriaren 3koa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea) izan da ordenamendu juridikoan hezkuntza-premia berezien kontzeptua barne hartu duena, pertsona urritua, gutxitua, moldatu gabea edo minusbaliatua terminoen hezkuntza-eremuko alternatiba gisa. Horrek aurreko kontzeptualizazioekin erkatuz gero funtsezko aldaketa gertatu dela uzten du agerian. Hezkuntzaren helburuak lortzeko eskolatzean zehar ikasle guztiek behar dituztela hainbat laguntza pedagogiko dioen premisatik abiatuta, hezkuntza-premia berezitzat joko ditugu horiez gain eta osagarri gisa hain ohikoak ez diren, aldi baterakoak nahiz iraunkorrak izango diren, beste laguntza-mota batzuk behar dituztenenak.

Adierazpen hori barne hartuz aurreko terminoen konnotazio negatiboak, ikasleek egin ezin dutena bakarrik azpimarratu ohi dutenak, saihestu nahi dira. "Hezkuntza-premia bereziak" adierazpenak, gainera, batzuk eta besteak oso desberdinak izan arren (batez ere irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuetan dituzten inplikazioei dagokienean), ez-gaitasun guztiak "urritasun" gisa izendatzeko errorerako joera ekidin nahi da. Zalantzarik gabe, orain ordeztu diren termino horiek zeharka izan dute "etiketatze" efektu bat, ikasleen, eta zeharka familien, autokontzeptuan eta autoestimuan eragin txarra izan duena, izan ere, termino horiek ikasle horiek dituzten hezkuntza-zailtasunak berengan bakarrik daudela dioen eta gizarte- eta hezkuntza-faktoreen garrantzia eta pisua gutxiesten duen sineste okerra indartzen dute.

Haatik, hezkuntza-premia berezien kontzeptuak ere badu aurreko arazoetako batzuk (adibidez, berriz ere konnotazio negatiboak dituen etiketa izatea) errepikatzeko arriskua eta baditu, gainera, hainbat mugapen. Egia da beste gauza guztien gainetik hezkuntza-kezkak azpimarratzen saiatzen dela, ez duela gutxiesgarria izan nahi eta, ikasleek behar dituzten laguntza pedagogikoetan gauzatuko direnez, irakasleak eta laguntza-zerbitzuak konprometitzen dituela eta jasotzen duten irakaskuntza berrikustarazten diela. Aitzitik, badu nolabaiteko anbiguotasuna ere, izan ere, ezin da aurrez mugatu hezkuntza-neurri berezien beharra benetan zeinek duen eta zeinek ez eta horiek nolakoak izan behar duten, hezkuntza-prozesuak elkarreragileak baitira eta eskola-testuingurua eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak bereziak baitira. Horrek guztiak nabarmen zailtzen du beharrezko baliabideen, giza baliabideen zein baliabide materialen, plangintza eta malgutasuna eta ikastetxeen eta bere ikasleen premia errealekiko hurbiltasuna ezaugarri izan beharko lituzkeen hornidura-sistema eskatzen du.

Horrenbestez, ikasle batek hezkuntza-premia bereziak dituela esatea hezkuntzaren helburuak lortzeko bere irakasleak ikasle gehienekin garatzen dituen ohiko jarduketak ez direla nahikoak eta, horregatik, bere hezkuntza-ekintza berrikusi behar duela eta delako ikasle horren premia berezietara egokitu behar duela esatea besterik ez da. Zeregin hori ezintasunez gauza ez dadin, irakasleek beharrezko prestakuntza, laguntza, aholkularitza eta lankidetza izan behar dituzte, horretarako eduki behar diren zerbitzu espezializatuenetik hasita, baina ikaskideen, familien eta inplikatutako ikaslearen beraren ekarria gutxietsi gabe. Azkenik, ez da tutore gisa irakasleak bere ikasle guztiekiko duen erantzukizuna utzi behar.

Gisa horretan LOGSEk hezkuntza-helburu berdinak ezartzen ditu hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat eta gainerakoentzat. Aldi berean argi eta irmotasunez adierazten du (3. art.) irakaskuntza guztien ezaugarrietara egokitzeko eta moldatzeko printzipioa. Beraz, ikasle horiek ez dute ikasle gehienen ohiko premiak asetzeko planifikatu eta garatutako irakaskuntza orokorrak eskaintzen dienera egokitu behar eta ez dute horrekin "konformatu" behar. Aitzitik, irakaskuntza egokitu behar zaio ikasle bakoitzari bere gaitasunen arabera eta bere premiei, bereziak izan edo ez, jarraiki aurreratzea ahalbidetzeko.

*Buruko atzerapenaren paradigma berria eta hezkuntza-premia bereziei erantzuteko dituen ondorioak*[6]

1992. urtean Burutiko Atzerapenetarako Elkarte Amerikarrak buruko atzerapenaren berrikusitako bere definizioa argitaratu zuen. Definizio horren ekarria buruko atzerapenarekin zerikusia duten irizpide diagnostikoen aurrerapenerako nabarmena izan zen. Baina horrezaz gain, bestelako ez-gaitasunen moten inguruko iritzi berriei ireki zien bidea, izan ere, buruko atzerapenaren kontzeptu generikoa eta orokortzailea ñabartzen duten hainbat elementu hartu zituzten barne. Horien artean egokitze-trebetasun desberdinetako gaitasunak, bizitzan ongi moldatzeko —horretarako ez-gaitasunen bat duten pertsonek laguntza beharko dute— beharrezkoak direnak, aipa ditzakegu.

A.A.R.Maren buruko atzerapenaren definizioa honakoa dugu:

*Buruko atzerapenak uneko funtzionamendurako funtsezko mugapenei egiten die erreferentzia. Batez bestekoarena baino nabarmen baxuagoa den funtzionamendu intelektuala, gehienetan ondoren adierazitako egokitzapen-trebetasunen arloetako bi edo gehiagotako mugapenekin batera agertu ohi dena, du ezaugarri. Hona hemen arlo horiek: komunikazioa, autozaintza, etxeko bizitza, gizarte-trebetasunak, komunitatearen erabilera, autozuzendaritza, osasuna eta segurtasuna, trebetasun akademiko funtzionalak, astialdia eta lana. Burutiko atzerapenak 18 urte izan baino lehen agertu behar du (Luckasson et al. 1992 p.1)*

Definizioz horrek, gainera, bere egiten ditu honako postulatu hauek:

1.- Baliozkoa izango den ebaluazio batek aniztasun kulturala eta linguistikoa hartu behar ditu aintzat, baita alderdi komunikatiboak eta portaeraren ingurukoak ere.
2.- Egokitze-trebetasunetako mugapenen existentziak adinez berdin direnentzako komunitate-testuinguru tipiko batean gertatu behar du eta banakako laguntzak eskatu behar ditu.
3.- Askotan, berariazko egokitze-mugapenekin batera beste egokitze-arlo edo gaitasun pertsonaletako potentzialtasunak ere izaten dira, eta
4.- Oro har, buruko atzerapena duen pertsonaren funtzionamendua hobetu egiten da denbora-tarte jarrai batean zehar laguntza egokiak eskaintzen bazaizkio.

Definizio horrek buruko atzerapena duen pertsonaren egoeraren ikuspegi berri baterako bide ematen du, gizartean bere kabuz moldatzeko beharrezko laguntzen arabera. Ekarri esanguratsu hori oso interesgarria da komunitatean moldatzeko minusbaliotasunen bat duen edozein pertsonak behar duen laguntza definitzeko.

---

[6] Miguel Angel Verdugo (zuz.) Personas con discapacidad. Perspectiva psicopedagógica y rehabilitadora. Siglo XXI argitaletxea. Madril.1995, 525. or. eta hurrengoak.

*Baliabideak eta hezkuntza-premia berezietarako erantzuna*

Marchesi eta Martín-en[7] ustez, ikasleak hezkuntza-premia bereziak izateak, oro har, bere eskolatzean zehar ikaskuntza-arazoren bat, bere adineko ikaskideek baino arreta berariazkoagoa eta hezkuntza-baliabide gehiago eskatzen dituena, duela esan nahi du.

Hezkuntza-premia berezien kontzeptuak, horrela adierazita, elkarrekiko harreman estua duten bi nozio hartzen ditu barne: ikaskuntza-zailtasunak eta baliabide bereziak.

Ikasle baten ikaskuntza-arazoek, alde batetik, izaera elkarreragilea dute, izan ere, baldintza pertsonalen nahiz eskola-ingurunearen ezaugarrien menpekoa izango da. Baina, gainera, ikaskuntza-zailtasunen kontzeptua erlatiboa da, kasu bakoitzean ezartzen diren helburuen, finkatutako curriculumaren, eskatzen diren mailen eta aplikatzen diren ebaluazio-metodoen araberakoa izango baita. Horrenbestez, hezkuntza-premia berezien kontzeptuak eskola, hezkuntza-erantzuna, azpimarratzen du, ikaslearen garapenarekin berariaz lotutako arazoak erlatibizatuz.

Lehen adierazitako hezkuntza-premia berezien kontzeptuak agerian uzten du hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek izan ditzaketen zailtasunei erantzuteko beharrezkoak direla hezkuntza-baliabide handiagoak.

Hezkuntza-baliabideak adieraziarekin eskolaren egitura fisikoari nahiz eskola-antolamenduari, material didaktikoari eta beren zeregina gauzatu ahal izateko langileen lanbide-prestakuntza eta -gaitasunari erreferentzia egiten dioten guztiak adierazi nahi ditugu.

Baliabide horiek eskura izateari esker, hauteman eta ebaluatu ondoren, hezkuntza-premia bereziei eraginkortasunez erantzun ahal izango diegu.

Beharrezkoa da azpimarratzea berriz ere zenbaterainoko garrantzia duen ikasle baten hezkuntza-premia bereziak dituen ezintasun pertsonaletatik abiatuta baloratu beharrean eskola-erantzunak izan ditzakeen gabezietatik abiatuta baloratzeak.

*Hezkuntza Bereziari buruzko legediaren analisia*

Hezkuntza Bereziari buruzko legediaren analisia[8] ez da inola ere garrantzirik ez duen auzia. Aitzitik, Hezkuntza Berezia ulertzeko eta antolatzeko moduan izan diren aldaketen argigarri eta etorkizunean egin beharreko transformazioen norabidea baloratzeko funtsezko oinarri da. Halaber, hezkuntza-administrazioak teorikoki onartzea baino gehiago eskatzen duten printzipio batzuen garapenarekiko duen borondatearen eta konpromiso-mailaren isla leiala da. Ildo horretatik, hainbat auzi —Hezkuntza Bereziko ikasleak izendatzeko araudian erabilitako terminoak, hezkuntza-sistema orokorrean duen lekua, Hezkuntza Berezia ulertzeko eta definitzeko modua— adierazi nahi denaren adibide egoki dira. Sarrera honen helburuak xede

---

[7] Marchesi, A eta Martín, E. “Del lenguaje del trastorno a las necesidades educativas especiales”. Marchesi, A., Coll, C eta Palacios, J. (bildumariak). Necesidades Educativas Especiales y Aprendizaje Escolar. III. Desarrollo Psicológico y Educación. Madril. Alianza Psicología, 1990, 15-33 orr.

[8] MEC. “La Educación Especial en el marco de la LOGSE”. Hezkuntza eta Zientzia Ministeritza. Madril.1994

horrekin du lotura eta ez du, bada, Hezkuntza Bereziaren lege-garapenaren deskribapen historiko huts izan nahi.

Hezkuntza-premia bereziko ikasleen hezkuntza lehen aldiz hezkunta-sisteman 1970eko Hezkuntzako Lege Orokorrean hasi zela planteatzen esan dezakegu. Izan ere, lege horrek hezkuntza-premia bereziko ikasleen hezkuntzari gainerako ikasleen hezkuntzarenarekin batera heltzen dio. Gisa horretan, beren hezkuntza hobetzeko ezinbesteko aurrerapausoa eman zen. Gogoan izan, berritasun horren garrantzia balioesteko, badirela oraindik hezkuntza-premia bereziko ikasleen hezkuntza hezkuntza-legedi orokorrean barne hartzen ez duten eta Hezkuntza Berezia gizarte-ongizaterako edo osasunerako sailetatik antolatzen duten herrialdeak.

Dena dela, eta gure inguruneko herrialde gehienetan urte haietan gertatzen zen gisan, Hezkuntza Orokorreko Legeak Hezkuntza Berezia sistema arruntaren sistema paralelo gisa, nagusiki Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan zentratutako eta zentro horietara joan behar zuten ikasle-moten —"urrituak eta moldatu gabeak"— arabera definitutako gisa, osatzen zuen.

1982ko Minusbaliatuen Gizarte Integraziorako Legeak, Konstituzioko 42. artikuluak minusbaliotasuna duten pertsonei onartzen dizkien eskubideetan oinarrituta, minusbaliotasunen jatorria eta esanahia ulertzeko modu desberdin bat ekarri zuen, izan ere, nabarmen adierazi zituen urritasunaren, ez-gaitasunaren eta minusbaliotasunaren arteko desberdintasunak. Hori eginez, onartu zuen pertsona bat, bere ez-gaitasun fisiko, psikiko eta sentimenen ingurukoen eragina konpentsatzeko familiako, hezkuntzako, gizarteko eta lan-munduko inguruneetan zenbat eta egokituagoa egon, orduan eta minusbaliotasun gutxiago izango duela bere banakako eta gizarteko gaitasunetan. Horrenbestez, bere egin zuen hezkuntzako, gizarteko eta lan-munduko integraziorako aukerak ez direla minusbaliatuen baldintza pertsonalen araberakoak bakarrik. Aitzitik, bere mugapenak konpentsatzeko gizarteak eskura jarri nahi dizkion baliabideen eta elkarbizitza hiritarra zuzenduko duten balio gisa desberdintasunekiko elkartasuna eta errespetua onartzearen araberakoak ere badirela adierazi zuen.

Minusbaliatuen Gizarte Integraziorako Legearen, marko-lege denaren (hau da, administrazio partikularrei beren berariazko eremuan bertan ezartzen diren aginduak garatzeko gaitasuna eta erantzukizuna egozten die), ondorioetako bat minusbaliotasuna zuten pertsonak gizartean benetan integratzera bideratutako hainbat eremutako (hezkuntzako, gizarteko eta lan-munduko) xedapenak sustatzea izan zen. Xedapen horien ezaugarri komun bat, pertsonek integratu behar duten eta minusbaliotasunaren kontzepzio elkarreragile batekiko koherentzian parte hartu behar duten hezkuntzako, gizarteko eta lan-munduko eremuetan neurri handi batean kontzientziazioan eta egokitzapenean eragitea ahalegintzera bideratutakoak izatea da.

Hezkuntzaren eremuan Minusbaliatuen Gizarte Integraziorako Legeak Euskal Herrirako Hezkuntza Berezirako Egitamuak aipatutako printzipioak inspiratu zituen.

1982ko irailaren 2ko Agindua, Hezkuntza Sailarena, Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Bereziko irakaskuntzak arautzen dituena, izan zen Hezkuntza Berezirako Egitamuan proposatutako aldaketen abiapuntu. Minusbaliatuen Gizarte Integraziorako Legeak hezkuntzaren inguruan inspirazio izan zituen printzipioei jarraiki, agindu horrek arazo fisikoak eta fisikoak eta sentimenen ingurukoak dituzten pertsonen hezkuntza eskolako eta

gizarteko integrazio eraginkorra ahalbidetzeko moduan gauza dadin beharrezkoak diren jarraibide eta neurrien multzo bat ezarri zuen.

Aipatutako agindu horretan Hezkuntza Bereziko subjektuak definitu ziren, baita autonomia pertsonala lortzera, eskola-prestakuntzaren alderdietarako sarbiderako ez-gaitasunak sortzen dituen oztopoak gainditzera eta abarretara bideratutako hezkuntza-proposamena ere.

Hiru erantzun-testuinguru hartu ziren kontuan: gela arruntak, gela bereziak eta Hezkuntza Bereziko berariazko ikastetxeak. Diagnostikoarekin batera, derrigorrezkoa da eskolatzea eta ikaskuntza gauzatzeko modurik egokiena zein den adieraziko duen orientazio-plan bat prestatzea.

Hezkuntza Bereziko gelak dituzten ikastetxe guztiek ez-gaitasunak dituzten ikasleak eskolatzeko betebeharra dutela adierazi zuen eta ikasle horiekin lanean diharduen hezkuntza-taldeak gelen funtzionamendua eta ikasle bakoitzarekin egin beharreko lanerako proposatutako metodoen egokitasuna ebaluatzeko aldizka bildu behar duela ere gehitu zuen.

Aipatutako legeak irakasleez gain ikasleen hezkuntza-erantzun egokian esku hartuko duten profesionalak ere adierazi zituen.

Halaber, zentro koordinatzaileak eta talde multiprofesionalak eratu ziren.

Zentro koordinatzaileek talde multiprofesionalen sare guztia zabaldu arte eta euskal hezkuntza-sisteman hezkuntzan laguntzeko beste egitura batzuk osatu arte jardungo dute.

1983ko uztailaren 12ko Aginduak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailarenak, egindako aipatutako planaren garapen gisa eskola-sistemari laguntzeko ekipo multiprofesionalak arautu ziren.

Agindu horretan adierazitakoaren arabera, honakoek osatuko dute talde bakoitza: pedagogo batek, zuzendari izango denak, psikologo batek eta pedagogia terapeutikoa duen OHOko irakasle batek, gizarteko eta familiako arretaren eta hezkuntzaren funtzioa izango duenak. Talde bakoitzari 60.000 biztanle inguruko zona bat egotziko zaio.

Taldearen funtzioak honakoak izango dira:

a) Irakaspidetza-ikuspuntu batetik, zenbait haurrek ager ditzakeen arazoei aterapidea ematen, Irakasle-arduradunari eta hezkuntzaldiko taldeari laguntza ematea.
b) Premia izan dezaketen haurrei eta bere eskolak eskatu ondoren, gaitz-azterpenak egin eta horietaz arduratzea.
c) Gaitz-Azterpen aldetik nahiz sendabiderapenetik, haur batek behar ditzaten laguntza-eskuarte bereziei helpide abilatu eta horien eraentza egitea.
d) Antzeko hezkuntza-haztura duten Irakasleen bilerak eta horien arteko harremanak ahalbideratu eta sustatzea.
e) Berarizko Hezkuntza aldetik, eskualdeko irakaslegoaren etengabeko gaitze-beharrak eta zuduak HEZI-runtz bideratzea.
f) Berarizko Hezkuntza aldetik agertutako beharrak, dagozkion arduralaritza-erakundeetaruntz bideratzea, ikuspegi horretatik, eskualdean ekin dakion ezein ekintzatarako beharrezko dela erakunde horien erizpena.

Hezkuntza-sistemak hezkuntza-premia berezietan laguntzeko sortutako egitura hau Laguntza eta Baliabide Zentroetan (LBZ) hartuko da barne 1984ko ekainaren 27ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Aginduaren, beroriek sortzen dituenaren, bidez.

318/1984 Dekretuak, irailaren 25ekoak, Itsuentzako Baliabidetegiak sortu zituen eta 1984ko urriaren 10eko Aginduak, berriz, horien funtzionamendua baimendu zuen.

"2. Atala.- Sortutako Baliabide-Tegi berriak Wecher-en neurri mailez ikusmenaren 10/1a gainditu ez eta agizko Ikastegietan eskolatuak ez dauden eskolaurreko eta O.H.O.-ko haurrek eskatzen dituzten laguntzak emateko izango dira. Horretarako, Beharrezko irakas-tresneria izango dute eta bertara izendatutako irakaslegoa, O.H.O.ko Irakasle-Saileko herrilanari izango dira edo kidekatuak, ibiltariak, itsu edo ikusmen urriko diren haurrak eskolatuak dauden agizko Ikastegiei teknika laguntza emango diete eta Dekreto honen bidez sortzen diren Baliapide-Tegietan eskolako laguntzaren beharra duten ikasleen ardura izango dute."

154/1988 Dekretuak, ekainaren 4koak, Pedagogi Aholkutegien sorrera eta funtzionamendua arautu zituen. Pedagogi aholkutegiak hezkuntza berritzeko eta hobetzeko zonakako izaerako hezkuntza-tresna gisa sortu ziren, unibertsitatekoak ez diren hezkuntza-mailetan laguntzeko zerbitzu gisa. LBZk PATek ordeztu zituzten eta talde multiprofesionalak zerbitzu horietan barneratu ziren jarduketa-arlo gisa.[9]

Talde multiperofesionalak PATetan sartzeko prozesu horretan, horiek berregituratu egin ziren bi ikuspunturen arabera. Alde batetik talde multiprofesionaletako langileen egonkortasuna ezarri zen plaza finko gisa eratuz eta bestetik, taldeak psikologo eta pedagogoek bakarrik osatuko dituzte.

Jada aipatu dugun Hezkuntza Bereziko Batzordearen txostenak, "Eskola muinbakarra eta integratzailea" izenekoak, 1988ko amaieran batzordeak egindako gomendioak gauzatzen hasteko neurri normatibo batzuk izan zituen ondorio.

1990eko martxoaren 15eko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduaren bidez, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasleen artean aholkulariak prestatzeko ikastaro baten deialdia egin zen[10]. Prestakuntza-ikastaroaren amaieran ikastaroa gainditutako irakasleak irakasle-aholkularien plazetara atxiki ziren OHOko ikastetxeetan.

---

[9] Villa Aurelio (zuzendaria) Rosa Murguía Quincoces, Lourdes Villaredón Gallego eta Elena Auzmendi Escribano "Evaluación de los Servicios de Apoyo externo a la Integración". HEZI. Deustoko Unibertsitatea. Bilbo.1992

[10] Hezkuntza Bereziko Batzordearen txostenaren neurriko ondorio gisa, irakasle aholkulariaren figura, ikastetxearen plantilako kide izanez ikastetxeko talde-bizitzan integratu beharko dena, ezartzen hasi ziren. Bere helburua berariazko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen beharrezko curriculum-egokitzapenen garapenean tutore-irakasleari eta irakasle-taldeari laguntzea eta orintabidea eskaintzea izango da.

Irakasle aholkulariek gelarako sarbidea izan beharko dute hezkuntza-egoeraren testuingurua ebaluatzeko eta programa baten presentzia- eta demostrazio-egikaritzea egiteko. Egoera puntualetan bakarrik egin beharko du bere eskuhartze indibidualaren zeregina talde arruntetik kanpo. Azken horien gisako jarduerak, beren zeregina ez indargabetzeko, gehienez ere beren lan-jardunaldiaren 1/5era mugatzea gomendatzen da.

Hezkuntza Bereziko Batzordearen txostenean proposatutako neurrien garapen gisa 5/1990 Dekretuak, urtarrilaren 23koak, Euskal Herriko Irakas Baliabideetarako Etxea sortu zuen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari hezkuntza-premia bereziekiko arretarekin zerikusia duten programen agarpenari dagokionean laguntzeko eta aholkuak eskaintzeko zerbitzu gisa eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta egokia eskaintzeko sailen eta erakundeen arteko koordinazioaren prozesuan lankidetzan aritzeko tresna gisa.

Erakunde horren helburuak honakoak izango dira:

a) Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen hezkuntza garatzeko, Sailak eskatu ditzan ikerketak egitea.
b) Hezkuntza-behar berezien ebaluaketarako instrumentuak lantzea eta O.P.I.-ari aholkuak ematea horien aplikapena egin ahal izateko.
c) Taiuketa curricularren ereduak lantzea, agiango ekintza ezberdinak egokituz.
d) Testuen eta/edo materialen argitalpenak lantzea, egokitzea eta, hala behar izan dadinean, bultzatzea.
e) Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen familientzako eta profesionalentzako eta komunikabideentzako dibulgazio-materialak lantzea.
f) Irakaslegoaren hobekuntza-lanetan parte hartzea, curriculumak egokitze-arloetan eragina izan dezatenetan bereziki.
g) O.P.I.-koak izan eta hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen arloko profesionalen gaitasun-mailak eta etengabeko ahokularitza hobetze-programa bat garatzea.
h) Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-beharretarako teknologia berriak esperimentatzea eta horiek sartzea.
i) Hezkuntza-behar bereziei buruzko eta horien emaitzei buruzko ikerketak egitea
j) Hezkuntza Bereziko Planaren garapenari buruzko proposamenak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egitea
k) Hezkuntza-behar bereziak dituzten pertsonei behar bezala erantzun ahal izateko, sailen arteko eta/edo hainbat instituzioen arteko koordinakuntza-prozesuan, lankide izatea.
l) Arauz eman dakiokeen beste edozein egiteko.

Hezkuntza Bereziko Batzordearen aholkuei jarraiki, 1990eko maiatzaren 16ko Aginduaren bidez Pedagogi Aholkutegien Hezkuntza Bereziko talde multiprofesionalek garatu beharreko programak xedatu ziren. Agindu horretan Hezkuntza Bereziko ardura duten talde multiprofesionalek honako programa hauen garapena beren gain izango dutela adierazi zuen:

-Irakasgaitasunen garapena.
-Garapenaren nahaste orokorrak dituzten ikasleek hezkuntza.
-Gizarte-egokitzapenaren garapena.
-Entzumena eta hizkuntza.
-Hezkuntza goiztiarra.
-Lanerako prestakuntza, goi-mailako zikloetan barneratzea eta helduarora bideratzea.

1990. urtean estatuko hezkuntza-erreformaren prozesuan inflexio-puntu bat izan zen LOGSEaren promulgazioa zela eta.
1/1990 Lege Organikoak, urriaren 3koak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerakoak (LOGSEk), Minusbaliatuen Gizarte Integraziorako Legeko normalizazio- eta integrazio-printzipioak jaso eta indartu zituen.

LOGSE Legearen aldarrikapenaren ostean hainbat curriculum-dekretu garatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan eta horien barruan, hau da, araudi orokorraren barruan, hezkuntza-premia bereziei erantzuteko neurriak hartu ziren barne, sarrera hau argitzen duten txostenetan barrena orain arte planteatu dugun gisan.
236/1992 Dekretuak, abuztuaren 11koak, Haur Hezkuntzako curriculuma ezarri zuen eta 237/1992 Dekretuak, egun berekoak, Lehen Hezkuntzako curriculuma xedatu zuen.
Lehenaren 13. artikuluak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, ikasleak Haur Hezkuntzako berezko gaitasun orokorrak lortzera bideratutako bitarteko gisa, curriculumak egokitzeko aukera hartzen du barne. Dekretuaren arabera, egokitzapen horiek egin aurretik ikaslearen hezkuntza-premia bereziak testuinguruan bertan ebaluatu behar dira eta berariazko curriculum-proposamen bat egin behar da.

Horixe bera zehazten da Lehen Hezkuntzako Dekretuaren artikuluan, curriculum-egokitzapenen kontzeptua zabalago definitzen duenean: "Lehen Hezkuntzan, curriculumaren ebaluazio edukinetatik eta irizpideetatik nabarmenki alden daitezen curriculumaren egokitzapenak burutu ahal izango dira, hezkuntz behar bereziak dituzten ikasleentzako. Aipatu egokitzapenak hezkuntz helburuen egokitasunean oinarritu daitezke, edukin jakin batzuen ezabapenean edo ezarpenean eta, ondorioz, ebaluazio irizpideen egokitzapenean, baita curriculum arlo jakin batuzen hezkuntz ihardueren eta curriculumarekiko sarbidezko elementuen aldakuntzan ere.
2.-Atal honek adierazitako curriculumaren egokitzapenak, ikasleek, beren ahalmenen arabera, Lehen Hezkuntzari berez dagozkion gaitasun orokorrak lortzera zuzenduta egongo da."

1992ko abuztuaren 13ko Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ezartzen dituenak, honela dio: 1. 1006/1991 Errege Dekretuaren, ekainaren 14koaren (ekainaren 26ko BOE) Xedapen Gehigarriak xedatzen duenari jarraiki, 1992an zehar 6 urte beteko dituzten ikasleek Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloari ekingo diote.; 2.-Adin hori egokitu egin ahal izango da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legearen hirugarren artikuluaren bosgarren atalak ezartzen duenaren arabera. Egokitzapen hori ebaluazioaren ostean egin beharko da, ikaslearen gurasoen edo tutoreen oniritziarekin eta zonako talde multiprofesionalaren txostenarekin. Azkenik Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak eman beharko du baimena.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen erantzunak praktika orokorrean barne hartzeko ildoari jarraiki, 195/1992 Dekretuak, uztailaren 14koak, Ikasketa Planak Eratzeko eta Irakasleak Prestatzeko Institutua sortu zuen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Iikerketa Sailaren menpeko zerbitzu tekniko gisa, hezkuntza-berrikuntza eta -erreforma ezartzeko laguntza eskaintzeko eta aholkuak emateko, eta bereziki, curriculum-diseinuarekin zerikusia duten diseinuaren eta plangintzaren, hezkuntza-premia bereziekiko arretaren, irakasleen etengabeko prestakuntzaren eta abarren inguruko gaietan.

Euskal Herriko Irakas Baliabideetarako Etxea, 9/1990 Dekretuaren, urtarrilaren 23koaren, bidez sortutakoa, ezabatu egin zen eta berorren funtzioak IPEIk beretu zituen, berorren barruan entitate propioa duen jarduketa-eremu gisa barne hartuta.

Aniztasunaren tratamenduari eta hezkuntzaren funtzio konpentsatzaileari dagokionean Europan nagusi den pentsamenduari jarraiki, 1/1993 Legeak, otsailaren 19koak, Euskal Eskola Publikoarenak, honela dio 3.- 1 artikuluan: "Euskal eskola publikoa, horko ikastetxe bakoitza, anitza, elebiduna, demokratikoa da, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzazkoa, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitateen bateratzailea."

Bere helburuen artean honakoa dugu : "Ikasleen jatorrizko ezberdintasunak berdintzeko, maila, etapa, ziklo eta gradu guztietan ihardutea".

10.4 artikuluan honela dio:

> "Bestalde, gorputz- nahiz adimen-ezintasunak dituztenei laguntzeko banakako neurriak hartzeko ahaleginak egingo dira. Hezkuntzako behar bereziak aurrezaintzeko, garaiz antzemateko, testuingurua kontutan hartuz ebaluatzeko eta behar berezi horiei erantzun egokia emateko neurriak hartuko dira.
> Ahal denean, behintzat, gela arruntetan eskolako dira ikasle guztiak, eta behar-beharrezko denean baino ez ikastetxe arruntetako heziketa bereziko geletan. Ezinbesteko izan dadinean, heziketa bereziko ikastetxeetan emango zaie heziketa ikasle horiei."
>
> 10.6."Euskal eskola publikoko herri-ikastetxeek, beren autonomia erabiliz eta, hala behar izanez gero, kanpoko laguntza-sistemen laguntzaz, gelako taldeen antolaketan indartze- eta malgutasun-neurriak, curriculumen egokitzapenak eta pedagogi baliabideen antolaketa-neurriak ezarri ahal izango dituzte, beti ere, derrigorrezko irakaskuntza-aldian zehar muinbakar, aniztasuna modu bateratzaile eta banakakoan bereganatzeko asmokoa eta ikasleei beren hezkuntza-helburuak erdiesteko aukera emango dien kalitatezko eskola ahalbideratuz".
>
> 10.7."Hezkuntza, unibertsitate eta Ikerketa sailak hitzarmenak egin ahal izango ditu gizarte- eta osasun-zerbitzuekin, orobat bestelako erakunde publiko nahiz pribatuekin ere, lege honetan adierazitako helburuen garapen osorako egitekoetan koordinazio haundiagoa lortzeko".

13.2 artikulua:

> "Heziketa-behar bereziak dituztela eta, baliabide berezituen beharrean diren ikasleek lehentasuna izango dute baliabide horietaz osatutako ikastetxeetan sartzeko orduan".

LOGSEren ondoren hezkuntza-etapa desberdinen curriculum-dekretuetan hasitako garapen normatiboak beste adierazpen bat izan zuen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako curriculum-egokitzapenen arautzean.

1993ko maiatzaren 5eko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako curriculum-egokitzapenak arautu zituen.

Agindu horren arabera curriculum-egokitzapena ikaslearen hezkuntza-premia bereziei erantzuteko programazioaren elementu batean edo batzuetan egindako aldaketen multzoa izango da.

Azken urteetan gure gizartean agertutako pentsamendu eta iritzien ildoa aintzat hartuz, 213/1994 Dekretuak, ekainaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegorako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezarri zuen. Dekretu horrek, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako dekretuek bezalaxe, curriculum-egokitzapenaren kontzeptua hartu zuen

barne, curriculum-egokitzapen horiek ikasleek, beren taldean ahalik eta gehien integratuz, beren gaitasunen arabera etapak berezko dituen gaitasunak lortzera bideratutakoak izango direla kontuan izanik.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten eta Bigarren Hezkuntzan graduatua lortzen ez dutenei lan-munduan sartzea ahalbidetuko dien egokitutako prestakuntzarako sarbidea izateko baldintzak ezarriko direla ere adierazten da.[11]

Azken horri dagokion lehen araua 1994ko urrikoa dugu, Irakaskuntza ertainetan eta zereginen ikaskuntzarako sekzioetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzun egokia eskaintzeko Hezkuntza Sailordetzak eta Hezkuntza Administrazioak emandako jarraibideen bidezkoa.

Jarraibide horiek diotenez, OHO hezkuntza-zatia amaitu ostean hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen erantzun egokiak Irakaskuntza Ertainen markoan hainbat baliabide integratzaile, nabarmen berezitako bi egoerari erantzutera bideratutakoak, abian jartzea eskatzen du. Hona hemen bi horiek:

a) Eskolatze arrunta, Irakaskuntza Ertainen curriculum komuna erreferentzia gisa hartuta, baliabide, curriculumerako sarbiderako bitarteko eta curriculum-egokitzapen egokiekin, curriculum arruntei jarrai diezaieketen eta beharrezko egokitzapenekin dagokion titulazioa lor dezake ikasleentzat.

b) Zereginen Ikaskuntzarako Sekzio baten markoko eskolatzea, beren egoera pertsonalak direla eta, aldaketa esanguratsuak egin arren, curriculum arruntei jarraitu ezin dieten ikasleentzat.

Integrazioa sustatzeko ildo horretan bertan koka ditzakegu 447/1994 Dekretua, azaroaren 22koa, Lanbide Heziketako irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duena eta bere tituluei buruzko norabideak. 13.2. artikuluan dioenaren arabera, curriculum-egokitzapen esanguratsua behar duten hezkuntza-premia bereziko ikasleen kasuan, irakasle-taldeak kasu horietarako araudiak ezartzen duenari lotuko zaizkio. Gainera, gogoan izango dute curriculum-egokitzapen esanguratsuak ezingo dituela inoiz ezabatu tituluari dagokion gaitasun orokorra lortzeko oinarrizko lanbide-gaitasunekin zerikusia duten helburuak. 20.3. artikuluaren arabera, berriz, dekretu horrek 13.2. artikuluaren arabera curriculum-egokitzapen esanguratsu bati jarraitzen dioten ikasleen kasuan, egokitzapen horren diseinuak artikulu horretan jasotako promozio-irizpideak bezalakoak ez diren irizpideak izan ditzake.

Gisa berean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1994ko irailaren 26ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Batxilergoaren ezarpena aurreratzekoak, bere 10.11. artikuluan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan curriculum-egokitzapen esanguratsu bat behar duen programazioa garatzeko aurretik Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzaren baimena behar dela adierazten du.

[11] VV.AA. “Tránsito a la vida adulta de jóvenes con necesidades educativas especiales” EHUko HEZI/IBE. Bilbo.1992

Nolanahi ere, 1995. urtera arte, 9/1995 Lege Organikora, azaroaren 20kora, Ikastetxeen Partehartzeari, Ebaluazioari eta Gobernuari buruzkora, iritsi arte ez da definitu hezkuntza-premia bereziko eskola-populazioa bere eskolatzearen aldi batean zehar edo eskolatze osoan zehar, ez-gaitasun fisikoak edo psikikoak edo sentimenen ingurukoak izateagatik, jokabide-nahaste larriak izateagatik edo aldekoak ez diren kultur edo gizarte-egoeran egoteagatik berariazko hezkuntza-laguntza eta -arretak behar dituen talde gisa. Gisa horretan, hain zuzen, aipatutako legearen bigarren xedapen gehigarrian definitu zen.

Ikusi ahal izan dugunez, definizioak ez dio ez-gaitasunezko egoera bati bakarrik egiten erreferentzia, harantzago doa eta aldekoa ez den kultur edo gizarte-egoeretatik eratorritako beste egoera batzuetara zabaltzen du kontzeptua.

Alderdi hori, orain arte hezkuntza-premia berezi gisa identifikatu ez dena, aintzat hartzeak egoera horietatik eratorritako egoerei erantzuteko berariazko agindu bat ezartzea sustatu du.

25/1996 Dekretuak, urtarrilaren 23koak, Euskal Autonomia Erkidegoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezartzen duenak, bere 16. artikuluan adierazten du Ikastetxearen Curriculum Proiektuak, besteak beste, hezkuntza-premia berezien tratamendua zehaztuko duela. 26. artikuluak, bestetik, ikastetxearen AJAk ikasleak bere eskubideen arabera izan dezakeen orientabide akademikoa, pertsonala eta profesionala bermatzeko beharrezkoak diren neurriak arbitratu beharko dituela dio. Hori hainbat ekintzaren bidez egingo da. Horien artean "tutore-irakasleei ikaslearen orientabide pertsonalaren, akademikoaren eta profesionalaren eta aniztasuna tratatzeko, hezkuntza indartzerako, curriculum-egokitzapenerako eta orientabide-kontseilurako ekintzak garatzearen inguruko aholkularitza eskaintzea" dugu.

1996ko apirilaren 24ko Ministeritza Aginduaren bidez, oinarrizko arauaren izaeraz, salbuespen gisa aparteko talentuaren inguruko baldintza pertsonalak direla eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen derrigorrezko eskolatzearen aldia malgutzeko baldintzak eta prozedurak arautu ziren.

Aparteko talentua duten ikasleen presentziak ikasle horiek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen artean barne hartzera eraman du araudi berria idatzi duen taldea, gisa horretan 9/1995 Lege Organikoak, azaroaren 20koak, adierazitako osatuz.[12]

1997ko uztailaren 9ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarenak, EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan curriculum desberdinak eratzeko programak arautu zituen. Bere 8. artikuluan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei egiten die erreferentzia eta honela dio "Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, programa indibidualizatuetan hartuko dira barne beharrezkoak diren curriculum-egokitzapen esanguratsuak. Programa horiek onartzeko prozesua DBHko bigarren zikloko curriculum-egokitzapen indibidualentzat ezarritakoa izango da."

*Ez-gaitasunen bat duten pertsonei nazioartean emandako erantzuna.*

---

[12] VV.AA."La educación del alumnado con altas capacidades". Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.1995

1992ko apirilaren 9an Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak "Minusbaliotasunen bat duten pertsonak errehabilitatzeko politika koherentea izeneko nazio-agintarientzako errehabilitazio- eta integraziorako programa eredua" oinarri duen aholkua eman zuen.

V. kapituluan, hezkuntzari eskainitakoan, ez-gaitasunen bat duten pertsonei hezkuntza-erantzun egokia eskaintzeko politikak eta orientabideak ezartzeko jarraibideak eman ziren:

1.-Helburua:

11.-Minusbaliotasunen bat duten pertsona guztiek, berorren izaera edo maila edozein izanik ere, doaneko hezkuntza egokia, beren premiei eta desioei egokitutakoa, izateko eskubidea dute.

1.2.-Eskolako hezkuntzak honakoa ahalbidetu beharko lieke minusbaliotasuna duten pertsonei:

-ahalik eta garapen pertsonalaren mailarik altuena lortzea;

-ikasteko estimulatua izatea, beren minusbaliotasunak kontuan izanik eta ikasketa erraztuko duten laguntzak erabiliz;

-beren minusbaliotasuna onartzea eta aurre egin beharreko oztopoak gainditzeko beharrezkoak diren trebetasunak lortzea.

1.3. Irakaskuntzak ahal duen neurrian minusbaliotasuna duen pertsonari bere independentzia ekonomikoa lortzea eta bere herrialdearen gizarte-garapenean laguntzea ahalbidetu beharko lioke. Gainera, tradiziozko ikasketa-planez gain, minusbaliotasuna duten gazteen irakaskuntzak honakoak hartu beharko lituzke barne:

-gizarte-trebetasunak eta bizitza autonomorako prestakuntza, gurasoekiko eta hezkuntzako langileekiko lankidetzan, eta

-bizitzari aurre egiten eta gizartean integratzen lagunduko dieten laguntza praktikorako neurriak.

1.4.- Planteatutako helburuak eta minusbaliotasunen bat duten haurren hezkuntza bermatzeko abian jarraitako neurriak, haur horren premia, aukera eta desioetara egokitutako proiektu indibidual batean, pedagogiaren, hezkuntzaren eta terapiaren inguruko alderdiak izango dituenean, kokatzen dira. Haurraren ardura duten irakasleek haurraren familia ahal duen adina eta modu aktiboan inplikatu behar dute proiektu hori prestatzerakoan, gauzatzerakoan, jarraipena egiterakoan eta ebaluatzerakoan. Horrenbestez, erregulartasunez eman behar zaio familiari haurraren bilakaeraren berri eta, ahal den heinean, laguntzarako neurriak eduki behar dira.

1.5.-Eskuhartze goiztiarraren printzipioa kontuan izanik, interesgarria izango da haurrarentzat:

-eskolaurrean hezkuntza- eta medikuntza-laguntza lortzea, batez ere horrek haurraren ondorengo eskolatzea erraztea ahalbidetzen badu.

-eskolaurreko eta eskolako klaseetara lehenbailehen hastea.

1.6.-Minusbaliotasunen bat duten eta ez duten haurren arteko kontaktuek neurri handi batean estimulatzen dute bien integrazioa. Arrazoi hori dela eta, ahal den neurrian eskolatzea eskola-ingurune arruntean bermatu beharko litzateke, beharrezko irizten den bakoitzean ezinbesteko laguntza baliatuz. Minusbaliotasunen bat duten haurren premia bereziei erantzuteko eskura jarri beharko lirateke terapiaren, teknikaren eta hezkuntzaren inguruko laguntza bereziak. Haurraren egoerak hezkuntza espezializatua, arrunta edo bien arteko konbinaketa eskatzeak, honakoak eskatzen dituen bitartekoen "continuum" bat dakar:

-eskola-ingurune espezializatuaren eta arruntaren arteko lankidetza estua;

-minusbaliotasunen bat duten eta ez duten adin bereko haurren arteko kontaktuak;

-ahal den heinean eta hala nahi bada, eskola-ingurune arruntera igarotzeko sustatzea.

1.7.Haurtzaindegiak, eta hala badagokio, zerbitzu pedagogiko goiztiarrak, dira minusbaliotasunen bat duten eta ez duten haurrak elkarrekin hezteko aldeko abiapuntua, izan ere, gizabanakoa estimulatzeko metodo malguetara jotzeko aukera dute, sozializazioa errazten dute eta ez dituzte eskolatzean beranduago agertuko diren jarduketak normalizatzeko printzipioak.

1.8.-Eskola-mota ebaluazio zorrotz baten bidez aukeratu beharko litzateke. Haurraren gaitasun, desio eta premia bereziak aintzakotzat hartuz eta orientazio pedagogikorako teknikak erabiliz, espezialisten talde multidisziplinar batek aholkatu beharko lituzke minusbaliotasunen bat duten haurren gurasoak.

1.9.-Arreta berezia eskaini behar zaio ordenagailuaren zereginari eta irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren alorrean teknologia berriek duten eraginari. Komenigarria da bitarteko desberdinak aztertzea hezkuntzarako eta prestakuntzarako laguntza gisa ordenagailua erabiltzeko.

1.10.-Eskolaren eta haurraren familiaren arteko kontaktuak ezinbestekoak direnez, familiak eskolako jardueretan edo erakunde mediko-pedagogikoetan parte hartzea eta horiekiko interesa izatea estimulatu beharko litzateke. Haurraren ingurune pedagogikoan edozein aldaketa egiteko, haurrek eta gurasoek egokitzapen-gaitasun handia, laguntza psikologikoa behar duena, behar dute.

1.11.-Minusbaliotasunen bat duten haur guztiek dute, beren ez-gaitasunaren izaera edozein izanik ere, beren premien eta familien desioaren arabera egokia izango den ingurune batean hezkuntza egokia jasotzeko eskubidea.

1.12.-Minusbaliotasunen bat duten eta etekinen bat izan dezaketen pertsona guztiek erraztasunak izan beharko lituzkete beren prestakuntza eta hezkuntzarekin jarraitzeko.

Herrialderik aurreratuenetan, Europan nahiz munduan, indarrean dagoen pentsamendua irmotasun handiagoarekin —hori posible bada— adierazi zen 1994ko martxoaren 4an Nazio Batuen Asanblada Nagusiak “Ez-gaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasunari buruzko arau uniformeei” buruzko erabakia onartu zuenean.

Bere 6. artikuluan, hezkuntzari eskainitakoan, honela dio:

> “Estatuek hezkuntzarako aukera-berdintasunaren printzipioa onartu behar dute lehen mailan, bigarren mailan eta goi-mailan, haurrentzat, gazteentzat eta ez-gaitasunen bat duten helduentzat ingurune integratuetan, eta ez-gaitasunen bat duten pertsonen hezkuntza irakaskuntza-sistemaren zati izan dadin zaindu behar dute.

1.-Ingurune integratuetan ez-gaitasunen bat duten pertsonen hezkuntzaren erantzukizuna irakas-aginteei dagokie oro har. Ez-gaitasunen bat duten pertsonen hezkuntzak irakaskuntzako plangintza nazionalaren, ikasketa-planen prestaketaren eta eskola-antolamenduaren zati izan behar du.

2. Araututako eskoletako hezkuntzak interpretazio-zerbitzuak eta laguntzarako beste zerbitzu egoki batzuk eskaini behar ditu. Sarbiderako baldintza egokiak eta hainbat motatako ez-gaitasunak dituzten pertsonen funtzioaren araberako laguntza-zerbitzuak eskaini behar dira.

3.-Gurasoen talde edo elkarteek eta ez-gaitasunen bat duten pertsonen erakundeek hezkuntza-prozesuaren maila guztietan hartu behar dute parte.

4.-Derrigorrezko irakaskuntza duten estatuetan irakaskuntza hori ez-gaitasunen maila eta mota guztiak, baita larrienak ere, dituzten neska-mutilei eskaini behar zaie.

...

6.-Ez-gaitasunen bat duten pertsonen irakaskuntzaren inguruko xedapenak irakaskuntza orokorraren sisteman barne hartu ahal izateko, estatuek:

a) Argi formulatutako politika bat, eskoletan eta oro har komunitatean ulertu eta onartuko dena, izan behar dute;

b) Ikasketa-planak malguak, egoki daitezkeenak eta beharrezko irizten denaren arabera hainbat elementu gehitzeko aukera ematen dutenak izatea ahalbidetu behar dute;

c) Kalitatezko material didaktikoak eskaini behar dituzte eta irakas-langileen eta laguntzarako langileen etengabeko prestakuntza aurreikusi behar dute.

7.-Komunitatean oinarritutako hezkuntza integratuko programak ez-gaitasunen bat duten pertsonei ekonomikoki bideragarriak diren prestakuntza eta hezkuntza errazteko osagarri erabilgarri gisa hartu behar ditugu. Komunitate-oinarria duten programa nazionalak komunitateen artean ez-gaitasunen bat duten pertsonei hezkuntza tokian-tokian eskaintzeko sustatzeko erabili behar dira.

8.-Irakaskuntza orokorrerako sistema ez-gaitasunen bat duten pertsonen premiei arreta eskaintzeko moduan ez dagoen egoeretan, irakaskuntza berezia, ikasleak irakaskuntza-sistema orokorrera egokitzea helburu duena, ezartzeko aukera azter liteke. Hezkuntza horren kalitatea irakaskuntza orokorrean aplikagarri diren arau eta igurikapen berdinek gidatu behar dute eta horri estu lotu behar zaio....Estatuek irakaskuntza bereziko zerbitzuak pixkanaka irakaskuntza orokorrean integratzea lortu behar dute. Onartzekoa da, zenbaitetan, irakaskuntza berezia dela ez-gaitasunen bat duten ikasle batzuei irakasteko formarik egokiena iritzi daitekeela.

9.-Pertsona gorrek eta gor eta itsu direnek komunikatzeko dituzten premia bereziak direla eta, agian komenigarria litzateke arazo horiek dituzten pertsonentzako eskoletan edo irakaskuntza orokorretako gela edo sekzio berezietan irakastea. Batez ere hasieran, bereziki zaindu beharko litzateke irakaskuntzak kultur desberdintasunak aintzat hartzea, gorrak edo gorrak eta itsuak diren pertsonek benetako komunikazioa eta ahalik eta autonomiarik handiena lor ditzaten.

Urte beran, 1994an, eta Nazio Batuen "Ez-gaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdinatsunari buruzko arau uniformeei" buruzko erabakiaren ondorioz, hezkuntza-premia bereziei buruzko UNESCOren (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen) munduko biltzarrak Salamancako Adierazpena aldarrikatu zuen.

Salamancako Adierazpena[13]

*Baietsiz,* Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, 1948ak, dioenez pertsona guztiek dutela hezkuntzarako eskubidea; eta mundu-komunitateak 1990eko Hezkuntzari buruzko Munduko Biltzarrean adierazitako gogoa, beren desberdintasunak edozein izanik ere guztiei eskubide hori bermatzekoa, *berrituz*,

*Gogoratuz* ez-gaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdinatsunari buruzko arau uniformeetan gauzatu ziren Nazio Batuen adierazpenak, estatuei ez-gaitasunen bat duten pertsonen hezkuntza hezkuntza-sistemaren zati izatea bermatzeko gogo berotzekoak.

1. Hezkuntza Premia Bereziei buruzko Munduko Biltzarreko delegatuek, 92 gobernuren eta nazioarteko 25 erakunderen ordezkari gisa, Salamancan 1994ko ekainaren 7a eta 10a bitartean bilduta, idatzi honen bidez guztiontzako hezkuntzarekiko dugun konpromisoa berresten dugu, hezkuntza-premia bereziak dituzten haur, gazte eta heldu guztiei hezkuntza-sistema komunaren barruan irakaskuntza eskaintzeko beharra eta presa onartuz, eta, gainera, Hezkuntza Premia Berezientzako Ekintza Markoa, erakundeentzat eta gobernuentzat gidari izan behar duen izpiritua, xedapenetan eta aholkuetan islatutakoa, duena, babesten dugu.

2.-Honakoa uste eta aldarrikatzen dugu:

- bi sexuetako haur guztiek dutela hezkuntzarako funtsezko eskubidea eta ezagutzen maila onargarri bat lortzeko eta horri eusteko aukera eman behar zaiela.
- haur bakoitzak bere ezaugarri, interes, ikaskuntza-premia eta -gaitasun bereziak dituela.
- hezkuntza-sistemak diseinatzeko eta programak aplikatzeko moduek gogoan izan behar dituztela ezaugarri eta premia desberdin horiek.
- hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonek eskola arruntetarako, haurrarengan zentratutako pedagogia batean integratu behar dituztenetarako, sarbide izan behar dutela.
- orientazio integratzaile hori duten eskola arruntak jarrera diskriminatzaileen aurka borrokatzeko, harrera-komunitateak sortzeko, gizarte integratzaile bat eratzeko eta guztientzako hezkuntza lortzeko ingurunerik eraginkorrenak direla. Gainera, haur gehienei hezkuntza eraginkorra eskaintzen diete eta eraginkortasuna, eta azkenik, hezkuntza-sistema guztiaren kostu-eraginkortasun harremana, areagotzen dute.

[13] Azken txostena. Hezkuntza-premia bereziei buruzko munduko biltzarra: sarbidea eta kalitatea. Salamanca 1994. UNESCO-MEC. Madril 1995.

3.-Gobernu guztiei deitzen diegu eta guztiak gogo berotzen ditugu:

- beren hezkuntza-sistemak hobetzeari politika- eta aurrekontu-lehentasun handiagoa emateko, neska-mutil guztiak barne hartu ahal izateko, beren desberdintasunak eta banatako zailtasunak edozein izanik ere.
- lege-izaeraz edo printzipio-politika gisa hezkuntza integratuaren printzipioa, aurkako pisuzko arrazoirik ez bada behintzat, haur guztiei eskola arruntetan matrikulatzea ahalbidetzen diena, hartzeko.
- demostrazio-proiektuak garatzeko eta eskola integratzaileetan esperientziak dituzten herrialdeekiko trukeak sustatzeko.
- hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren eta helduen plangintzarako, ikuskatzerako eta ebaluaziorako mekanismo deszentralizatuak eta partaidetzazkoak sortzeko.
- hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arreta planifikatzerakoan eta erabakiak hartzeko prozesuan gurasoen, komunitateen eta ez-gaitasunek dituzten pertsonen erakundeen partehartzea sustatzeko eta errazteko.
- identifikazio goiztiarrean, eskuhartze-estrategietan eta lanbide-alderdietan ahalegin handiagoak inbertitzeko.
- aldaketa sistematikoaren testuinguruan irakasleen prestakuntzarako, hasierako nahiz etengabekorako, programak eskola integratzaileetan hezkuntza-premia bereziei arreta eskaintzera bideratuta egotea bermatzeko.

*Hezkuntza-premia berezien araudi berria Euskal Autonomia Erkidegoan*

Garapen normatibo honek guztiak eta nazioarteko pentsamendu-korronteen eta erakundeen ekarrien multzoak aurkeztuko dugun eta dekretu batek, hiru aginduk eta erabaki batek — horiek ondoren gehitu ditugu, horiek laburtzeko koadro batzuen atzetik— osatuko duten araudiaren azken idazketa egiteko balio izan dute.

# ARAUDIA

- 118/1998 DEKRETUA, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.

- AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko.

- AGINDUA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura.

- AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat.

- ERABAKIA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza Sailordetzarena, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena.

**118/1998 DEKRETUA, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.**

Hezkuntzarako eskubidea herritarren eskubide funtsezkoenetako bat da eta herri agintarien betebeharra da ezgaitasunak dituzten pertsonei hezkuntza-erantzun egokia emateko politika bideratzea eta baita jatorrizko ezberdintasunak orekatzera bideratutako neurriak ezartzea ere, hezkuntza-sistemaren barruan.

Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari aitortzen dizkion erabateko eskumenak beteaz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila antolaketako eta plangintzako neurriak gauzatzen aritu da. Horren helburua izan da eskolatze-prozesu osoan edo prozesuaren uneren batean hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek orokorrean ezarri diren hezkuntza-xedeak lortzea, ahalik eta murrizpen gutxieneko ingurunean eta ahalik eta integrazio handienarekin. Neurri horiek 1982az geroztik Euskal Autonomia Erkidegorako garatu den Hezkuntza Bereziko Planaren ingurunean egituratu dira.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak hirugarren artikuluko bosgarren idatzatian adierazten duenez erregimen orokorreko eta erregimen bereziko irakaskuntzak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarrietara egokituko dira.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak indarrean dauden normalizazioaren eta integrazioaren printzipioak hartzen ditu mota guztietako ikastetxeetarako. Honela zehazten da 3.1. artikuluan: “anitza, elebiduna, demokratikoa da, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitatearen bateratzailea”. Eta 10.4. artikuluan agintzen du hezkuntza-premia berezietarako erantzun egokia ziurtatuko duten neurriak hartuko direla.

Ikastetxeetako Partehartzeari, Ebaluazioari eta Gobernuari buruzko 9/1995 Lege Organikoak bigarren xedapen gehigarrian zehazten duenaz, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak honako hauek dira: eskolatze-aldi osoan edo tarte batean lagungarriak eta hezkuntza-arreta bereziak behar dituztenak, urritasun fisikoak, psikikoak edo sentimenekoak dituztelako, portaeran desoreka larriak adierazten dituztelako, edo gizarte edo kultura-egoera kaltetua dutelako.

Haur Hezkuntzako curriculuma ezartzen duen 236/1992 Dekretuak, Lehen Hezkuntzako curriculuma ezartzen duen 237/1992 Dekretuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma ezartzeari buruzko 213/1994 Dekretuak, Lanbide Heziketako irakaskuntzen antolamenduari buruzko 447/1994 Dekretuak eta Batxilergoa eta Lanbide Heziketako irakaskuntzaren ezarpena eta dagozkien tituluei buruzko jarraipideak ezartzen dituen 97/1997 Dekretuak dagoeneko aurreikusten zuten ezarpen-aldian planteatu zitezkeen egoerei erantzuna ematea. Hala ere, badirudi komeni dela ematea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzun egokia emateko printzipioak jasoko dituen arau bat, hezkuntza-sistemako maila eta etapa guztietan.

Ondorioz, ikasle guztien premia bereziei arreta eskaintzeko jarduerak eta aureikusitako baliabideak laguntzeko xedez, eta kontuan hartuta plangintzaren eta antolaketaren ikuspegitik izaera, jatorria eta bilakaera bereizi egin behar direla, eskolatzean zehar ikusten dena kontuan hartuta, dekretu honek honako hauek arautzen ditu: behin-behineko edo behin betiko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-arreta antolatzeko behar direnak eta bitartekoen plangintza. Hezkuntza-premia berezien jatorria izan daiteke ikaslearen hezkuntzako eta eskolako historia, ikasleak berak izan ditzakeen gaitasun handiagoak, ikasleak berak izan ditzakeen ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentimenekoak edo gizarte eta kultura-egoera kaltetua.

Horretarako, lehenengo eta bigarren kapituluetan materia arautzeko printzipio orokorrak biltzen dira. Hirugarren eta laugarren kapituluetan mota guztietako hezkuntza-premia bereziei ezar dakizkien arauak ematen dira, derrigorrezko etapan eta derrigorrezkoaren ondoko etapan. Bosgarren kapituluan orientazio orokorrak jasotzen dira mota ezberdineko premiei erantzuna emateko.

Hori guztia Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoaren 3.5., 36. eta 37. artikuluak garatuz, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 3.1. eta 10.4. artikuluak garatuz eta lehenago aipatu ditugun dekretuekin bat etorriz.

Dekretu hau lantzeko Euskadiko eskola-kontseiluak txostena egin du, eta bai dekretuaren berri derrigor eman behar duten erakundeetako ordezkariek ere.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak aurretiaz, 199...ko ..........ren ...ko bilkuran, aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

## I. KAPITULUA: XEDEA, KONTZEPTUA ETA PRINTZIPIO OROKORRAK

### 1. artikulua. Xedea eta eremua

Dekretu honen xedea da ikasleen hezkuntza-premia bereziei eskolaren eremuan erantzuna ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan.

### 2. artikulua. Hezkuntza-premia berezien kontzeptua

Dekretu honen eraginetarako hezkuntza-premia bereziak izango dituzte eskolatze-aldi osoan edo epealdi batean hainbat lagungarri eta arreta berezi behar dituzten ikasleek, urritasun fisikoak, psikikoak edo sentimenekoak dituztelako, portaeran desoreka larriak adierazten dituztelako, edo gizarte edo kultura-egoera kaltetua dutelako; hezkuntza-premia bereziak izango dituzte, halaber, adimen-gaitasun handiko ikasleek, horiek ere arreta bereziak behar dituzte eta.

3. artikulua. Hezkuntza-premia bereziei erantzuna emateko printzipioak

Eskola-eremuan, hezkuntza-premia berezien erantzunaren printzipioak izango dira normalizazioa eta eskolan integratzea, jatorrizko ezberdintasunak konpentsatzeko heziketa, legezko ordezkarien partehartzea dagozkien erabakietan eta, hala egokituz gero, baita interesatuena ere, eta erakundeen arteko lankidetza.

## II. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

4. artikulua. Antzematea

1. Hezkuntza-premia bereziak antzemateko eta baloratzeko kualifikazio anitzetako adituez osatutako taldeak izango dira. Horien izena talde multiprofesionala da eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 26. artikuluan adierazten diren hezkuntzarako laguntza zerbitzuetan sartuta egongo dira.

2. Hezkuntzako administrazioa saiatuko da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ahalik eta azkarren, txiki-txikitatik, antzematen, baloratzen eta ikasle horiei arreta eskaintzen. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko zerbitzu arduradunen bitartez harremanetan jarri beharko du foru aldundietako Gizarte Ongizateko eta Osasun Saileko zerbitzu arduradunekin.

3. Hezkuntza-premia bereziak eskolatze aurretik antzeman ez badira taldeko tutoreak egindako hasierako ebaluazioa izango da abiapuntua. Horretarako, gainerako irakasleen, hezkuntza bereziko irakaslearen, irakasle aholkulariaren eta orientatzailearen lankidetza izango du. Dagokion talde multiprofesionalak ere aholku-lanak beteko ditu kasu guztietan.

4. Nolanahi ere, talde multiprofesionalak dagokion eskolatze-proposamena egingo du eta ikasleen hezkuntza-premia bereziei dagokienez jarduteko plana ezarriko du, baita lagungarri eta baliabide osagarrien zehaztapena ere, ondoko artikuluetan xedatzen denaren arabera.

5. artikulua. Diagnosia eta ebaluazio psikopedagogikoa

1. Talde multiprofesionalak diagnosia eta ebaluazio psikopedagogikoa egingo ditu, ikastetxeak eskatuta. Diagnosia egiterakoan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen legezko ordezkariek baimena eman behar dute, baita ikasleak berak ere horretarako adina baldin badute.

2. Diagnostiko psikopedagogikoa egiteko norberaren ebaluazioa egin behar da eta kontuan eduki behar da ikaslearen egoera pertsonala eskolaren ingurunean eta familian. Diagnosia izango da eskolaratzeko proposamen zehatza egiteko oinarria.

3. Diagnostikoa egin eta hortik ateratzen den informazioa inizialak eta kode bereziak erabilita adieraziko da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatu dezakeenaren arabera.

4. Ebaluazio psikopedagogikoa da irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten elementu anitzi buruzko informazio garrantzitsua biltzen, aztertzen eta baloratzen dituen prozesua. Horrekin nortasunaren edota ikasketaren garapenean desorekak dituen edo izan ditzakeen ikaslearen hezkuntza-premia bereziak antzematen dira eta erabakiak oinarritu eta zehaztu egiten dira curriculum-proposamenari buruz eta ikasleak gaitasunak garatzeko behar izan ditzaketen laguntza-motei buruz.

5. Ebaluazio psikopedagogikoa curriculumaren ebaluazioan eta ikaslea irakaslearekin, ikasgelako lagunekin, ikastetxean eta familian nola konpontzen den ikusita egingo da.

6. artikulua. Informazioaren xedea eta tratamendua

1. Datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzeko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoaren arabera, ikasleen hezkuntza-premia bereziei buruzko artxibategietan gordeta dagoen informazioa babestuta egon behar du, lanagatik behar duten adituek bakarrik eskuratu ahal izan dezaten, ez beste inork. Nolanahi ere, babesaren eta isilpekotasunaren erantzukizuna ikastetxeko zuzendaritzarena, partehartzearen arduradunena eta jakinaren gainean dauden guztiena izango da.

2. Beren kargua dela eta diagnostikoaren edukia eta ebaluazio psikopedagogikoaren txostena ezagutu beharra duten adituek isiltasuna ziurtatu behar dute. Informazio hori gordetzeko eta zaintzeko erantzukizuna ikaslearen espedientea jasota daukan administrazio-unitatearena izango da.

3. Administraziorako informazioa beharrezko baliabideak emateko izango da eta irakasleentzako informazioa dagokion curriculumaren egokitzapenak egiteko.

4. Informazioa modu ulergarrian emango zaie legezko ordezkariei eta, ahal denean, ikasleari berari, erabilgarria izan dadin ikasleak eta familiak berak hezkuntza-prozesuan partehartze aktiboa izan dezaten.

III. KAPITULUA.
HEZKUNTZA-ARRETA DERRIGORREZKO ETAPETAN

7. artikulua. Matrikulazioa eta eskolatzea

1. Hezkuntza-administrazioak ziurtatuko du hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea diru publikoarekin mantentzen diren ikastetxeetan, ikasle horien behar espezifikoetarako baldintza egokietan, ahalik eta murrizketa gutxien ezartzen dituen ingurunean eta etxetik ahalik eta hurbilen. Ahal denean, behintzat, gela arruntetan eskolatuko dira ikasle guztiak, eta behar-beharrezko denean baino ez ikastetxe arruntetako heziketa bereziko geletan edo gela egonkorretan. Ezinbesteko izan dadinean, heziketa bereziko ikastetxeetan emango zaie heziketa ikasle horiei.

2. Horretarako, hezkuntza-administrazioak ikasle horiek eskolatzeko irizpideak ezarriko ditu Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila eta etapetan. Lehentasuna aitortuko zaie diru publikoarekin mantendutako ikastetxeetan onartuak izateko, premia espezifikoetarako baliabide egokiak baldin badituzte

edo talde multiprofesionalak egindako eta hezkuntza-administrazioak onartutako proposamenean baliabide horiek sartzen badira. Nolanahi ere, banaketa orekatua izango da ikasleen kopurua eta gorabehera bereziak kontuan hartuta.

3. Edozein eratara, hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako dagokion unitateak esleitutako ikastetxea familiak eskatutakoarekin bat ez badator, aurretik entzun egin beharko zaie ikaslearen legezko ordezkariei, dagokion administrazioko organoan aurkeztu daitezkeen erreklamazioak edo errekurtsoak kaltetu gabe.

4. Diru publikoarekin mantentzen diren ikastetxe guztiek nahitaez onartu beharko dituzte hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskolatzeko adierazten dituen irizpideen arabera. Ikaslearentzako ikasketa-proiektuak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin jarduteko bete behar diren arauak ezarriko ditu, dekretu honetan araututakorekin bat etorrita. Horrekin batera, ikastetxean eskolatuta dauden hezkuntza-premia bereziko mota ezberdineko ikasleek behar dituzten neurri bereizgarriak jasoko ditu ikasketa-proiektuak.

5. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea Haur Hezkuntzan legeak etapa horretarako oro har ezartzen dituen adinetan hasi eta amaituko da. Salbuespen gisa, Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak baimendu ahal izango du urtebete gehiagoz egotea behar duten ikasleentzako. Aurretik, ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko talde multiprofesionalak txostena egin beharko du eta beharrezkoa izango da legezko ordezkariak ados egotea eta hezkuntzako ikuskaritzak ontzat ematea.

6. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea Lehen Hezkuntzan legeak etapa horretarako oro har ezartzen dituen adinetan hasi eta amaituko da. Hori dela eta, kontuan eduki beharko da Euskal Herriko Autonomi Elkarterako Haur Hezkuntzako curriculuma ezartzen duen abuztuaren 11ko 237/1992 Dekretuaren 14. atalean ezarritakoa. Salbuespen gisa, Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak baimendu ahal izango du urtebete gehiagoz egotea etapa horretan, Haur Hezkuntzako eskolatzea zabaldu ahal izateaz gain. Aurretik, ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko talde multiprofesionalak txostena egin beharko du eta beharrezkoa izango da legezko ordezkariak ados egotea eta hezkuntzako ikuskaritzak ontzat ematea.

7. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan kontuan izan beharko da etapa horretarako ezarritako arautegi orokorra. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sartuko dira Lehen Hezkuntza bukatu ondoren, hamabi urte betetzen dituzten urte naturalean, dekretu honetan azaldutako salbuespenak salbuespen.

Hori dela eta, ikasle horien hezkuntza-prozesuan kontuan eduki beharko dira Euskal Autonomi Elkarterako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezartzeari buruzko ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuan ezarritakoa.

8. Hezkuntza-premia bereziak ezgaitasun baten ondorioz dituen ikasleak 16 urteak beteak baditu eta irakasle-taldearen ustez Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eskuratzea ezinezkoa baldin badu, laneratzeko gaitasuna emango dion prestakuntza egokitua egitera pasako da. Prestakuntza egokitua hogei urte bete arte luzatu ahal izango da.

8. artikulua. Norbanakoari egokitutako curriculuma

1. Curriculuma Norbanakoari Egokitzea curriculumeko elementuetan (helburuetan, edukietan, ebaluatzeko irizpideetan, metodologian, antolaketan) beharrezko aldaketa guztiak egitea da, ikasle batek eskolaketa osoan modu iragankorrean edo iraunkorrean izan ditzakeen hezkuntza-premia bereziei erantzuteko.

2. Ikastetxeek curriculumaren egokitzapenak proposatu beharko dituzte dekretu honetako 2. atalean adierazten diren hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, baina beti ere egokitzapen horiek ikastetxeko pedagogi autonomia gainditzen dutenean. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartu beharko ditu proposatutako egokitzapenak.

3. Ikasturte bakoitzaren amaieran, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legearen 36.4. artikuluan zehazten dena oinarri hartuta, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bakoitzak lortutako emaitzak ebaluatuko dira, hasierako baloraziotik abiatuta proposatutako helburuen arabera. Ebaluazio horrek jarduteko plana emaitzen arabera aldatzeko aukera emango du.

4. Curriculumaren egokitzapen guztien xedea izango da ikasleak curriculumean ezarritako gaitasun orokorrak eskuratzea, dituen aukeren arabera eta ahalik eta gehien integratuta dagokion taldean. Xede horiek lortzen dituzten ikasleek dagokien titulu akademikoa eskuratuko dute; lortzen ez dituztenek prestakuntza egokitua egin ahal izango dute laneratu ahal izateko kualifikazioa lortzeko.

5. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak zehaztuko du, agindu baten bidez, noren eskumena den curriculumaren egokitzapena eta horiek lantzeko, garatzeko eta ebaluatzeko jardunbidea ezarriko du.

9. artikulua. Baliabide materialen hornidura

1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak diru publikoarekin mantentzen diren ikastetxeetan eskolarizatutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei hornituko die bere aurrekontu-erabilgaitasunen barruan, behar espezifikoei arreta eskaintzeko baliabide eta neurri materialekin.

2. Eskola-bilgune guztietan behar adina ikastetxe egongo da ezgaitasun motoreak direla eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatu ahal izateko, dekretu honetako 7.1. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Eragin horietarako, Hezkuntza Sailak plan bat garatuko du pixkanaka-pixkanaka eraikuntza eta hirigintza-oztopoak ezabatzeko. Horretarako, hitzarmenak izenpetuko ditu, hala egokituz gero, toki-korporazioekin. Nolanahi ere, ikasleei ziurtatuko zaie derrigorrezko etapetan eraikuntza-oztoporik gabeko ikastetxeetan eskolatzea, etxetik ahalik eta hurbilen.

3. Eskola-bilguneko edo, hala egokituz gero, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 26.4. artikuluan adierazten diren jardun-eremu zabalagoko zein murritzagoko ikastetxeetarako laguntza zerbitzuek beharrezko laguntza teknikoa emango diete hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeei. Horretarako,

ikastetxeek ez dauzkaten baliabideak eta hezkuntzako material egokitua jarriko dituzte ikastetxeen esku, premien arabera.

10. artikulua. Giza baliabideak ikastetxe publikoetan

1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ziurtatuko du irakasle aholkulariaren arreta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eta irakasle orientatzailearen arreta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, ikasleen aniztasunari hezkuntza-erantzun egokia emateko. Horretarako, irakasle horien baldintzak eta eginkizunak ezarriko ditu.

2. Hezkuntza bereziko irakasle espezifikoez gain (Pedagogia Terapeutikoko espezializazioa eta Entzumena eta Hizkuntzako espezializazioa) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak behar adina irakasle izango ditu hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko, Hezkuntza Sailak berak ezarritako baldintzekin eta betebeharrekin.

11. artikulua. - Baliabide espezifikoak itunpeko ikastetxeetan.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezkoak diren administrazio-xedapenak garatuko ditu, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta eman ahal izateko baliabide espezifikoen hornidura zehazteko, itunpeko ikastetxeetan.

12. artikulua. Irakasleen prestakuntza

Irakasleak prestatzeko planetan aniztasunaren tratamendurako moduluak, curriculumaren egokitzapenak eta hezkuntza sendotzeko neurriak sartuko dira. Horrekin batera, prestakuntzarako behar adina jarduera sartuko dira hezkuntza-premia bereziei eta hezkuntza-premien talde anitzi erantzuteari dagokienez, irakasleak prestatzeko eskaintzan eta aholkularitzako ekintzetan. Matrikulatzeko lehentasuna izango dute horrelako ikasleei arreta eskaini behar dieten irakasleek.

13. artikulua. Gurasoen eta ikasleen partehartzea

1. Hezkuntza-administrazioak legezko ordezkarien partehartzea sustatuko du eta, hala egokituz gero, ikasleena ere bai, eskolatzeari dagozkion erabakietan eta premia espezifikoei erantzuteari buruzko erabakietan.

2. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko zerbitzuek informazioa eta aholkularitza emango dizkiete interesatuei ikastetxea hautatzeko aukerei dagokienez. Erabakiak hartzeko legezko ordezkariek ikaslearen gizarteko ingurune hurbilari buruzko hasierako ebaluazioko eta hezkuntza-sistemak eskaintzen dituen aukerei buruzko datuak izango dituzte.

3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak familia/eskola programen garapena sustatuko du, komunikazioa, informazio-trukaketa, tekniketan eta laguntza-prozesuetan gaitzea, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten seme-alabak hezitzeko lanetan laguntza errazteko asmoarekin.

4. Hezkuntza-administrazioak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei emandako erantzunerako jarraipen-batzordeen sorrera sustatuko du, arau bidez zehazten den moduan. Horretarako, guraso elkarteen federazioen eta hezkuntzan lan egiten duten erakundeen partehartzea izango du. Batzorde horien xedea izango da eskolatzeko adinean dauden haurren eta gazteen premia berezien erantzunean zerikusia duten gizarteko sektoreen proposamenak biltzea.

14. artikulua. Erakundeen arteko lankidetza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egoki iritzi dituen hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu foru aldundiekin eta toki-korporazioekin, eta bai irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin eta erakundeekin ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzun egokiagoa emateko xedearekin, edozein motatako hezkuntza-premia berezi antzemateko, diagnostikatzeko eta arreta eskaintzeko lankidetzan jardunda.

## IV. KAPITULUA
## DERRIGORREZKOAREN ONDOKO HEZKUNTZA, GOIMAILAKO LANBIDE HEZIKETA, ERREGIMEN BEREZIKO IRAKASKUNTZAK ETA HELDUEN HEZKUNTZA

15. artikulua.Batxilergoan eta Lanbide Heziketan eskolatzea

1. Hezkuntza-premia bereziak izan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza dagokion titulazioarekin amaitu duten ikasleek Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzan matrikulatu ahal izango dute. Beharrezkoa bada premia berezien berri emango dute, curriculumean sartzeko baliabide espezifikoez hornitzeko.

2. Talde arruntetan egongo dira sartuta baina ikastetxeko laguntzako baliabideak erabili ahal izango dituzte, lehendik daudenak nahiz ikasle horien premia berezietarako bereziki jarri direnak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutakoaren arabera.

3. Batxilergoan, hezkuntza sendotzeko neurri sinpleak nahikoa ez direnean, beharrezkoak diren curriculumaren egokitzapenak egingo dituzte, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenaren arabera. Curriculumaren egokitzapen horiek izan daitezke arauzko curriculuma hedatzea eta iraupena bikoiztea. Nolanahi ere, hezkuntza-administrazioak baimendu behar ditu egokitzapenak.

4.- Batxilergoko hainbat gaitan salbuespenak egin ahal izango dira, baina entzumeneko, ikusmeneko edo mugimenezko arazo larriak dituzten ikasleentzat bakar-bakarrik. Onartzeko prozedura araudi batez zehaztuko da.

5. Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan garatu ahal izango dira curriculumaren egokitzapenak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat. Hala ere, kontuan izan behar da egokitzapen esanguratsuak ezin dituela, inola ere, oinarrizko lanbide-gaitasunekin zerikusia duten helburuak kendu, tituluaren xedea den gaitasun orokorra lortzeko. Curriculumaren egokitzapen horiek hezkuntza-administrazioak baimendu beharko ditu beti ere, eta derrigorrezko curriculuma zatitu ahal izango dute iraupena bikoituz.

6.- Izaera osoko heziketa-zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziko ikasleek heziketa-zikloko lanbide-moduluren bat edo batzuk ikasi ahal izango dituzte, modulu horiekin zerikusia duten hainbat lanbide-gaitasun egiaztatu ahal izateko.

7.- Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan Hezkuntza, izaera iraunkorreko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen onarpena horretarako araudi zehatz baten bitartez arautuko da, eta lehentasuna izango dute haien premietarako baliabide espezifikoak dituzten ikastetxeetan.

16. artikulua. Erregimen bereziko irakaskuntzetan sartzea

1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek erregimen bereziko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan sartu ahal izango dute, haietako bakoitzarentzat beharrezkoak diren baldintzak aldez aurretik bete eta gero. Beharrezkoa bada premia berezien berri emango dute, curriculumean sartzeko baliabide espezifikoak jarri ahal izateko.

2. Izaera iraunkorreko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen onarpena irakaskuntza horietako bakoitzerako araudi zehatz batek arautuko du, eta lehentasuna izango dute haien premietarako baliabide espezifikoak dituzten ikastetxeetan.

3. Talde arruntetan egongo dira sartuta baina ikastetxeko laguntzako baliabideak erabili ahal izango dituzte, lehendik daudenak nahiz ikasle horien premia berezietarako bereziki jarri direnak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutakoaren arabera.

17. artikulua. Helduentzako Hezkuntza ikastetxeetan eskolatzea

1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsona helduak Helduentzako Hezkuntza ikastetxeetan eskolaratu ahal izango dira, heziketa-aldiren bat bertan ikasteko eta haien hezkuntza-helburuak erdiesteko. Curriculumaren egokitzapenak egin ahal izango dira.

2. Lankidetza-hitzarmenak ezarri ahal izango dira haien ordezkari diren erakundeekin, bai baliabideen planifikazio egokia errazteko bai irakasle zein ikasleentzako laguntza beharrezkoez hornitzeko.

## V. KAPITULUA
## MOTA ANITZEKO HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIEI ERANTZUTEA

18. artikulua. Buru-urritasunen edo garapenaren nahaste orokorren ondorioz hezkuntza-premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleak

1. Buru-urritasunen edo garapenaren nahaste orokorren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei ikastetxe eta ikasgela arruntetan emango zaie hezkuntza-erantzuna, ahal dela behintzat. Horretarako, erabilgarri dauden bitartekoez eta baliabideez baliatuko dira eta beharrezkoak diren curriculumaren egokitzapenak egingo dira.

2. Hala ere, ezgaitasun psikiko larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleek ikasgela egonkorretan jaso ahal izango dute arreta, ikastetxean bertan, etengabeko laguntza egokitua eta curriculum arruntarekin bateragarria ez den curriculum egokitua beharrezkoak baldin

badituzte. Ikasgela egonkorrek premia bereziei erantzun ahal izateko baliabide materialak eta giza baliabideak izango dituzte. Dena dela, horrek ez du kaltetuko ikastetxeko dinamika orokorrean sartzeko aukera.

3. Hezkuntza-premia bereziak buru-urritasunen edo garapenaren nahaste orokorren ondorioz dituzten ikasleak eskolatzeko Hezkuntza Bereziko ikastetxe espezifikoak bakar-bakarrik egoera larrietan proposatuko dira, talde multiprofesionalek egindako ebaluazioaren eta orientazioaren arabera; hau da, ikaslearen hezkuntza-premiak giza laguntza eta laguntza material espezializatuak eta trinkoak behar dituenean, curriculum arruntarekin bateragarriak ez diren curriculum-egokitzapenez gain, eta horrek ez duenean murriztapen gutxiagoko ingurune baterako aukerarik ematen.

19. artikulua. Gorreriaren eta entzumen-urritasunaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

1. Derrigorrezko eskolatzea amaitzean gorreriaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek hizkuntza biak erabiltzeko gaitasuna izan dezaten (zeinuena eta ahozkoa) eta, horrenbestez gizartean partehartze aktiboa, hezkuntza-administrazioak lagundu egingo du zeinuen hizkuntzak aitorpena eta erabilera izan ditzan, gorrek ikasten duten hizkuntza naturala denez; baita komunikatzeko ahozko eta ikusmeneko sistemen erabilera ere.

2. Hezkuntza-administrazioak ikasleen familiei eta legezko ordezkariei informazioa eta aholkularitza emango dizkie, hezkuntzako laguntza-zerbitzuen bitartez, ahozko lehenengo hizkuntza euskara eta gaztelaniaren artean hautatu ahal izateko aukerei buruz.

3. Hezkuntzako administrazioak ikastetxe arruntetan ikasle gorrentzako ikasgelen sorrera sustatuko du hezkuntzako etapa guztietan eta beharrezko baliabideak emango ditu ikasgela horietarako, besteak beste zeinuen hizkuntza erabiltzen duten irakasleak, eta ahozko hizkuntza irakasteko eta komunikaziorako entzumen-oztopoak ezabatzeko logopedak.

20. artikulua. Ikusmen-urritasunaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

1. Hezkuntza-premia bereziak ikusmen-urritasunaren ondorioz dituzten ikasleei ikastetxe arruntetan emango zaie hezkuntza-erantzuna. Horretarako, dagokion laguntza-zerbitzuen aholkularitza izango dute.

2. Laguntza-zerbitzuak koordinazioan arituko dira diagnostiko eta ebaluazio psikopedagogikoa egiteko, jarduteko plana ezartzeko eta curriculumaren beharrezko egokitzapenak planteatzeko. Ikastetxeei curriculumean sartzeko material egokituak emango dizkiete eta baita ikasle horientzako beharrezkoa den ikasmateriala ere.

21. artikulua. Mugimenezko ezgaitasunaren eta garun-paralisiaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

1. Dekretu honetako 9. artikuluan aurreikusitako eraikuntza eta hirigintza-oztopoak ezabatzeaz gain, hezkuntzako administrazioak curriculum arruntean sartzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak emango dizkie mugimenezko ezgaitasunaren eta garun-paralisiaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei.

2. Mugimenezko ezgaitasun oso larriak dituztelako curriculum arruntean sartzea oso zaila duten ikasleen kasuan, administrazioak zerbitzu espezifikoez hornitutako ikasgelak sortuko ditu ikastetxe batzuetan, ikasle horiek hezkuntza-arreta egokia izan dezaten.

22. artikulua. Gaitasun handiagoen edo aparteko adimenaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

1. Gaitasun handia, trebetasun edo talentu espezifikoren bat edo aparteko adimena duten ikasleei emango zaien hezkuntza-arreta hezkuntzako etapa guztietan ezarritako helburu orokorretako gaikuntza orekatura bideratuko da bereziki, 1996ko apirilaren 24ko Ministro-aginduak xedatutakoaren arabera. Hain zuzen ere, Ministro-agindu horrek arautzen ditu aparteko adimena izatearen ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen derrigorrezko eskolatze-aldiaren iraupena salbuespen gisa malgutzeko baldintzak eta jardunbidea.

23. artikulua. Gizarte edo kultura-egoera kaltetuaren ondorioz behin-behineko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

1. Gizarte edo kultura-egoera kaltetuaren ondorioz behin-behineko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei ikastetxe arruntetan emango zaie hezkuntza-erantzuna, ikaslearen ezaugarrietara egokitutako hezkuntza-proiektuaren, ikasketa-proiektuaren eta ikasgelaren programazioaren bitartez. Orokorrean ezarritako neurriak nahikoak ez badira ikasleren batentzat, hezkuntza sendotzeko neurriak hartuko dira eta curriculumaren behin-behineko egokitzapenak egin ahal izango dira.

2. Hezkuntza-administrazioa bereziki arduratuko da ingurune kaltetuetan dauden ikastetxeak ez daitezen ingurune berezitu bihurtu, integrazioaren eta normalizazioaren printzipioaren aurka. Horretarako, ikasgelako programazioan eta taldeen antolaketan malgutasun-neurriak erabiltzeko aukera emateaz gain, ikastetxe horietako irakasleek prestakuntza eta kualifikazio espezifikoa izan dezaten saiatuko da.

3. Hezkuntza-administrazioak eskolatze-programa osagarriak ezarri ahal izango ditu salbuespenezko egoerei erantzuna emateko. Hezkuntza-administrazioak berak zuzenean ezar ditzake programa horiek edo baita gizartean eta hezkuntzan parte hartzen duten erakundeekin eta entitateekin hitzarmenduta. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak aldi baterako hartu ahal izango dituzte programa horiek, hezkuntzako laguntza-zerbitzuen proposamenaren arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako esparru orokorrean hartu diren neurriak nahikoa izan ez badira.

24. artikulua. Eskola-moldagabezia larriaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

1.-Eskola-moldagabezia larriaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei ikasgela eta ikastetxe arruntean eman behar zaie hezkuntza-erantzuna, ahal dela behintzat. Horretarako, egoki iritzi diren neurriak hartuko dira curriculuma egokitzeko, hezkuntza sendotzeko eta norberari orientabidea emateko.

2.-Gizarte eta komunitate-zerbitzuekin koordinatuko dira ikasle horientzako hezkuntza-erantzunak, haurren eta gazteen buru-osasunerako zerbitzuak barne.

3.-Neurri arruntak agortu ondoren ezarri ahal izango dira, salbuespen gisa eta behin-behinerako, eskolatzeko programa osagarriak, ikasleei jarrera positiboak garatzen laguntzeko hezkuntza-prozesurako, taldeko lagunenganako, irakasleenganako eta gizarte-ingurunerako, norberaren eta gizartearen egokitzapena lortzeko eta, ahal den neurrian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortu ahal izateko.

25. artikulua. Ospitalizazioaren eta gaixotasun luzeen ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

Derrigorrezko eskolatze-adinean izandako ospitalizazioaren eta gaixotasun luzeen ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, medikuak aginduta egunero ikastetxera joan ezin dutenean, ospitalean emango zaie hezkuntza-erantzuna, horretarako sortutako eskola-unitateen bitartez edo etxean bertan eskainitako laguntzaren eta jarraipenaren bitartez, hala erabakitzen bada.

26. artikulua. Ikaskuntza-maila motelen eta ikaskuntzako oztopo garrantzitsuen ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

Ikaskuntza-maila motelen eta ikaskuntzako oztopo garrantzitsuen ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei ikasgela arruntetan emango zaie hezkuntza-erantzuna, oinarrizko ikaskuntzetan hezkuntza sendotzeko neurriak ezarrita, edo gorabeherek ezinbestekotzat jotzen badute, hezkuntzari laguntzeko zehazten diren inguruneetan.

Partehartzearen aurretik ebaluazio psikopedagogikoa egingo da eta hor sartuko dira, besteak beste, curriculumaren ebaluazioa eta ikaslearen gaitasunen azterketa, eta baita ikasle horiei erantzuteko abiaraztea proposatzen den hezkuntzari laguntzeko ekintzei dagokien norbanakoari egokitutako curriculuma.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legearen eremuan diru publikoarekin mantentzen ez diren eta hezkuntza-premia bereziko ikasleak eskolatuta dituzten ikastetxeek eskola-normalizazioaren eta integrazioaren printzipioak hartuko dituzte aintzat, lege horretako 36. eta 37. artikuluetan xedatzen denaren esparruan. Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 26. artikuluan adierazten diren hezkuntzarako laguntza zerbitzuen aholkularitza eta lankidetza eduki ahal izango dituzte eta beharrezko curriculumaren egokitzapenak egin edo proposatuko dituzte, kasu bakoitzean dagokiona, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenaren arabera, dekretu honek dioena beteaz eta Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistema anitzetako curriculumak onartzen dituzten dekretuek diotena beteaz.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Bereziko irakaskuntzak arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1982ko irailaren 2ko Agindua eta Haur eta Lehen Hezkuntzetako curriculumaren egokitzapenak arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1993ko maiatzaren 5eko Agindua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak eskumena du beharrezkoak diren xedapenak emateko dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko.

Bigarrena. Dekretu hau EHAAn argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko ekainaren 23an

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

## Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen erantzunari buruzko DEKRETUA

### Hezkuntza-premia berezien kontzeptua

**Eskolatzeko aldi batean zehar edo eskolatze osoan zehar laguntza jakin batzuk eta hezkuntza-arreta bereziak behar dituzten ikasleenak dira.**

**Arrazoiak**

- Ez-gaitasun fisikoak eta psikikoak eta sentimenen ingurukoak izatea
- Jokabide-nahaste larriak adieraztea
- Aldekoak ez diren kultur eta gizarte-egoeretan egotea
- Goi-mailako gaitasun intelektualei lotutako baldintza pertsonalak.

### Hezkuntza-erantzunaren printzipioak

- Eskolako normalizazioa eta integrazioa
- Jatorrizko desberdintasunen hezkuntza-konpentsazioa
- Legezko ordezkariek, eta hala badagokio, interesdunek berek parte hartzea beregan eragiten duten erabakiak hartzerakoan
- Erakundearteko lankidetza

| HAUTEMATEA | DIAGNOSTIKOA | EBALUAZIO PSIKO-PEDAGOGIKOA |
|---|---|---|
| • TMPak egingo du.<br>• Gizarte- eta osasun-zerbitzuekiko komunikazioa<br>• Eskolatze-proposamena | • TMPak egingo du.<br>• Legezko ordezkarien baimena behar da<br>• Banakako ebaluazio eta ingurunearen ebaluaziotik abiatutakoa.<br>• Kodeen bidez adierazten da. | • Informazioa jasotzea, aztertzea eta baloratzea<br>• Hezkuntza-premia berezia identifikatzea.<br>• Hezkuntza-erantzuna proposatzea.<br>• Curriculumaren eta testuinguruaren ebaluazioan oinarritzen da. |

# HEZKUNTZA-ARRETA HAUR HEZKUNTZAN ETA DERRIGORREZKO ETAPETAN

| Matrikulazioa eta eskolatzea | Ezaugarriak | |
|---|---|---|
| **Ahalik eta muga gutxien ezarriko dituen ingurunean** eskolatzea<br>• Ahal den heinean unitate arrunten bidez.<br>• Beharrezkoa denean bakarrik, Hezkuntza Bereziko unitateen edo ikastetxe arruntetako gela egonkorren bidez.<br>• Ezinbestekoa den kasuetan Hezkuntza Bereziko zentroen bidez. | **Haur Hezkuntza** | Ikasturte bat gehiago bertan emateko aukera (eskolatzearen hasiera atzeratzea) |
| Bere hezkuntza-premietarako baliabiderik egokienak dituzten ikastetxe arruntetan **onartua izateko lehentasunezko eskubidea**<br>Familiak **eskatutakoa ez den ikastetxe bat esleitzeko**, aurretik ikaslearen legezko ordezkariei entzungo zaie. | **Lehen Hezkuntza** | Etapa honetan ikasturte bat gehiago egiteko aukera (gehienez ere bi ikasturte gehiago egin ahal izango dituzte Haur eta Lehen Hezkuntzaren artean) |
| Fondo publikoekin laguntzaz diharduten ikastetxe guztiek hezkuntza-premia bereziak dituzten **ikasleak onartzeko betebeharra** izango dute, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezartzen dituen eskolatze-irizpideen arabera. | **DBH** | Titulaziorik lortuko ez duten hezkuntza-premia bereziko ikasleek 16 urterekin lan-munduan sartzeko gaituko dituen Egokitutako Prestakuntzarako sarbidea izango dute. |

## Curriculum-egokitzapen indibidualen kontzeptua

**Ikasle batek eskolatzearen aldi batean edo eskolatze osoan zehar izan ditzakeen hezkuntza-premia bereziei erantzuteko curriculumaren elementuetan (helburu, eduki, ebaluaziorako irizpide, metodologia eta antolamenduan) egiten diren aldaketak dira.**

## DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDOKOA, GOI-MAILAKO LANBIDE-HEZIKETA, ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZA ETA HELDUEN HEZKUNTZA

| Etapa | Ezaugarriak |
|---|---|
| ***BATXILERGOA*** | • CEI baten bidez maila bakoitza bi urtetan banatzeko aukera.<br>• Jakintzagairen baten zatiren baten edo osoaren salbuespena izateko aukera. |
| ***HEZIKETA-ZIKLOAK*** | • Moduluak denbora bikoitzean banatzeko aukera.<br>• Heziketa-ziklo bateko modulu bakarren bat bakarrik egiteko aukera.<br>• Ez da salbuespenik. |
| ***ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZA*** | • Sarbiderako baldintzak betetzea.<br>• Curriculumerako sarbidea izateko berariazko baliabideak eskura izatea. |
| ***HELDUEN HEZKUNTZA*** | • Hezkuntza-premia bereziko ikasleak eskolatzeko aukera.<br>• Ez-gaitasunen bat dutenen taldeei laguntzeko entitateekin hitzarmenak egiteko aukera. |

# Hezkuntza-premie berezien mota desberdinen erantzuna

**Buruko atzerapenetik edo/eta nahastetik eratorritako hezkuntza-premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleak**

- Ahal den heinean unitate arrunten bidez eskolatuko da.
- Beharrezkoa denean bakarrik, banakako laguntza eskatzen duelako edo arruntarekin bateragarria ez den curriculum egokitua duelako, hezkuntza-unitate berezien edo gela egonkorren bidez eskolatuko da.
- TMPak hezkuntza-zentro berezietan eskolatzea arruntarekin bateragarriak ez diren curriculumak behar direnean eta giza laguntza eta laguntza material intentsiboak behar direnean bakarrik proposatuko du.

**Gortasunetik eta entzumen-urritasunetik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak**

- Gorren jabekuntza-hizkuntza natural gisa zeinuen bidezko hizkuntza onartzea eta erabiltzea erraztuko da, baita komunikaziorako ahozko sistemak eta sistema bisualak erabiltzea ere.
- Ahozko lehen hizkuntza gisa euskara edo gaztelania aukeratzeari buruzko informazioa eta aholkularitza eskainiko zaie gurasoei.
- Ikastetxe arruntetan beharrezko baliabideak (zeinuen hizkuntza erabiltzen duten irakasleak, ahozko errehabilitaziorako logopedak) dituzten gelak sortuko dira eta komunikaziorako entzumen-oztopoak kenduko dira.

**Ikusmen-urritasunetik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak**

- Ikastetxe arruntetan eskolatuko dira dagozkien laguntza-zerbitzuen aholkularitzarekin.
- Laguntza zerbitzuak honakoetarako koordinatuko dira:
  - diagnostiko eta ebaluazio psikopedagogikoa egiteko,
  - jarduketa-plana ezartzeko
  - beharrezko curriculumaren egokitzapenak planteatzeko,
  - ikasle horientzako curriculumerako sarbiderako materialen eta material didaktikoen egokitzapenak ikastetxeei eskuratzeko.

**Mugimenaren ez-gaitasunetik eta garunaren paralisitik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.**

- Eraikuntza- eta urbanizazio-oztopoak kentzeaz gain, curriculum arrunterako sarbidea errazteko beharrezkoak diren bitarteko teknikoak eta giza baliabideak eskainiko dira.
- Mugimenaren ez-gaitasun larriak dituzten ikasleen, curriculum arrunterako sarbiderako zailtasun handia dutenen, kasuan, ikastetxe jakin batzuetan hezkuntza-arreta egokia eskaintzeko berariazko zerbitzuak izango dituzten gelak sortuko dira.

**Goi-mailako gaitasun intelektualaren edo aparteko talentuaren baldintzekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.**

- Gaitasun guztien garapen orekatua bideratuko da.
- Derrizgorrezko eskolatzearen aldia salbuespen gisa malgutzeko aukera.

**Aldekoa ez den kultur eta gizarte-egoerak eragindako aldi baterako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.**

- Ikasle horiei ikastetxe arruntetan erantzungo zaie, heziketa-proiektuen, curriculum-proiektuen eta beren ezaugarrietara egokitutako gelako programazioen bidez.
- Hezkuntza indartzeko neurriak. Aldi baterako curriculum-egokitzapenak egiteko aukera izango da.
- Gelako programazioetako eta taldeko antolamenduetako malgutze-neurriak. Ikastetxe horietako irakasleek berariazko prestakuntza- eta koalifikazio-baldintzak bete ditzaten ahaleginduko gara.
- Eskolatze osagarriaren programak, egoera berezien erantzun gisa.

**Eskola-moldagabezia larriko egoeretatik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.**

- Gela eta ikastetxe arruntaren testuinguruan eskolatuko dira curriculuma egokitzeko neurrien, hezkuntza-indartzearen eta tutoretzako eta orientabide pertsonalerako ekintzen bidez.
- Izaera soziokomunitarioa duten zerbitzuekin (haurrentzako eta gazteentzako buruko osasunaren zerbitzuak barne) koordinatuko da erantzuna.
- Eskolatze osagarriaren programak, egoera berezien erantzun gisa.

**Ospitaleratze eta gaixoaldi luzeetatik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.**

- Erantzuna ospitalearen testuinguruan gauzatuko da, horretarako sortutako eskola-unitateen bidez edo etxeko jarraipenaren eta laguntzaren bidez, egoki irizten denean.

**Ikaskuntza-maila mantsoetatik eta ikaskuntza-zailtasun garrantzitsuetatik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.**

- Erantzuna gela arruntaren testuinguruan garatuko da, oinarrizko ikaskuntzetan hezkuntza indartzeko eskuhartzeak eginez.
- Egoeraren arabera ezinbestekoa bada, ikaskuntzan laguntzeko testuinguru gisa definitutakoetan gauzatuko da.
- Eskuhartzeen aurretik ebaluazio psikopedagogikoa egingo da.

**AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko.**

Ikasle mota guztiak onartzen dituen eskola sortzearren, Beharrizan Bereziak Dituzten Ikasleen Heziketa arautzen duen ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak bi hastapen orokor ezarri ditu: bata, euskal sistemako ikasle bereziak unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-maila eta -ziklo guztietan sar daitezen lortzea, jatorrizko heziketa-hutsuneak betez; bestea, ikasle bereziak diru publikoa jasotzen duten ikastetxeetan sartzeko aukerak bermatzea, haien beharrizanei erantzun egokiak emanez, ahalik eta inguru irekienean eta haien etxeetatik ahalik eta hurbilen dauden ikastetxeetan.

Ikastetxerik egokiena ohikoa izaten da. Izan ere, baliabide egokiez hornitzekotan, horixe da ikasle bereziarentzako ingururik irekiena eta integratzeko modurik onena. Beraz, bertan eskolatuko da, beste ikasle guztiak bezala. Ikastetxe eta gela bereziak benetan ezinbestekoak direnean baino ez dira erabiliko.

Aipatutako dekretuaren 7. atalak ikasle bereziak eskolatzeko irizpide nagusiak ezarri ditu. Ikasle bereziak dirulaguntza publikoak dituzten ikastetxeetan sartzeko aukerak bermatzeaz gain, beharrizan bereziak betetzeko baliabideak dituzten ikastetxeetan sartzeko lehentasuna ikasle horiek dutela dio eta, beraz, ikastetxeek halako ikasleak onartu behar dituzte, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako arauei jarraituz.

Beharrizan mota bakoitzari erantzuteko, 118/1998 Dekretuak egokiena ohiko ikastetxe eta geletan eskolatzea dela dio, aurreko hastapen nagusiei jarraituz. Ikastetxe horietako heziketa bereziko gelak edo gela egonkorrak behar-beharrezkoak direnean baino ez dira erabiliko. Azkenik, beste aukerarik ez dagoenean, ikaslea ikastetxe berezi batean eskolatuko da.

Hori guztia dela eta, ikasleak maila guztietan eskolatzearren eta beharrizan bereziei erantzutearren, bai ohiko ikastetxeetako ohiko geletan eta gela berezietan, bai ikastetxe berezietan, honakoa

**ERABAKI DUT:**

## I. ATALBURUA
## ARAU OROKORRAK

### 1. atala.- Asmoa eta eremua

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko arauak ematen ditu agindu honek, eta diru publikoa jasotzen duten ikastetxeei ikasle horiek behar dituzten baliabideak emateko, hezkuntza-sistemako maila guztiak barne.

### 2. atala.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpide nagusiak.

1.- Ikasle berezi horiek onartzerakoan, diru publikoa jasotzen duten ikastetxeek dagozkien prozedurari, egutegiari eta baldintzei jarraituko diete, agindu honetako salbuespenekin.

2.- Ikasle mota guztiak onartzen dituen eskola sortzearren Beharrizan Bereziak Dituzten Ikasleen Heziketa arautzen duen 1998ko ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuari jarraituz, beharrizan bereziak dituzten ikasleek lehentasuna izango dute berentzako baliabide egokiak dituzten ikastetxeetan sartzeko, dagokien talde multiprofesionalaren eskolatze-proposamenaren arabera.

3.- Agindu honek malgutasuna ezartzen duenez gero, hezkuntza-sistemako mailetan hasteko adinak eta maila horien iraupena aldatu ahal izango dira.

4.- Ikasle horiek ohiko ikastetxeetan eskolatuko dira, bertako pertsona-baliabideak eta baliabide materialak ondo irakasteko nahikoak baldin badira, agindu honetako 5. eta 6. atalak kaltetu gabe.

5.- Ikasle bereziak eskolatzerakoan erabakitzen den guztia berraztertu ahal izango da beti, baita aldatu, irakasleen etengabeko ebaluazio sistematikoari jarraituz eta talde multiprofesionalaren aldiroko txosten psikopedagogikoak ikusita. Edozein aldaketa egin aurretik, ikaslearen legezko ordezkariei jakinarazi beharko zaie, eta horien iritzia kontuan hartu beharko da, edo ikaslearena, iritzia emateko behar den adina badu.

## II. ATALBURUA
## IKASLE BEREZIAK OHIKO IKASTETXEETAN ESKOLATZEA

### HAUR HEZKUNTZA

**3. atala.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleak haur hezkuntzan.**

1.- Haur bereziek hazi eta garatzeko dituzten oztopoak ahal den neurrian deuseztea da haur hezkuntzaren helburua. Bertan familiak parte hartuko du, ahalik eta modurik eraginkorrenean eta haurra inguru normalizatuetan egongo da, bere etxea barne.

2.- Haurra ohiko ikastetxe batean eskolatuko da, bertako pertsona-baliabideak eta baliabide materialak ondo irakasteko nahikoak baldin badira. Salbuespenez, eta ezinbestekoa denean baino ez, ikastetxe berezi batean eskolatu ahal izango da, talde multiprofesionalek kasuaren txostena egin eta gero.

3.- Hezkuntza Saileko lurralde ordezkaritzek beharrizan bereziak dituzten ikasle batzuk haur hezkuntzako ikastetxe bakar batean eskolatzea proposatu ahal izango dute, guztiek ekipamendu berezia behar badute, edo irakasle gutxik duen espezializazioa beharrezkoa bazaie.

**4. atala.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzea.**

1.- Haur hezkuntzako helburuak betetzeko, etapa honetan eskolatzeko lehentasuna ikasle bereziek izango dute. Kasu bakoitzak eskatutako baliabide guztiak eskuratzea egongo da, bai maila pertsonalean bai materialean, eskolatzea beti posible izan dadin, adin horietako haurrentzako ohiko baliabideak nahikoak baldin ez badira.

2.- Beharrizan bereziak ahalik eta txikiagotan aurkitu eta horrelakoak dituzten ikasleak behar bezala eskolatzeko, Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzak koordinatuko ditu horrelako ikasleez arduratzen diren foru-erakunde edo beste lurralde-erakundeekiko harremanak.

3.- Izenemate-prozesuan, talde multiprofesional egokiek ikasle bereziak eskolatzeko proposamena egingo dute. Proposamena ebaluazio psikopedagogikoan oinarrituko da, baita ikastetxeek beharrizan mota bakoitza tratatzeko duten gaitasunean, beren baliabide pertsonal, material eta teknikoak ikusita.

4.- Beharrizan bereziak dituzten haurrak haur hezkuntzako lehen mailan eskolatzen dituzten ikastetxeek aholkularitza behar badute, talde multiprofesionalaren Lehen Hezkuntzako Programako teknikariari eskatu ahal izango diote (ikus agindu honetako 47. atala).

**5. atala.- Haur hezkuntzan ohi baino urtebete gehiago geratzea.**

1.- Ebaluazioaren arabera gomendagarria bada, ikastetxeko zuzendaritzak eskatu ahal izango du ikaslea haur hezkuntzako bigarren zikloan beste urte batez geratzea. Ikasle horren lehen mailako hezkuntza urtebete geroago hasiko da, beraz.

2.- Ikasturte gehigarri hori eskatzeko bidea hau da: ikastetxeko zuzendariak egingo du eskabidea, ikaslearen legezko ordezkariak harekin ados baldin badaude. Eskabidea Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzak jasoko du eta dagokion talde multiprofesionalak bere txostena egin eta adieraziko du, eta ikasturte berrian landu beharko diren eremuak zehaztuko ditu. Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren oniritzia beharrezkoa izango da. Lurralde Burutzak Pedagogia Berrikuntzako Zuzendaritzara bidaliko du eskabidea, esandako txostenarekin batera, eta azken horrek dagokion erabakia hartuko du, eta gero ikastetxeari jakinaraziko dio.

## DERRIGORREZKO LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAK

**6. atala.- Derrigorrezko hezkuntzako etapen hasiera.**

Derrigorrezko hezkuntzako etapa bietan, beharrizan berezi eta aldaezinak dituzten ikasleak legeak orokorki esandako adinetan hasiko dira eskolan, aurreko atala eta ondorengo malgutze-irizpideak kaltetu gabe.

**7. atala.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleak Lehen Hezkuntzan ohi baino denbora luzeagoan geratzea.**

1.- Ebaluazioa ikusita, beharrizan bereziak dituzten ikasleak gehienez ohi baino bi urte gehiagotan geratu ahal izango dira Lehen Hezkuntzan. Haur hezkuntzan ere urte gehigarri batez geratu bada, bi urte horien barruan kontatuko da. Nolanahi ere, ikasleak lehen hezkuntzan eskolatzerakoan, horien adina, garapena eta gizarteratze-maila kontuan izango dira.

2.- Lehen Hezkuntzan jarraitzeko eskabidea egiteko prozedura hau izango da: ikastetxeko zuzendariak egingo du eskabidea, ikaslearen legezko ordezkariak harekin ados baldin badaude. Eskabidea Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzak jasoko du eta dagokion talde multiprofesionalak bere txostena egin eta adieraziko du, eta ikasturte berrian landu beharko diren eremuak zehaztuko ditu. Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren oniritzia beharrezkoa izango da. Lurralde Burutzak Pedagogia Berrikuntzako Zuzendaritzara bidaliko du eskabidea, esandako txostenarekin batera, eta azken horrek dagokion erabakia hartuko du, eta gero ikastetxeari jakinaraziko dio.

**8. atala.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hastea.**

1.- Elbarritasun bat dela eta beharrizan bereziak dituzten ikasleei ez zaie aplikatuko ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuaren 17.2 ataleko xedapena, lehen zikloaren bukaeran urtebete gehiagoz geratzeari buruzkoa. Bi ikasturteetatik edozeinetan geratu ahal izango dira.

2.- Oro har, beharrizan bereziak dituen ikaslea derrigorrezko denboran zehar ohiko geletan egongo da, behar dituen baliabideekin. Baina behar aldaezinek hala eskatzen badute, ikasketa batzuk unitate berezi batean egingo ditu, bere hezkuntza behar bezala izateko. Nolanahi ere, ikasle horiek ahalik eta gauza gehienak beren ohiko taldearekin egingo dituzte.

3.- Ikasleak laguntza-gelan ematen duen denboraren arabera, ikastetxeko zuzendariak aukeratu beharko du haren tutorea, ohiko taldearena ala laguntza-gelako irakaslea izango dena.

**9. atala.- Lanean hasteko prestakuntza egokitua norentzakoa den.**

Elbarritasun bat dela eta beharrizan bereziak dituen ikasle batek 16 urte bete baditu eta, irakasleen ustez, ezin badu Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren tituloa eskuratu, agindu honetako epe-malgutasun eta kurrikulum-egokitzapenak aplikatuta ere, ikasle horrentzat posiblea izango da agindu honetako hirugarren ataleko prestakuntza egokituan hastea, lan-munduan sartzeko prestatzeko.

**DERRIGORREZKOAREN ONDOKO BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA**

**10. atala.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleek Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan izena ematea.**

1.- Beharrizan bereziak izanda derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu eta dagokien tituloa eskuratu duten ikasleek derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan izena emango dute, berezitasunik gabe. Beharrezkoa bada, beren beharrizan bereziak adieraziko dituzte, ikasteko baliabide bereziak eskuratzeko.

2.- Ikasle horiek besteak bezala eskolatuko dira, bakoitzaren kurrikuluma egokitzeko, azterketak egiteko laguntzak eta eskolako lanak egiteko arauak errespetatuz. Ohiko klase batean ikasiko dute, baina ikastetxeko laguntza-baliabideak eskuratu ahal izango ditu, bai aurretik bertan zeudenak, bai ikasle horrentzat berarentzat sortu direnak.

**11. atala.- Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako eskolatze-epea luzatzea.**

1.- Batxilergoa osatzen duten bi ikasturteak ikasle eskolatu moduan egiteko, horien kurrikulumeko gaiak blokeetan banatu ahal izango dira. Hori eginez gero, etapan geratzeko epea bi urte gehiagotan luzatu ahal izango da. Luzatzeko aukera derrigorrezkoaren ondoko etaparen hasieran eskatu ahal izango da, baita hori osatzen duten edozein ikasturteren hasieran.

2.- Erdi edo goi mailako berariazko lanbide heziketari dagokionez, elbarritasunen bat dela eta beharrizan bereziak dituzten ikasleen kasuan, ziklo bateko moduloak egiteko eta dagozkien azterketak egiteko epea ohi baino bi aldiz luzeagoa izan ahal izango da.

3.- Era berean, posible izango da ikaslea ohiko erdi edo goi mailako berariazko lanbide heziketan eskolatzea, bere prestakuntzarako egokitzat jotzen diren moduloak egin ditzan. Aprobetxamenduaren arabera eta norbanako kurrikuluma egokitzeko agirietako ebaluazio--irizpideei jarraituz neurtuko dira emaitzak.

4.- Ikasleak lanbide heziketa ikasten badu, ikastetxeko zuzendariak egingo du eskolatze-denbora luzatzeko edo eskolatze partziala egiteko eskabidea eta Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzara bidaliko du. Horrek, kasuari dagozkion txosten guztiak jasoz gero, Pedagogia Berrikuntzarako Zuzendaritzara bidaliko du, ikaslea batxilergoa egiten ari bada. Prestakuntza-zikloak egiten ari bada, Lanbide Heziketako Zuzendaritzara. Eskabidearekin batera plan bat joango da, ikastetxeak sortua, honako edukiekin: ikaslearen kurrikuluma mailaz maila antolatzeko proposamena, talde multiprofesionalaren txostena, eskabidearen aldeko arrazoi psikopedagogikoak azaltzen dituena; hezkuntza-ikuskariaren oniritzia eta ikaslearen legezko ordezkarien onespena, edota ikaslearena berarena, adinez nagusia izatekotan.

Luzapena pedagogia berrikuntzako edo lanbide heziketako zuzendaritzek onartuko dute.

**HELDUEN HEZKUNTZA**

**12.- atala.- Helduentzako Hezkuntza Ikastetxeetan eskolatzea.**

1.- Beharrizan bereziak dituzten helduek HHIeko zentroetan ikasi ahal izango dute, prestakuntza-etapak egin eta horien helburuak lortu ahal izateko. Helduen hezkuntzan kurrikulumaren egokitzapenak egin ahal izango dira,

3.- Aipatutako zentroetan beharrizan bereziak dituzten helduek ikasten badute, beren esku izango dituzte arautzutako laguntza eta arreta bereziko baliabideak.

## III. ATALBURUA
## LAN MUNDUAN SARTZEKO PRESTAKUNTZA EGOKITUA

**13.- atala.- Lan munduan sartzeko prestakuntza egokitua nori zuzentzen zaion:**

Ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuaren 19. ataleko 4. puntuari jarraituz, prestakuntza egokitu hori beharrizan bereziak dituzten ikasleei zuzentzen zaie, Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua eskuratu ezin izan duten kasuetan, eta ondoko moduetan gauzatu ahal izango da:

a.- Zereginen ikaskuntzako geletan.
b.- Lanbide Hastapeneko ohiko programen bidez, behin kurrikulumak egokituz gero.
c.- Lanbide Hastapeneko programa berezien bidez.

**14. atala.- Zereginen ikaskuntzako gelen helburua.**

Buru-atzeratuak izateagatik beharrizan bereziak dituzten ikasleak lan egiteko eta bizitza heldurako prestatzea da gela horien helburua. Beren ezaugarri nagusia ikasketetatik helduen bizitzara eta lan mundura pasatzeko zubia izatea da.

**15. atala.- Zereginen ikaskuntzako gelak non ipini.**

Gela horiek bigarren hezkuntzako institutoetan eta hezkuntza bereziko ikastetxeetan ipiniko dira.

**16. atala.- Eskolatzeko adinak. Eskolatzeko modua.**

1.- Izenemate-urtean 16 urte bete dituzten ikasleak sartuko dira zereginen ikaskuntzako geletan, eta hortik gorako adinetakoak ere, baina 20 urteak gainditu gabe. Ikasketek gehienez lau urte iraungo dute.

2.- Gela horietako izenemate-epeak eta -moduak bigarren hezkuntzako ohiko ikasleenak izango dira, salbuespen arrazoituak izan ezik.

**17. atala.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak taldekatzea, eskola-eginkizunetan hasiaraztea eta haien ordutegia antolatzea.**

1.- Zereginen ikaskuntzako talde bakoitzean ikasle-kopuru txikia sartuko da, ahal bada, hamar baino gehiago ez, eta beti haien beharrizanak ikusita.

2.- Gela horietako ordutegia 30 irakastordukoa izango da, DBHko ikastetxeko gainontzeko ikasleena bezalakoa.

3.- Gela horietako ikasleek aukera izango dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arlo batzuetan parte hartzeko, kurrikulum egokituaren barruan. Esaterako, gorputz-hezkuntzan, plastikan eta ikus-hezkuntzan, musikan, teknologian eta hautazko beste irakasgai batzuetan, batez ere lan-bizitzan hasteko lagungarriak izan daitezkeenetan.

**18. atala.- Zereginen ikaskuntzako kurrikulumaren egitura.**

1.- Zereginen ikaskuntzako kurrikuluma bi ziklotan banatu daiteke:

a.- Lehenengo zikloa, oinarrizko ikasketena, 16 eta 18 urte bitarteko ikasleek egiten dute, baina iraupena horien ezaugarrien arabera aldatu daiteke. Zikloan lau arlo daude: komunikazioa, norbanaren autonomia, gizarte-trebetasuna eta gizarteratzea eta, azkenik, lan--orientabidea.

b.- Bigarren zikloa, berariazko ikasketena, 18 eta 20 urte bitarteko ikasleentzakoa da. Honako arloak hartzen ditu: oinarrizko prestakuntza, lan-orientabidea eta tutoretza, lanbideko berariazko ikasketak eta jarduera osagarriak.

2.- Zereginen ikaskuntzako gelez gain, lanbide hastapeneko programak, ohikoak zein bereziak, egokiak dira bigarren zikloan ikasteko. Programa horiei dagokienez, aukera egongo da elbarrituei lanean hasten laguntzen dieten erakundeekin lankidetza-hitzarmenak sinatzeko.

3.- Berariazko ikasketen zikloan sartuko da, ahal bada, lan-zentroaren barruko prestakuntza-aldia (lan bereziko zentro, zentro okupazional edo ohiko lan-zentroetan). Zentroa ikasleen gaitasunei egokituko zaie eta lanbide hastapeneko programen lan-zentroetako prestakuntza-arauak beteko dira.

4.- Lan-zentroetako prestakuntza-tutorea, ahal bada, Lanbide Heziketako irakasle teknikoa izango da, edota lanbide kastapeneko programen lan-zentroetan aritzen diren prestakuntza-irakasleak. Azken hori, gainera, prestakuntza koordinatzeaz arduratuko da.

**19. atala.- Zereginen ikaskuntzako geletako kurrikulum-egitasmoa.**

1.- Zereginen ikaskuntzako gelak bere kurrikulum-egitasmoa izango du, ikastetxearen kurrikulum-egitasmo orokorraren barnekoa eta gela berezi horretako irakasleek egindakoa. Egiteko, horiek ikastetxeko orientabide-zerbitzuen laguntza izango dute, baita talde multiprofesionalarena.

2.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kurrikulum-proposamena egingo du, zereginen ikaskuntzako geletako kurrikulum-egitasmoak garatzeko lagungarria izango dena.

**20. atala.- Zereginen ikaskuntzako gelako ikasleen banakako planak.**

Zereginen ikaskuntzako gelako hezkuntza-taldeak ikasle bakoitzaren lan-plana sortuko du. Bertan sartuko dira, gutxienez, honako osagaiak: eskolatzeko proposamena, ikasi behar diren gauzak eta proposatu den heziketa-bidea (lehentasuna duten ikasketa-eremuak). Osagai bakoitzaren helburuak, edukiak, baloratze-irizpideak eta jarraibideak adieraziko dira. Banakako plan hori, ahal den heinean, bizitza heldura pasatzeko proposamen zabalago baten pean egongo da. Ikastetxeko orientabide-zerbitzuek eta talde multiprofesionalaren bizitza helduko teknikariak lagunduko dute proposamen hori egiten. Guneko gizarte-, lan- eta kultura-zerbitzuek parte hartuko dute, ahal bada, eta ikasleak berak eta bere familiak egin dezaketena egingo dute.

**21. atala.- Zereginen ikaskuntzako geletako langileak.**

Zereginen ikaskuntzako gela bakoitzeko langileak bi izango dira: pedagogia terapeutikoko irakasle bat eta teknikari espezialista edo lanbide heziketako goi mailako teknikaria den beste irakasle bat. Hori LHko irakasle teknikoen kidegokoa izango da, eta sare publikokoa.

Salbuespen gisa, lehen hezkuntzako irakasleek horien eginkizunak beren gain hartu ahal izango dituzte, behar den prestakuntza badute. Zereginen ikaskuntzako gelako irakasleen artean, ikastetxeko zuzendariak tutorea aukeratuko du. Irakasle horiek plantilakoak izango dira eta gainontzeko irakasleek dituzten eskubide eta betebeharrak izango dituzte.

**22. atala.- Zereginen ikaskuntzako gelen baliabideak.**

1.- Gela horietako irakasleek ikastetxeko orientatzailearen laguntza izango dute, behar izatekotan. Lanbide-orientazioko zentroetako talde multiprofesionaletan “bizitza heldura pasatzeko programaz” arduratzen den teknikariaren aholkuak eta kontrola ere irakasleen esku egongo dira.

2.- Ikasleek kurrikuluma egiteko baliabide pertsonal edo materialak behar badituzte, beren eskabideek 1988ko uztailaren 24eko Aginduaren prozedura jarraituko dute.

3.- Zereginen ikaskuntzako geletako ikasleek jantoki eta garraio zerbitzuak haien esku izango dituzte.

4.- Halako ikasgelak martxan jartzeko behar diren oinarrizko materialak eskuratzeko diru-baliabide bereziak egongo dira. Ekipamenduak ikasleen adina, gizarte-ingurua eta egoera fisikoa kontuan izango ditu, eta kurrikulumak garatzeko elementuak izango ditu.

5.- Zereginen ikaskuntzako gela ikastetxeko esparru fisiko normalizatuetan sartzekoa da, ikastetxeko hainbat gune gainontzeko ikasleekin batera erabili ahal izateko, hala nola amankomuneko lekuak, oinarrizko teknologiako ekipamenduak, lantegiak, kirol--instalazioak, laborategiak etab.

**23. atala.- Ikasketak ebaluatu eta dagokien egiaztagiria ematea.**

1.- Zereginen ikaskuntzako geletako ikasleek hiru hilabetero ebaluazioko txostena jasoko dute, bertan haien banakako lan-planaren emaitzak agertuko direlarik. Txostenak tutoreak egingo ditu, gelako irakasle guztiek emandako argibideetan oinarrituta.

2.- Ikasturtea amaitzean, tutoreak helburuen txosten zehatza egingo du, ikaslearen heziketa norantz eraman behar den ere esanez.

3.- Zereginen ikaskuntzako gelako ikasketak burutu ondoren, ikasleek egiaztagiri bana jasoko dute. Horretan agertuko dira haien datu pertsonalak, eskolatze berezi hori hasi eta bukatu zen eguna eta ikasitako espezialitatea, horrelakorik egotekotan, eta lortutako gaitasuna. Egiaztagiri hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emango du, ikasleak egon diren ikastetxeko zuzendariak proposatuta, arauetan agertzen den eredua erabiliz.

4.- Era berean, tutoreak zereginen ikaskuntzako gelako hezitzaile-taldearen laguntzarekin ikasleari beste txosten bat emango dio, beste ezaugarri batzuk adierazteko, hala nola lan egiteko gaitasuna eta lanpostu batera egokitzeko aukerak, gizarteratze-maila, gizarteko zerbitzuak erabiltzeko gaitasuna eta adierazpen-tekniketan eta teknika instrumentaletan lortutako maila.

**24. atala.- Beharrizan bereziak izanda zereginen ikaskuntzako geletan ez dauden ikasleak.**

1.- Beharrizan bereziak izanda zereginen ikaskuntzako geletan ez dauden ikasleek derrigorrezko eskolatzea amaitzean Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua eskuratu ez badute, lanbide hastapeneko programetan sartu ahal izango dira, bai banakako egokitzapenaren bidez bai talde zehatz baten berariazko programen bidez.

2.- Nolanahi ere, eskolatze-epeak ikasketa-erritmoari egokituko zaizkio, baina gehienez ikasleek 20 urte bete arte.

3.- Ikasle horien kurrikuluma lanbide hastapeneko programei egokitzeko, lanbide-orientazioko zentroetako talde multiprofesionaletan "bizitza heldura pasatzeko programaz" arduratzen den teknikariaren iritzia entzun beharko da.

## IV. ATALBURUA
## GELA EGONKORRETAN ESKOLATZEA

**25. atala.- Gela egonkorrak norentzakoak diren.**

Ikasle mota guztiak onartzen dituen eskola sortzearren Beharrizan Bereziak Dituzten Ikasleen Heziketa arautzen duen ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuaren 7.1 eta 18.2 atalek diotenez, ohiko ikastetxeetako hezkuntza bereziko gela ohiz kanpoko baliabide bat da beharrizan berezi eta konponduezinak dituzten ikasleek erabiltzeko, banakako arreta eta kurrikulum berezia behar dituztenean, hala nola autismoa, buru-atzerapen handia eta beste garapen-arazo larri batzuk.

**26. atala.- Eskolatzeko proposamena eta baliabideak.**

Ikaslea gela egonkor batean eskolatzeko proposamena dagokion talde multiprofesionalak egin behar du, ikaslea bere inguruan ebaluatu ondoren. Proposamenarekin batera, txosten bat aurkeztu behar da, heziketa-beharrizan bereziekin, eskolatzeko baliabideekin, banakako lan-plana prestatzeko argibideekin eta plan hori aldiro-aldiro berraztertzeko egun zehatzekin.

**27. atala.- Gela egonkorrak derrigorrezko hezkuntzan.**

1.- Beharrezkoak badira, gela egonkorrak derrigorrezko hezkuntzako bi etapetan sortu ahal izango dira, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, alegia. Salbuespen moduan, Haur Hezkuntzan sortu ahal izango dira.

2.- Hamasei urteetatik aurrera, zereginen ikaskuntzako gelak sortu ahal izango dira, eta horiek ere egonkorrak izango dira. Orduan, bai kurrikuluma bai gelako langileak, laguntzaileak barne, ikasleen ezaugarriei egokituko zaizkie.

3.- Hamasei urtetik gorako ikasleak zereginen ikaskuntzako gela bat osatzeko nahikoak ez badira, zereginen ikaskuntzako ohiko gela batean ikasiko dute, kurrikulum egokituekin eta, beharrezkoa bada, hezkuntza bereziko irakasle edo laguntzaileak jarriko zaizkie, eta ikasleen kopurua murriztu egingo da.

**28. atala.- Gelako langileak.**

1.- Ohiko ikastetxeetako hezkuntza bereziko gelak bere esparru fisikoa izango du. Bere tutorea pedagogia terapeutikoan aditua izango da, eta hezkuntza bereziko laguntzaile bat ere egongo da. Kurrikuluma hasteko eta garatzeko berariazko baliabideak izango ditu. Irakasle bakoitzeko bost ikasle egongo dira, gehienez.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, pedagogia terapeutikoko bi irakasle egongo dira gelan; horietatik bat tutorea izango da. Gainera, hezkuntza bereziko laguntzaile bat egongo da.

**29. atala.- Gela egonkorraren kurrikulum-egitasmoa.**

1.- Ohiko ikastetxeetako hezkuntza bereziko gelak kurrikulum-egitasmo berezia izango du, ikasleen ezaugarriak kontuan izango dituena, baina beti ikastetxeko kurrikulum--egitasmoaren barruan. Gelako lana egitasmoaren arabera antolatuko da, ikasle-mota anitzak tratatzeko neurrien artean.

2.- Gela egonkorraren kurrikulum-egitasmoa Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzak onartuko du, dagozkion talde multiprofesionalak eta ikuskaritza teknikoak beren txostenak aurkeztu ondoren.

3.- Gela egonkorraren kurrikulum-egitasmoa onartzean, kurrikulum-egokitzapena ere onartu egiten da. Beraz, banakako kurrikulum-egokitzapenak onartzea ez da beharrezkoa izango.

**30. atala.- Banakako lan-plana.**

Gela egonkorreko ikasle bakoitzak dagokion banakako lan-plana izango du, gelako kurrikulum-egitasmoari begira sortuko dena. Plan hori idatziz adieraziko da, kurrikulum--egokitzapenak egiteko baimenak arautzen dituen 1998ko uztailaren 24eko Aginduaren lehenengo eta bostgarrenaren bitarteko eranskinak erabiliz. Gainera, aldiro-aldiro berraztertuko da eta ikaslearen eskola-espedientearen zatia izango da. Eskolaketa-liburuan banakako kurrikulum-egokitzapena denez agertuko da eta ondorioz dagokion eskolatze-eginbidea gauzatuko da.

## V. ATALBURUA
## OSPITALE ETA ETXEKO IRAKASKUNTZA

**31. atala.- Ospitale eta etxeko irakaskuntzaren helburuak.**

1.- Ospitale eta etxeko irakaskuntzaren helburu nagusia derrigorrezko hezkuntzako hainbat ikasle baztertuta ez uztea da. Hau da, medikuaren aginduz eskolara joan ezin diren ikasleak edo ospitalean daudenak (inoiz atera gabe edo gauetan ateratzen) eskolatzeko asmoa dago.

2.- Helburu zehatzagoak honakoak dira: isolamendua saihestea; gaixotasunaren ondorioz eskolara ez joateagatik agertzen den ikas-atzerapena txikiagotu eta, beraz, ikaslea geroago eskolaratzen laguntzea; alde guztien garapen osoa lortzea, ikasle gaixoen ikasteko beharra eta beharrizan afektiboak eta psikologikoak betez; ikasleak berak sendatzeko prozesuan parte eraginkorra hartzea.

**32. atala.- Ospitale eta etxeetako irakasle-zentroa.**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde bakoitzean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ospitale eta etxeetako irakasle-zentroa sortuko du, agindu honetako 31. ataleko helburuak lortzeko.

2.- Zentro horren pean irakasle ibiltariak egongo dira, bai ospitale bai etxeetan arituko direnak.

3.- Ikasleen egoera kontuan hartuta, zentro horretako irakasleek goiz eta arratsaldeko ordutegiak egokituko dituzte.

4.- Ospitale eta etxeetako irakasle-zentroa ikaslearen ohiko zentroarekin lotuta egongo da, eta azken horretako talde multiprofesionalari ikaslearen berri emango dio, ikasleaz arduratzen den lehen unetik azkenengora arte.

**33. atala.- Ospitale eta etxeetako irakasle-zentroaren hezkuntza- eta kurrikulum-egitasmoa.**

Zentro bakoitzak hezkuntza-egitasmo bat eta kurrikulum-egitasmo bat egingo ditu. Horretarako, ikasle-mota bakoitzaren ezaugarriak kontuan izango ditu, hala nola ikasketa--mailak, adinak, interesak, egoera fisikoa eta gaixotasunaren iraupena (kronikoa edo luzea den).

**34. atala.- Banakako lan-plana.**

Gaixotasun luze edo kronikoa izateagatik ospitaleko ikasgelara doan edo ikasketak etxean egiten dituen ikasle bakoitzarentzat banakako lan-plana egingo da, dagokion ikastetxeko tutorearekin batera eta inguru bi horietako lanak lotuz.

**35. atala.- Etxeko ikaskuntzaren prozedura.**

1.- Tutorearen laguntzarekin, ikaslearen legezko ordezkariek etxeko ikaskuntza eskatuko dute, ikasleari dagokion ikastetxean. Ezarritako ordutegia errespetatuko dute, irakasleak bere lana behar bezala egin dezan.

2.- Eskabidearekin batera, medikuaren egiaztagiria edo txostena aurkeztuko dute, osasun-egoeragatik (eta ez beste ezergatik) etxean ikastea komenigarriena dela adierazten duena.

3.- Ikaslearen ikastetxeko zuzendariak txosten bat egingo du, bertako irakasleek ikaslearen etxera joateko aukerarik duten esateko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren irizpideei jarraituz.Txosten hori hezkuntzako ikuskaritzaren oniritziarekin egingo da.

4.- Agiri horiek guztiak ospitale eta etxeetako irakasle-zentrora bidaliko dira. Haietan oinarrituta, behinbehineko espedienteari hasiera emango zaio, eta hori ikaslearen banakako lan--plana sortzeko erabiliko da.

5.- Ospitale eta etxeetako irakasle-zentroak behar diren irakasleak ez baditu, Baliabideetako Lurralde Burutzari eskatuko dizkio, ohiko ikastetxearen eskabidearen kopia eta txostena bidaliz. Irakasle ibiltari bat izendatuko du horrek, eta irakasteko baldintzak ezarriko ditu.

## VI. ATALBURUA
## HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEETAN ESKOLATZEA

### 36. atala.- Hezkuntza bereziko ikastetxeak.

1.- Hezkuntza bereziko zentroen helburua ikasle batzuk modu egokituan heztea da, ikasle horien beharrizan bereziak ikusita eta horien izaera larria eta aldaezinaren arabera, giza--baliabide eta baliabide tekniko berezien laguntzaz baliatuz.

2.- Hezkuntza bereziko ikastetxeetako ikasleek ez dira ohiko ikasleentzako arauen pean egongo. Agindu hau haientzako erreferentzia izango da eta beren kurrikuluma Lehen Hezkuntzako helburuetan oinarrituko da.

3.- Hezkuntza bereziko ikastetxeetako ikasleak diren gorputz- edo zentzumen-urrituek Bigarren Hezkuntzako Graduatu tituloa lortzeko gaitasuna badute, bertan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza burutu ahal izango dute, eskolatze-epe malguarekin eta kurrikulum--egokitzapenekin, ikastetxeak horretarako ekipamendu egokia badu eta irakasleek etapa horretan aritzeko behar den tituloa badute. Ikasle-motak eskatutako espezialitatea ere izan beharko dute, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arau orokorrei jarraitu beharko diete eta, horrez gain, agindu honetako II. atalari, baita hezkuntza bereziko ikastetxeetako hezkuntza- eta kurrikulum-egitasmoa eta banakako lan-planak sortzeko xedapenei.

4.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, kasuan kasuko eta heziketa--beharrizanak ikusita, irakasle/ikasle ratioa eta irakasle eta instalazioen ezaugarriak erabakiko ditu.

5.- Hezkuntza bereziko ikastetxeek 16 urtetik gorako ikasleak zereginen ikaskuntzako geletan eskolatu ahal izango dituzte, edo, beharrezkoa bada, lanbide hastapeneko berariazko programetan.

6.- Hezkuntza bereziko ikastetxeetako ikasleek eta ohikoek eskolatze-epea luzatzeko aukera berberak izango dituzte, automatikoki. Nolanahi ere, hezkuntza bereziko ikastetxeetan jarraitzeko adin-muga 20 urteak izango dira.

### 37. atala.- Hezkuntza bereziko ikastetxeetan izena ematea eta ikasleak onartzea.

1.- Hezkuntza bereziko ikastetxeetan izena emateko eta onartua izateko, maila horretako ikastetxeen prozedura eta egutegia errespetatuko dira.

2.- Beharrizan bereziak dituen ikasleak hezkuntza bereziko ikastetxe batean izena emateko, aldez aurretik bere beharrizan horiek ebaluatu behar dira, eta kurrikulum berezia, baliabide berezien beharra eta eskolatze-proposamena oinarritzeko txosten psikopedagogikoa egin behar da. Hezkuntza bereziko ikastetxeko ikasleen egoera aldiro-aldiro aztertuko da, bertan dauden bitartean, haien ingurua ahalik eta normalena izan dadin.

3.- Hezkuntzako beharrizan berezi eta txosten psikopedagogikoa hezkuntza bereziko ikastetxean gordeko dira, bertan eskolatutako ikaslea behar bezala ikuskatzeko.

4.- Ikaslea diru publikoa jasotzen duten hezkuntza bereziko ikastetxe batean sartzea proposatu ahal izango dute talde multiprofesionalek, ikaslearen beharrizan bereziak oso larriak eta aldaezinak badira eta ohiko ingurua berarentzat egokiena ez bada, eta gainera berariazko giza-baliabide eta baliabide materialak modu intentsiboan behar baditu.

5.- Hezkuntzako lurralde ordezkaritzek urtero-urtero hezkuntza bereziko ikastetxeekin koordinatzeko neurriak hartuko dituzte, ikasleak aurrera doazen ikuskatzearren.

**38. atala.- Hezkuntza bereziko ikastetxeetako ikasleen eskola-egoera.**

1.- Ebaluazio psikopedagogikoaren emaitzei jarraituta hezkuntza bereziko ikastetxeetako ikasle batzuek Bigarren Hezkuntzako Graduatu tituloa lortzeko aukerak badituzte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ohiko kurrikuluma izango dute erreferentzia moduan egokitzapenekin. Bere ikasketa-egoera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ohiko ikasleena bezalakoa izango da, agindu honetako salbuespenekin.

2.- Agindu honetako 36.2 ataleko ikasleek beren ikasketa-egoera berezia izango dute, atal honetako puntuek deskribatzen dutena. Egoera hori ikaslearen espedientean eta eskolatze-liburuan agertuko da, dagozkion xedapenei jarraituz.

**39. atala.- Hezkuntza bereziko ikastetxearen kurrikulum-egitasmoa.**

1.- Hezkuntza bereziko ikastetxeek beren kurrikulum-egitasmoa egingo dute, ikasleen beharrizan bereziak kontuan hartuta. Hezkuntza bereziko ikastetxeetako kurrikulum-egitasmoek ohiko kurrikuluma sakonki egokitzen dute eta ikasleen oinarrizko hezkuntza-erreferentzia dira.

2.- Hezkuntza bereziko ikastetxearen kurrikulum-egitasmoa Pedagogia Berrikuntzarako Zuzendaritzak onartu behar du. Horretarako, ikastetxeetako ohiko kurrikulum-egitasmoak onartzeko bidea jarraitu behar da, eta gainera talde multiprofesionalaren txosten orokorra bidali behar da, ikastetxeko ikasleen hezkuntza-beharrizanei buruzkoa, eta, azkenik, Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren txostena ere.

3.- Hezkuntza bereziko ikastetxearen kurrikulum-egitasmoa onartzeak ikasleen kurrikulum-egokitzapena ere ontzat eman dela esan nahi du. Beraz, ez da beharrezkoa banakako kurrikulum-egokitzapenak onartzea.

**40. atala.- Kurrikulum-egitasmoa egiteko irizpideak.**

1.- Hezkuntza bereziko ikastetxeen kurrikulum-egitasmoak ikasleen adinak eta beharrizanak kontuan izango ditu eta, horietan oinarrituta, zikloak ezarriko ditu, ikasketak plantzeko unitateak, alegia.

2.- Kurrikulum-egitasmoa egiteko irizpideak: ikasle urrituaren independentzia handitzea, ikasketak eta adin kronologikoa adostea, ikasleak bere ingurua hobeto ulertzeko gaitasuna lantzea eta ikasleak eguneroko egoeretan ahalik eta hoberen moldatzen laguntzea.

3.- Hezkuntza bereziko ikastetxeen kurrikulum-egitasmoa ohiko ikastetxeena bezalakoa izango da, baina egokitua, ikasleen beharrizan berezi larriak kontuan hartuta. Beharrizan horiek dituzten ikasle horiek zeintzuk diren zehaztuko du, eta ikasleek ohiko ikastetxe batean integratzeko irizpideak ezarriko dituzte.

4.- Hezkuntza bereziko ikastetxeen kurrikulum-egitasmoa egiteko, hezkuntza-etapen kurrikulumak erreferentzia gisa erabiliko dira, eta egokituko dira, baina gaitasun berberak garatzeko helburua mantenduko da. Ikasketak oso funtzionalak izango dira eta adin kronologikoarekin lotuko dira.

**41. atala.- Ikasleen banakako lan-plana.**

1.- Banakako lan-plana sortuko da ikasle bakoitzarentzat, hiru agiritan oinarrituta: hezkuntza bereziko ikastetxeen kurrikulum-egitasmoan, beharrizan bereziak dituen ikaslearen kurrikulum-ebaluazioan eta gaurkotutako txosten psikopedagogikoan, alegia.

2.- Ikastetxeko kurrikulum-egitasmoaren ziklo bakoitza amaitzean banakako lan-egitasmoa berraztertu egingo da eta ikaslearen espedientean sartuko da, kurrikulum--egokitzapenak egiteko baimenak arautzen dituen 1998ko uztailaren 24eko Aginduaren lehenengo eta bostgarrenaren bitarteko eranskinak erabiliz.

3.- Banakako lan-egitasmoarekin batera, ikasleen eskola-egoera eta eskolatzeko modua berraztertuko dira. Ikastetxeko irakasleak berak arduratuko dira horretaz, eta, eskatzekotan, guneko talde multiprofesionalaren laguntza izango dute. Berrazterketa ikaslearen espedientean sartuko da.

4.- Banakako lan-egitasmoa banakako kurrikulum-egokitzapenen ordez egin daiteke. Behin Pedagogia Berrikuntzarako Zuzendaritzak ikastetxeko kurrikulum-egitasmoa onartuz gero, lan-egitasmoa onartutzat joko da.

**42. atala.- Eskolatze-liburuak.**

Hezkuntza bereziko ikastetxeetako ikasle bakoitzak beren derrigorrezko eskolatze--liburua izango du. Hori ematekoak diren aginduen arabera beteko da eta bere ohar-orrietan adieraziko da ikaslea hezkuntza bereziko ikastetxeko kurrikulum-egitasmoa egiten ari dela.

**43. atala.- Egun-zatizko eskolatzea.**

1.- Ikasle batzuentzako egun-zatizko eskolatzea egokia bada, berdin ohiko ikastetxe batean edo hezkuntza bereziko batean, ikaslearen espedientean adieraziko da. Nolanahi ere, ikaslearen matrikula bere jatorrizko ikastetxean geratuko da eta bertako espedientea irekita egongo da.

2.- Ikasleak beharrizan bereziak baditu, egun-zatizko eskolatze-programa Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzak onartu beharko du, aldez aurretik ikaslea dagoen ikastetxea eskatuta. Eskabidearekin batera, ikaslearen txosten psikopedagogikoa aurkeztuko da, baita bigarren ikastetxearen txostena, bertan eskolatzeko modu eta baldintzei buruzkoa.

3.- Ohiko ikastetxeko talde multiprofesionala eta hezkuntza bereziko ikastetxeko talde teknikoa adostu egingo dira, hezkuntzako neurri egokiak hartu eta kontrolatzeko.

**44. atala.- Hezkuntza bereziko ikastetxeen baliabideak.**

1.- Beharrizan bereziak izateagatik hezkuntza bereziko ikastetxe batean dauden ikasle batzuk Bigarren Hezkuntzako Graduatu tituloa eskuratzeko gauza badira, beti ere egokitzapenekin eta kurrikulum malguarekin, haien irakasleek etapa horretan irakasteko tituloa izan beharko dute eta, horrez gain, ikasle horiekin lan egiteko prestakuntza osagarria.

2.- Hezkuntza bereziko ikastetxeetan giza-baliabide bereziak egongo dira, beharrizan bereziak dituzten ikasleei laguntzeko; esaterako, kasu bakoitzeko irakasle adituak eta behar diren teknikariak.

3.- Egoerak eskatzekotan eta hezkuntza-administrazioak agintzen duen moduan, ikastetxeek beste baliabide berezi batzuk eta laguntzaileak izango dituzte beren esku.

**45. atala.- Hezkuntza bereziko ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua.**

Antolaketa eta funtzionamenduari dagokienez, hezkuntza bereziko ikastetxeak sare publikoko (edo sare itunduko) beste ikastetxeen arauen pean egongo dira, beti ikasleen ezaugarriak kontuan hartuta.

## VII. ATALBURUA
## BEHARRIZAN BEREZIAK DITUZTEN IKASLEENTZAKO KANPO-ZERBITZUAK

**46. atala.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzen laguntzeko talde multiprofesionalak.**

1.- Talde multiprofesionalak laguntza-zerbitzuetan kokatzen dira eta diagnostiko psikopedagogikoa egiten dute, beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko proposamena egiten dute eta ikasle berezi horien aurrerapenak kontrolatzen dituzte. Gainera, horien irakasleei aholkuak eta laguntza eskaintzen dizkiete. Taldeen eginkizuna bikoitza da: orokorra eta espezialista. Aholkulari, orientatzaile, tutore eta laguntza-langileen bidez, ikastetxeetan parte hartzen dute, kurrikulum-egokitzapenak egin eta garatzeko.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako talde multiprofesionalak, haien eginkizun orokorraren barruan, hauetaz arduratzen dira: hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak aurkitu, diagnostiko psikopedagogikoa egin eta irakasle eta laguntzaileei aholkuak emateaz.

3.- Eginkizun espezialistaren barruan taldeetako teknikarien lana dago, prestakuntza berezia eskatzen duena. Hezkuntza-beharrizan zehatzak ikusita, informazio, diagnostiko eta aholkularitzaz arduratzen dira, gero talde osoko profesionalek modu eraginkorragoan lan egin dezaten, haien artean osagarriak izanda.

4.- Programa jarduera multzo bat da, informazio, diagnostiko espezializatu eta aholkularitzari lotua, hezkuntza-beharrizan berezi bati buruzkoa, talde multiprofesionalari elkarmenpekotasunean eta modu koordinatu eta espezializatuan aritzen laguntzeko helburua duena. Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak behar bezala eskolatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren planen menpean egongo da programa.

5.- Talde multiprofesionalak PATeko beste aholkulariekin lotuko dira eta horren zuzendariaren menpean egongo dira. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako aginduei jarraituko diete.

**47. atala.- Programen jarduera-eremua.**

1.- Ikasteko gaitasunak garatzeko programa:

Ikasteko zailtasun handiak dituzten ikasleak. Buru-atzeratuak. Oso gaitasun handiko ikasleak. Mugimen-urritasuna dela eta kurrikuluma garatzeko baliabide teknikoak behar dituztenak ere.

2.- Garapeneko arazo orokorrak dituzten ikasleentzako programa:

Autismoa eta garapeneko arazo orokorrak dituzten ikasleak. Buru-atzerapen handia eta sakona dutenak eta nortasun-arazo larriak dituztenak.

3.- Gizarteratzen laguntzeko programa:

Eskola eta gizartera moldatzen ez diren ikasleak. Portaera-arazo larriak dituztenak. Kultura eta etnia baztertuetako gutxiengoak (oro har, jakintza aberasteko eta inguru apalak sortutako desberdintasunak deusezteko ekintza aurrera eramango da). Programa horretan, ospitale eta etxeko eskolatzea sartzen da, gaixotasun luzea dela eta beharrizan bereziak dituzten ikasleentzat.

4.- Entzumena eta mintzamena lantzeko programa:

Mintzamena menperatzeko zailtasun handiak dituzten ikasleak. Komunikatzeko arazoak dituztenak. Gortasuna eta entzumen-arazoak dituztenak. Ikusmen-arazoak dituztenak.

5.- Oso haur txikien hezkuntza-programa:

Haur hezkuntzako lehen zikloko ikasleen beharrizan bereziak ahalik eta goizen aurkitzeko, aldiro ikuskatzeko eta haur horiek eskolatzeko modua erabakitzeko, komunitatearen gizarte-zerbitzuekin koordinatzea da asmoa. Horrez gain, ikasle horiek eskolatzeko aholkuak jasoko dituzte familiek eta haur-eskoletako langileek.

6.- Helduen bizitzan hasteko programa:

Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak integratzea, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan, bai derrigorrezkoaren ondoko ikaskuntzan, bai lan munduan sartzeko prestakuntza egokituan, bai lan-munduan eta helduen bizitzan sartzeko prozesuetan. Programa horretan helduen hezkuntzari buruzko aholkularitza sartzen da.

**48. atala.- Programen arduradunak.**

1.- Ahal den heinean, programa bakoitzean teknikari bat egongo da, psikologian, pedagogian edo psikopedagogian lizentziatua, programa horren arduraduna izango dena. PATeko zuzendariak talde multiprofesionaleko teknikarietatik bat aukeratuko du,

programaren barruan tekniko espezializaturik ez duten funtzioetarako.

2.- Talde multiprofesionalaren barruan, hezkuntza-beharrizan bereziak bere gain dituzten taldeskek beren egitura aldatu ahal izango dute, gune bateko ezaugarriak ikusita. Taldeska bakoitzak taldeko teknikari espezialistak izango ditu bere esku, horien beharra izatekotan.

3.- Egoeraren arabera, PAT baten programa batez arduratzen den teknikari batek bere gain hartu ahal izango ditu beste PAT baten aholkularitza, hori hurbil badago. Era berean, gunea oso zabala bada edo egoera berezia bada, posible da programa bakar batean teknikari bat baino gehiago egotea.

**49. atala.- Talde multiprofesionalen eginkizunak.**

Talde multiprofesionalak hezkuntzako zerbitzu laguntzaileetarako lan egingo du eta, horrez gain, eginkizun hauek beteko ditu:

1.- Irakasleei laguntzea, ikastetxean bertan hezkuntza-beharrizan bereziak modu egokian baloratzeko eta kurrikulumak errazago egokitzeko eta, ondorioz, ikasleei ahalik eta aurrerapen handienak egiten laguntzeko.

2.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleen diagnostikoa, ebaluazio psikopedagogikoa eta eskolatze-proposamena egitea. Ikasle horientzako ezohiko baliabideak eskatzeko proposatzea, ikastetxeko tutore, aholkulari edo orientatzaile eta pedagogia terapeutikoko edo entzumen eta mintzameneko irakasleen laguntzaz.

3.- Disziplina anitz kontuan izanda, ikasleen hezkuntza-beharrizan desberdinak aztertzea, talde multiprofesionalaren beste programekin harremanetan, lehentasunak non dauden jakiteko, giza-baliabideak eta baliabide materialak antolatzeko eta beharrizan bereziak dituen ikaslea modurik egokienean orientatu eta horren emaitzak ikuskatzeko.

4.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleen irakasleei argibideak ematea, hezkuntza--programa eta gelako antolaketa ikasleei egokitzeko.

5.- Ikastetxeko zuzendaritzari eta irakasle-taldeari aholkuak ematea, beharrizan bereziak dituzten ikasleen aldeko egokitzapenak egiten dituztenean. Gelako irakasleei aholkuak ematea, batez ere aholkulariari, orientatzaileari eta tutoreari, beharrizan bereziak dituzten ikasleentzako baliabideak nola erabili jakin dezaten.

6.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleen familiei eskolatze-proposamenari buruzko argibideak ematea.

7.- Osasun, gizarte eta laneko eragile nagusiekin koordinazioa eta lankidetza sendotzea, hainbat pertsona, talde edo guneren hezkuntza-beharrizan bereziei erantzuna ematerakoan, horrela helburuak, lehentasunak eta prozedurak modu bateratuan aurkitzeko.

8.- Programaren barruan, talde multiprofesionaleko kide bakoitzari dagokion eginkizuna garatzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aholku eta lehentasunen arabera. Irakasle eta laguntzaileei beharrizan bereziak dituzten ikasleei buruzko argibide zehatzak ematea, ekintza espezializatuagoa eskatzen duten aldeei buruzkoak.

9.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak agindutako beste eginkizun guztiak betetzea, hezkuntza-beharrizan berezien erantzunari buruzkoak.

**50. atala.- Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak behar bezala eskolatzeko langile ibiltariak.**

1.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak langile espezializatu ibiltarien talde bat izango du bere esku, beharrizan bereziak dituzten ikasleei laguntzeko: logopedak, entzumen eta mintzameneko irakasleak, fisioterapeutak, okupazio-terapeutak, ikusmen-urrituak eskolan integratzeko irakasle-laguntzaileak eta beste, guneko beharrizanen arabera.

2.- Aurrekoez gain, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hezkuntza bereziko laguntzaileak izan ahal izango ditu.

**51. atala.- Ikastetxean parte hartzen duten kanpoko zerbitzuak koordinatzea.**

Beharrizan bereziak dituzten ikasleak dauden ikastetxeko zuzendaritzak, edo horrek izendatutako pertsona batek, hezkuntzan parte hartzen duten langile guztiak koordinatuko ditu, eta familiei argibideak emango dizkie, tutoreen bidez.

## VIII. ATALBURUA
## HEZKUNTZA-BEHARRIZAN BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEZ ARDURATZEN DIREN LAGUNTZA-LANGILEAK, IKASTETXE PUBLIKOETAN

**52. atala.- Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleez arduratzen diren laguntzaileak.**

1.- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baldintzen pean, langile espezializatuak arituko dira: irakasle aholkulariak, pedagogia terapeutikoko irakasleak eta entzumen eta mintzamenekoak.

2.- Bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetan, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baldintzen pean, langile espezializatuak arituko dira: irakasle orientatzaileak, pedagogia terapeutikoko irakasleak eta entzumen eta mintzamenekoak.

3.- Bigarren hezkuntzan, arlo bakoitzeko kurrikulum-egokitzapenak finkatzeko, posible izango da arlo zehatzeko irakasleak egotea.

**53.- atala.- Irakasle aholkularien eginkizuna.**

1.- Irakasle aholkularia maisu-maistren kidegoko irakasle bat da, ikastetxeko klaustrokoa, beharrezko espezializazioa duena.

2.- Irakasle aholkulariaren eginkizun nagusia tutore eta gainontzeko irakasleei aholkuak ematea da, hezkuntza-beharrizan bereziei erantzun egokia emateko. Bere eginkizun horrek lehentasunezko ekintza positiboko hastapenari jarraituko dio, beti laguntzaren beharrik handiena dutenen alde.

3.- Irakasle aholkulariaren eginkizunak:

a.- Tutoreari arazo zehatzak aurkitzen laguntzea, eta konpontzeko biderik onenak proposatzea.

b.- Irakasleei aholkuak ematea, eta tutoreari banakako kurrikulum-egokitzapenak gauzatzen laguntzea.

c.- Gelan parte hartzea, tutorearekin batera eta biak koordinatuta, talde-lana eginez, edo, behar den unean, beste irakasle bat balitz bezala arituz, talde malguen egitura baten barruan.

d.- Ikastetxeko irakasleei aholkuak ematea, eta tutoreari etengabeko ebaluazioan laguntzea, bai ikaslea bai horren ingurua baloratuz.

e.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleekin lan egitea, horiek banan-banan hartuta, ohiko inguruetan edo inguru berezietan.

f.- Berrikuntza eta prestakuntzako programak bultzatu eta koordinatzea, tutoreen ekintzari, ikasle desberdinak tratatzeko moduari eta hezkuntza-beharrizan bereziei buruzkoak.

4.- Aipatutakoa egiteko, irakasle aholkulariak hiru ekintza-motatan parte hartuko du: ikastetxeko irakasleen aholkularitzan; lankidetzan, ohiko gelako ikasle bati edo batzuei lagunduz, edo lankidetza bereziago batean, ikasle zehatz bati lagunduz.

**54. atala.- Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako irakasle orientatzaileak.**

1.- Irakasle orientatzailea bigarren hezkuntzako irakasle bat da, ikastetxeko klaustrokoa, beharrezko espezializazioa duena eta.

2.- Irakasle orientatzaileak ikastetxeko beste irakasleak –batez ere tutoreak–, koordinatzea, eustea eta beren galderak erantzutea du eginkizun nagusi, eskola-, pertsona- eta lanbide-aholkularitzaren eremuan eta ikasteko zailtasun eta ikasleen nortasunaren esparruan. Ekintza ugaritan agertuko da: ikasle desberdinak nola tratatu erabaki behar denean, edo hezkuntza-errefortzu gisan, edo kurrikulumak egokitzen direnean edota, azkenik, orientatzeko aholkuak beharrezkoak direnean.

3.- Hezkuntza-laguntzailea denez, orientatzaileak lan hauek hartuko ditu bere gain:

a.- Ikasle desberdinei buruzko jarduerak koordinatu eta aholkulari aritzea; batez ere, kurrikulum-aniztasunari eta beharrizan bereziak dituzten ikasleen kurrikulum-egokitzapenei dagokienez.

b.- Aholkulari aritzea: ikasteko arazoak saihestu eta aurkitzeko, hezkuntza--errefortzuko ekintzak aurrera eramateko, metodologia eta antolaketa gaiak erabakitzeko eta ebaluazioa egiteko.

c.- Ikastetxeko ikasleen beharrizanak neurtzeko ebaluazio psikopedagogikoan lagundu eta parte hartzea, kurrikulum-aniztasun eta -egokitzapenen prozesuaren barruan.

d.- Ikasle desberdinei irakasteko moduari buruzko aholkuak ematea.

e.- Bigarren hezkuntzako ikastetxeko talde multiprofesionalaren ekintzak eta kanpoko laguntzaileenak koordinatzea.

**55. atala.- Pedagogia terapeutikoko irakasleak.**

1.- Pedagogia terapeutikoko irakaslea maisu-maistren kidegokoa izango da, klaustrokoa, eta beharrezko espezializazioa izango du.

2.- Pedagogia terapeutikoko irakaslearen eginkizunak:

a.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleei laguntzea, banan-banan edo talde txikietan, ohiko ikasgelan edo laguntzakoan, kurrikulum egokituetako edo banakako lan-planetako gaiak lantzeko.

b.- Tutore, aholkulari, orientatzaile eta talde multiprofesionalarekin batera lan egitea, eskatzen zaion bakoitzean, beharrizan bereziak dituzten ikasleen kurrikulum-balorazioa egiteko.

c.- Behar balitz, aholkulari edo orientatzaile eta tutorearekin batera beharrizan bereziak dituzten ikasleen banakako kurrikulum-egokitzapenak egin eta garatzea, eta horien ikasmaterialak sortzea.

d.- Beharrizan bereziak dituzten ikasleen familien eta tutorearen arteko harremanetan laguntzea.

e.- Tutore eta aholkulari edo orientatzailearekin batera, ikasle desberdinak elkarrekin egoteagatik sortzen diren arazoei erantzuna ematea, beharrizan bereziak dituzten ikasleen lehentasuna errespetatuz.

**56. atala.- Entzumen eta mintzamen irakaslea.**

1.- Entzumen eta mintzamen irakaslea maisu-maistren kidegokoa da, klaustrokoa, eta beharrezko espezializazioa dauka.

2.- Entzumen eta mintzamen irakaslearen eginkizuna:

a.- Tutore eta aholkulari edo orientatzailearekin batera, ikasleen mintzameneko arazoak aurkitzea.

b.- Talde multiprofesionalarekin lan egitea, entzun eta mintzatzeko zailtasunak dituzten ikasleen diagnostiko psikopedagogiko bereizia egiteko.

c.- Irakasle, logopeda eta talde multiprofesionalarekin ados jartzea, entzun eta mintzatzeko zailtasunak dituzten ikasleen ebaluazioa egiteko eta dagokien hezkuntza-plana sortu eta ikuskatzeko.

d.- Talde multiprofesionalarekin batera, kurrikuluma egokitzeko irizpideak erabakitzea.

e.- Irizpide horien arabera, mintzamena zuzentzeko programa sortu, landu eta martxan jartzea, egoerarik larriena duten ikasleei lehentasuna emanez.

**GEHIGARRIZKO XEDAPENA**

**Bakarra.- Hezkuntza bereziko unitateak ikastetxe itunduetan sortzea.**

1.- Hezkuntza bereziko unitateak ikastetxe itunduetan sortzeko, horien zuzendariek dagokien hezkuntza lurralde ordezkariari eskatuko diote baimena, baldintza hauek beteta:

a.- Elbarritasunak direla eta, gutxienez beharrizan bereziak dituzten hiru ikasle egotea. Horien banakako kurrikulum-egokitzapena behar bezala baimenduta egongo da.

b.- Unitate horretako pedagogia-egitasmoa egitea, haren helburuak eta antolaketa adierazteko.

c.- Beharrizan berezi horiek direla eta behar diren pedagogia terapeutikoko irakasleak egotea.

2.- Ikastetxeen Lurralde Burutzak erakunde hauei txostenak eskatuko dizkie:

a.- Eraikuntzen Unitate Teknikoari, proposaturiko gela egokia den esango duena, horren azalera eta egoera ikusita.

b.- Hezkuntza Ikuskaritzari, proposaturiko irakasleak egokiak diren eta unitatea martxan jartzeko aukerarik dagoen esango duena, ikastetxeko ezaugarriak, ratioak, esparruak etab. ikusita.

c.- Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzari, aurkeztutako egitasmoa egokia den esango duena.

3.- Hiru horien txostenak jasota, Ikastetxeen Lurralde Burutzak bere proposamena Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari heleraziko dio.

4.- Hezkuntzako lurralde ordezkariak, Ikastetxeen Lurralde Burutzaren proposamenari jarraituz, Ikastetxeen Lurralde Zuzendaritzara bidaliko du eskabidea.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa.**

Hezkuntza Sailburuordetzak baimena du agindu hau bere irizpideei jarraituz aplikatu, interpretatu eta garatzeko.

**Bigarrena.**

Agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik indarrean egongo da.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko uztailaren 30.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

# IKASLE BEREZIAK OHIKO IKASTETXEETAN ESKOLATZEA

## HAUR HEZKUNTZA

- ✐ Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak ikastetxe arruntetan eskolatzea.
- ✐ Egoera berezietan bakarrik proposatu ahal izango dira EBko ikastetxeak.
- ✐ Eskolatzeko lehentasuna.
- ✐ Beharrezko laguntzak, pertsonalak zein materialak, izango ditu.
- ✐ Goiz hautemateko hainbat erakunderen arteko koordinazioa ezarriko da.
- ✐ TMPak eskolatze-proposamena formulatuko du eta ikastetxeak aholkatuko ditu.

Haur Hezkuntzan urte bete gehiago ematea

**Prozedura**

Ikastetxearen Zuzendaritza
- Eskaera
- Legezko ordezkarien adostasuna

↓

Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutza
- TMParen txostena
- Ikuskaritza Teknikoaren oniritzia.

↓

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza
- Erabakia

## LEHEN HEZKUNTZA

- ✐ Egonaldia bi urte arte malgutzea ahalbidetzen da (horietan hartuko da barne, eskolatzearen hasiera atzeratu bada).

Lehen Hezkuntzan urte bete/edo bi gehiago ematea

**Prozedura**

Ikastetxeko Zuzendaritza
- Eskaera
- Legezko ordezkarien adostasuna

↓

Pedagogi Berrikuntzako Lurralde Burutza
- TMParen txostena
- Ikuskaritza Teknikoaren oniritzia.

↓

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza
- Erabakia

## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

- ✐ Gela arruntetan eskolatzea beharrezko laguntzekin.

- ✐ Hezkuntza-premia bereziko ikasleek pedagogia terapeutikoko irakasleen laguntza izango dute.
- ✐ Haurraren tutoretza ikastetxeko zuzendaritzak esleituko du taldearen tutorearen eta PTaren artean.

- ✐ Egonaldia malgutuko da, lehenengo zikloko edozein mailatan egitea ahalbidetuz.

- ✐ 16 urtetik aurrera egokitutako prestakuntzarako sarbidea izango dute.

## DHO BERARIAZKO LH

- ✐ Egonaldia malgutzeko aukera:
  - Batxilergoa jakintzagaiak urte gehiagotan banatuz (gehienez ere lautan).
  - Heziketa-zikloak: moduluak banatuz, gehienez ere denbora bikoitza erabiliz.

- ✐ Matrikulazio-prozesu arrunta, titulazio-baldintzak betez.
- ✐ Heziketa-ziklo bateko modulu bakarren bat bakarrik egiteko eta egiaztagiria lortzeko aukera.

Batxilergoko eta heziketa-zikloetako denbora malgutzea

**Prozedura**

| | |
|---|---|
| Ikastetxeko Zuzendaritza | • Eskaera<br>• Legezko ordezkarien adostasuna<br>• Proposatutako plana |
| Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutza | • TMParen txostena<br>• Ikuskaritza Teknikoaren oniritzia |
| Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza edo Lanbide Heziketarako Zuzendaritza | • Erabakia |

## HELDUEN HEZKUNTZA

- Prestakuntza horretarako sarbidea.
- Laguntza, aholkularitza eta arreta berezirako baliabideak izango dituzte.

## EGOKITUTAKO PRESTAKUNTZA

**TESTUINGURUAK**

a.- Zereginen ikaskuntzarako gelak.
b.- Lanbide-hastapenerako programa arruntetan integratua.
c.- Berariazko lanbide-hastapenerako programetan.

**ZIG**

- Gelako Curriculum Proiektua
- Plan indibiduala
- Langileak: PT 1eta LHko irak. tek. bat.
- Ikasitakoaren eta lortutako gaitasunen egiaztagiria.

- Curriculuma:
- Oinarrizko ikaskuntzen zikloa (16-18)
  - komunikazioa,
  - autonomia pertsonala
  - gizarte-trebetasunak eta gizarteratzea
  - lanerako orientabidea
- Berariazko ikaskuntzen zikloa (18-20)
  - oinarrizko prestakuntza,
  - lanerako orientabidea eta tutoretza-orientabidea
  - lanbide-izaerako berariazko ikaskuntzak
  - jarduera osagarriak

- BHIetan eta HBIetan.
- Gehienez ere buruko atzerapena duten 10 ikasle
- Asteko 30 ikastordu
- Arloak elkarbana ditzakete (besteak beste)
  - Gorputz-hezkuntza,
  - Plastika- eta ikus-hezkuntza,
  - Musika,
  - Teknologia
  - Aukerakoak

## GELA EGONKORRAK

- ✐ Lehen eta Bigarren Hezkuntzan
- ✐ Salbuespen gisa Haur Hezkuntzan
- ✐ Curriculuma:
  1. Gelako Curriculum Proiektua
     - Ped. Ber. Lurralde Burutzak onartua.
     - TMPak adierazitakoa.
     - Ikuskaritza Teknikoak adierazitakoa.
     - Ikasle bakoitzaren CEI izango da.
  2. Lan-plan indibiduala.

- ✐ Gehienez ere autismoa, buruko atzerapen larria edo bestelako garapenaren nahaste orokorrak dituzten 5 ikasle.
- ✐ Eskolatze-proposamena: TMP.
- ✐ Langileak
  - Lehen Hezkuntza: PT 1eta lag.
  - Bigarren Hezkuntza: 2 PT eta lag.

## OSPITALEKO EDO ETXEKO ESKOLA-ARRETA

- Arretaren helburuak
- Ospitaleko eta etxeko arreta-zentroa.
  - lurraldeko bana,
  - langile ibiltariak,
  - ikastetxe arruntarekiko koordinazioa,
  - TMPari jakinaraztea
- Curriculuma:
  1. Hezkuntza-plana
  2. Curriculum-plana
  3. Lan-plan indibiduala

### Etxeko eskola-laguntzarako prozedura

**Legezko ordezkariak**
- Eskaera
- Medikuaren egiaztagiria edo txostena

↓

**Ikastetxeko Zuzendaritza**
- Aukerei buruzko txostena
- Ikuskaritza Teknikoak medikuaren txostenari oniritzia ematea.

↓

**Ospitaleko eta etxeko eskola-arretarako zentroa**
- Arreta eskaintzea
- Langileak eskatzea

↓

**Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutza**

## HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEAK

✎ Ikaslearen matrikulazioa eta onartzea:
- Gainerako ikastetxeetarako ezarritako aldietan
- Ebaluazio eta txosten psikopedagogikoaren ondoren
- Erabaki hori aldizka berrikusiko da
- TMPek HBIetan eskolatzea hain mugatua ez den beste batean ezin denean erantzuna eman bakarrik proposatuko dute.
- Ordezkaritzak ikastetxe horiekin koordinatuko dira ikaslearen jarraipena egiteko.

✎ Egun-zatiz eskolatzea
- Jatorrizko ikastetxean matrikulatzea
- Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzak baimentzea.
- Txosten psikopedagogikoa
- TMP HBIaren talde teknikoarekin koordinatuko da.

✎ Ikastetxearen Curriculum Proiektua:
- Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak baimendutakoa.
- TMPak adierazitakoa.
- Ikuskaritzak adierazitakoa.

✎ Ikaslearen lan-plan indibiduala

✎ HBIek DBH eskain dezakete.
- Aldia malgutuz
- Curriculumak egokituz
- Titulazio-baldintzak betetzen dituzten irakasleekin.

✐ Helburua:

- diagnostiko psikopedagogikoa egitea,
- eskolatze-proposamena egitea,
- hezkuntza-premia bereziko ikasleen jarraipena egitea,
- irakasleak eta laguntza-langileak aholkatzea eta orientatzea.

✐ Bi dimentsio::

- **orokorra:** hezkuntza-premia bereziko ikasleak hautematearekin, diagnostiko psikopedagogikoa egitearekin eta jarraipenarekin, baita irakasleen eta laguntza-langileen aholkularitzarekin ere, zerikusia duten jarduketen-multzoa.

- **espezialista:** Izaera multiprofesional eta osagarri batetik koalifikazio handiagoarekin jardutea ahalbidetzen duten berariazko hezkuntza-premia berezien multzoarekin lotutako informazioa, diagnostikoa eta aholkularitza eskaintzea.

✐ PATaren aholkulariekiko koordiazioan dihardute, berorren zuzendaritzapena eta sailaren jarraibideei eta lehentasunei jarraituz.

**TALDE MULTIPROFESIONALAK**

Laguntza-zerbitzuetan parte hartzetik eratortzen diren funtzioez gain honakoak dituzte hezkuntza-premia bereziko ikasleei dagokienean:

1. Testuinguruan txertatutako ebaluazioari dagokionean **irakasleei aholkularitza eskaintzea,** curriculum-egokitzapenak errazteko.
2. **Diagnostikoa, ebaluazio psikopedagogikoa eta eskolatze-proposamena**, baita ikastetxeko irakasleekiko lankidetzan baliabideen horniduraren proposamena ere, egitea.
3. **Multiprofesionalki** gainerako TMParekin batera hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak **aztertzea,** honakoa definitzeko: arreta, giza baliabideen eta baliabide materialen antolamendua, orientazioak eta jarraipenak.
4. **Irakasleei orientabidea** eskaintzea hezkuntza-programazioari eta gelaren antolamenduari dagokienean.
5. Ikastetxeko z**uzendaritza-taldeari eta klaustroari aholkuak ematea** eta **irakasle-taldeari orientabidea eskaintzea,** bereziki irakasle aholkulari, orientatzaile eta tutoreei, ikuspegi integratzaile batetik berariazko baliabideak erabiltzeari dagokionean.
6. Familiei eskolatze-proposamenaren inguruko berariazko alderdiei buruzko **informazioa eta orientabidea eskaintzea.**
7. Gainerako **komunitate-eragileekin** koordinatzea eta lankidetzan aritzea.
8. Beren ardurako **programaren berezko jarduerak** garatzea.
9. Sailak eskatutako **gainerako funtzioak** gauzatzea.

T A L D E   M U L T I P R F E S I O N A L A

| PROGRAMAK | JARDUKETA-EREMUA |
|---|---|
| **Irakasgaitasunaren garapena:** | Ikaskuntzarako zailtasun larriak, buruko atzerapena dituzten ikasleak eta goi-mailako gaitasunak dituzten ikasleen garapenerako programak. Hezkuntza-garapenerako curriculumerako sarbiderako bitarteko teknikoak behar dituzten mugimen-urritasuna duen ikasleen erantzuna ere hartzen da barne. |
| **Garapenaren nahaste orokorrak** | Autismoa eta garapenaren bestelako nahaste orokorrak, buruko atzerapen larria eta sakona dutenak, eta nortasunaren nahaste larriak dituztenak. |
| **Gizarte-egokitzapenaren garapena** | Eskola- eta gizarte-moldagabeziako egoerak, portaeraren arazo larriak, marjinazio-egoeran dauden kultur eta etnia-gutxiengoak, eta oro har eskola-aberastasunerako eta aldekoak ez diren egoeretako desberdintasunak konpentsatzeko hezkuntza-eskuhartzeak. Ospitaleko eta etxeko eskolatzea ere hartzen dira barne. |
| **Entzumena eta Hizkuntza** | Hizkuntzaren garapenerako zailtasun larriak, komunikazio-arazoak, gortasuna eta entzumen-urritasuna eta ikusmen-urritasuna. |
| **Hezkuntza goiztiarreko programa** | Zerbitzu soziokomunitarioekin koordinatzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hautemate goiztarra, jarraipena eta eskolatze-aurreikuspena ahalbidetzeko eta familiei eta haur-eskoletako langileei ikasle horiek eskolatzeko aholkuak ematea. |
| **Helduarora bideratzeko programa** | Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan, Derrigorrezko Hezkuntzaren ondokoan, lan-munduratzeko egokitutako prestakuntzan, lan-mundura eta helduarora iragaiteko prozesuetan integratzea. Helduen Hezkuntza ere hartzen da barne. |


LANGILE IBILTARIAK
Logopedak
Entzumen eta hizkuntzako P.
Fisioterapeutak
Lanerako terapeutak
Ikusmen-urrituen P.
HBko laguntzaileak
Bestelakoak...
Eskuhartze-eremua
IKASTETXEA
Koordinazioa
Zuzendaritza Taldea

LAGUNTZA LANGILEAK

| LANGILEAK | FUNTZIOAK |
| --- | --- |
| **Irakasle-aholkularia** | a.- **Tutoreari laguntzea** berariazko zailtasunak eta arrakastara daramaten estrategiak identifikatzen.<br>b.- Tutore-irakasleari **aholkuak ematea** eta berekin **lankidetzan aritzea** CEIak prestatzerakoan eta garatzerakoan.<br>c.- **Gelan eskuhartzea**, tutorearekin batera eta harekin koordinatuaz.<br>d.- Tutore-irakasleari **aholkuak ematea** eta harekin **lankidetzan aritzea etengabeko ebaluazioan**, gizabanakoaren nahiz hezkuntza-ingurunearen ebaluazioan.<br>e.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin **banaka esku hartzea**, ingurune arruntetan, elkarbanatuetan eta berariazkoetan.<br>f.- Tutoretza-ekintzari eta aniztasunarekiko eta hezkuntza-premia bereziekiko arretari buruzko berrikuntza- eta prestakuntza- |
| **BHIko irakasle orientatzailea** | a.- Oro har ikasleen **aniztasunarekiko arretarako** jarduerak eta bereziki hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen curriculum-aniztasuna eta curriculum-egokitzapenak **koordinatzea** eta horien inguruko **aholkularitza eskaintzea**.<br>b.- Ikaskuntza-arazoak prebenitzeko eta hautemateko jarduerei, hezkuntza indartzeko jarduerei eta metodologiaren, antolamenduaren eta ebaluazioaren inguruko alderdiei buruzko **aholkuak eskaintzea**.<br>c.- Curriculum-aniztasunerako eta curriculum-egokitzapenetarako prozesuei begira **aholkuak ematea eta ebaluazio psikopedagogikoetan parte hartzea**.<br>d.- Irakasleei beren irakas-funtziotik eratorritako alderdiei buruzko **aholkuak eskaintzea** ikastetxean aniztasuna lantzeari dagokionean.<br>e.- Bigarren Hezkuntzako ikastetxean TMP eta kanpoko |
| **Pedagogia terapeutikoko irakasleak** | a.- **Banaka** edo talde txikitan **esku hartzea**, gela arruntean zein laguntza-gelan, CEIak edo banakako lan-planak garatuz.<br>b.- Irakasle tutore, aholkulari eta orientatzaileekin eta TMParekin **lankidetzan aritzea curriculumaren izaera ebaluatzerakoan**.<br>c.- Irakasle tutore, aholkulari eta orientatzaileekin **lankidetzan aritzea CEI**ak prestatzerakoan eta garatzerakoan eta material didaktikoak prestatzerakoan.<br>d.- Tutore-irakaslearekin **lankidetzan aritzea familiekiko harremanetan**.<br>e.- Irakasle tutore, aholkulari eta orientatzaileekin eta TMParekin **lankidetzan aritzea** ikasleen aniztasunetik eratorritako egoerei **erantzuterakoan**, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen erantzunari lehentasuna emanez. |
| **Entzumen eta hizkuntzako irakaslea** | **aritzea**.<br>c.- Irakasleekin, logopedarekin eta TMParekin **koordinatzea** hasierako ebaluaziorako, diseinuaren garapenerako eta berriz hezteko planaren jarraipenerako.<br>d.- Dagokion **curriculum-egokitzapena** egiteko norabideak prestatzerakoan **lankidetzan aritzea** TMParekin.<br>e.- Hizkuntza berriz ikasteko programak **prestatzea, garatzea eta gauzatzea.** |

**AGINDUA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura.**

Izan ere, ikasleen hezkuntza-premiei erantzuteko curriculum-egokitzapenak egin daitezkeela planteatzen da nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen abuztuaren 11ko 236/1992 Dekretuaren 13. atalean, nahiz abuztuko 11ko 237/1992 Dekretuaren 14. eta 15. Ataletan.

Bestetik, ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Mailako Hezkuntzaren curriculuma ezartzen du. Eta horren 19.1 atalaren arabera, helburu, edukin eta ebaluatzeko irizpideetatik nabarmen urrutiratzen diren curriculum-egokitzapenak egin ahalko dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat. Atal beraren 4. atalean seinalatzen da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkerta sailburuak aginduaren bidez erabakiko duela zeinek daukan curriculum-egokitzapenak egiteko eskumena.

Apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuak Batxilergoa, Lanbide Heziketako irakaskuntzak eta haien tituluei buruzko jarraibideak ezartzen ditu eta horren ezarpena erabakitzen du. Horren laugarren xedapen gehigarrian honakoa ezartzen da: edozein modutan ere, aipatutako Dekretuaren 5. atalean ezarritako gaitasunak eta tilulu bakoitzeko ezarritako oinarrizko eskumenak errespetatuz, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek -baldin eta Bigarren Mailako Hezkuntzan graduatuta badaude- Batxilergoa eta Maila Ertaineko Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak ikas ditzakete. Orobat, ikastetxeek curriculuma norbanakoari egokitu ahalko diote, gaia berariaz arautzen duten xedapenen arabera. Gainera, baldin eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek curriculumaren norbanako egokitzapen nabari bati jarraitu badiote, hori kontuan hartuko da ebaluatzerakoan, aipatutako curriculum-egokitzapenean ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

1998ko ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak eskola ulergarria eta integratzaile baten barruan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-erantzuna ordenatzen du. Dekretu horren 8. atalean, ezartzen da ikastetxeak proposa ahalko duela ikasleen norbanakoen premietara egokitutako curriculuma aprobatzea, beti ere ikasle horiek -beren ezaugarriak direla eta- laguntza berezitua behar badute eta ikastetxearen autonomia pedagogitik at dauden kasuetan.

Aipatutako dekretuetan curriculum-egokitzapena da ikasleen premiak asetzeko curriculum komunaren elementuetan egiten den edozein doiketa edo aldaketa. Aipatzen diren egokitzapenek eragin dezakete, alde batetik, curriculumean sartzeko elementuetan -elementu pertsonal eta materialetan eta haien antolakuntzan- eta, bestetik, izan daitezke curriculumen oinarrizko elementuen egokitzapenak, esaterako, ebaluazioa, metodologia-jarduerak, edukiak eta helburuak.

Era berean, hezkuntza-sistemaren etapak direla eta, honakoa seinalatzen da: curriculuma ebaluatzeko helburu, edukin eta irizpideetatik nabarmen urrutiratzen diren curriculum-egokitzapenak egin ahalko dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat. Honelakoak izango dira egokitzapenak: hezkuntza-helburuak egokitzapena, edukin jakin batzuek deuseztea edo sartzea, eta hortik ondorioztatzen den ebaluatzeko irizpideak aldatzea, baita curriculum-arloetako hezkuntza-jarduerak eta curriculumean sartzeko elementuak ere. Curriculum-egokitzapen nabaria eta beharrezko bitartekarien proposamena eta esleipena egin aurretik, ikastetxearen eskola-bilgunean diharduten laguntza-zerbitzuen onespeneko txostena egin beharko da.

Era berean, definitzen da araudien arabera ezarriko dela nori dagokion baimentzea curriculum-egokitzapenak eta horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura ezarriko da. Orobat, gaitasun handiak dituzten ikasleentzako curriculum-egokitzapenak egiteari, garatzeari eta ebaluatzeari buruz arautuko da.

Aipatutako dekretuetan seinalatzen den bezala, curriculum-egokitzapenen bidez saiatuko da ikasleek haien ahalmenen arabera etaparen gaitasun orokorrak lor ditzaten, beti ere taldean ahalik eta integratuen egon daitezen saiatzen. Gainera, egokitzapenak egin baino lehen, beti egingo da testuinguruan sartutako ikaslearen hezkuntza-premiaren ebaluazioa, berariazko curriculum-proposamen bat barne.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 11ko 236/1992 Dekretuaren Lehen Azken Xedapenak, ekaineko 21eko 213/1994 Dekretuaren Azken Lehen Xedapenak eta apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuaren Laugarren Xedapen Gehigarriak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari ematen dioten eskumena dela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzan, Lehen Mailako Hezkuntzan, Bigarren Mailako Hezkuntzan, Batxilergoetan, Maila Ertaineko Lanbide Heziketa Berezitutan eta Goiko Mailakoan curriculum-gokitzapenak egiteko, garatzeko eta aprobatzeko alderdiak ordenatzeko, hurrengo hau

XEDATU DUT:

XEDAPEN OROKORRAK

**1. atala.-** Eremua.
1. Hona hemen Agindu honen aplikazio-eremua: Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan ezarritako ikasketak (araubide orokorretakoak zein bereziak) ematen dituzten ikastetxe ez-unibertsitario guztietan, publikoetan zein pribatuetan, beti ere baldin eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren kudeaketa-lurraldearen barruan badaude.

**2. atala**.- Helburua.
Agindu honen helburua da curriculumean sartzeko egokitzapenak arautzea, baita curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak ere. Azken horiek izango dira curriculumean sartzeko elementuetan edo curriculumaren derrigorrezko elementuetan egin behar diren egokitzapenak, ikasketak ikasleen hezkuntza-premia berezietara egokitzeko; beti ere LOGSE eta LEPV legeetan ikastetxeei aitortzen zaien autonomia pedagokioaren edo kudeatze-autonomiatik kanpo daudenean.

Curriculumaren norbanako egokitzapen nabariek arlo, gai edo modulu bakarrean zein hainbatetan eragin dezakete, baita ziklo edo etapa osoan ere.

**3. atala.-** Aurreko ebaluazioa.
Edozein curriculum-egokitzapena egin baino lehen, ikaslea eskolarizatuta dagoen hezkuntza-testuingurua ebaluatu behar da. Curriculumaren egokitzapen nabaria edo curriculumean sartzekoa beharrezkoak izango dira aniztasuna kontuan hartzeko ohiko neurriak nahikoak ez direnean, hezkuntza-neurri osagarriak edo hezkuntza-indartze neurriak kasu.

**4. atala**.- Egitea eta berrikustea.
1.- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak ikaslea eskolarizatuta dagoen hezkuntza-zikloaren hasieran egingo dira. Egokitzapen horiek definituko dute oro har ikaslearen eskolarizatzea, bere curriculumaren plangintza orokorra, hezkuntza-erantzunaren antolakuntza eta beharrezkoak diren aparteko baliabideak.

2.- Aparteko hezkuntza-egoerak direla eta, curriculum-egokitzapena, ziklo baten bigarren ikastarorako egiten bada, ikasturte horretarako bakarrik egingo da.

3.- Egindako curriculum-egokitzapena epe laburreko programazioetan gauzatuko da. Programazioetan ezarriko dira helburuak, edukiak, jarduerak, ebaluatzeko irizpideak eta metodologia-estrategia zehatzak, ikasgelako programazioaren garapenari lotuak.

4.- Etapetako eta hezkuntza-zikloetako ikastaro bakoitza amaitzean, tutoreak, horretan sartutako irakasleekin batera, ikastetxeko irakasle aholkulariak edo ikastetxeko orientatzaileak eta talde multiprofesionalak curriculum-egokitzapenaren garapena aztertuko dute, eta ikaslea hurrengo kurtsoan edo zikloan egoki eskolariza dadin, beharrezko aldaketak eta bideraketak proposatuko dituzte (8. eranskina).

**5. atala**.- Kontserbatzea eta zaintzea.
1.- Curriculum-egokitzapenaren kopia artxibatuta egongo da nahiz ikastetxean, nahiz talde multiprofesionalean.

2.- Ikaslearen espediente pertsonalean sartuko dira: agindu honen 10. eta 16. ataletan jasotzen diren curriculuma norbanako egokitzapen nabarien dokumentuaren atalak, egokitzapen-baimenaren jakinarazpena, eta, hala badagokio, talde multiprofesionalak hezkuntzan eskuhartzeko egindako orienbabideak. Egokitzapenaren berri emango da "Datu medikoak eta psikopedagogiko nabarmenak" izeneko atalean. Era berean, islatuko dira ebaluazio-agirietan, eta Oinarrizko Hezkuntzaren Eskolaketa Liburuan, edo Batxilergoko edo Lanbide Heziketako kalifikazio-liburuan "CNE" siglekin (Curriculumaren norbanako egokitzapena), egokitzapen-neurriei dagokien laukitxoetan.

3.- Isilmandatu-printzipioak lehentasuna izan behar du honako Agindu honetan helburu diren curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak egitean sortzen diren diagnosi-informazioa eta datu pertsonalak, familiarrak eta gizartekoak erabiltzean.

CURRICULUMEAN SARTZEKO EGOKITZAPENAK

**6. atala**.- Curriculumean sartzeko egokitzapenak. Kontzeptua.

Ikaslearen hezkunza-premia bereziak sortu badira hutsune iraunkor edo behin-behinekoengatik, eta horien ondorioz ikasleak ezin baditu erabili sisteman eta hezkuntza-jardunean sartzeko ohiko baliabideak, ikastetxeak proposatuko du curriculumaren norbanako egokitzapena. Horrek ikaslearen eskura jarriko ditu sarbide-neurriak, baita ikasi ahal izateko beharrezko laguntza teknikoak edo pertsonalak ere.

**7. atala.-** Curriculumean sartzeko baliabideak eskatzeko prozedura.

1. Ikasturtea hasi baino lehen, baldin eta ikasleak curriculumean sartzeko egokitzapen gisa baliabide teknikoak edo materialak edo berezitutako profesional bat (logopeda, fisioterapeuta, hezkuntza bereziko laguntzaile, eta abar) eskuhartu behar badu, laguntza hori aprobatzeko prozedura honakoa izango da:

a) Irakasle tutoreak, ikastetxearen orientatzeko eta laguntzeko zerbitzuen laguntzarekin (orientatzailea, irakasle aholkularia, laguntza-irakaslea) eta, hala badagokio, PATeko talde multiprofesionalaren aholkuarekin, ikaslearen hezkuntza-premia bereziak definituko ditu, baita curriculumean sartzeko egokitzapenaren proposamena ere.

b) Ikastetxeko zuzendariak PATera bidaliko du curriculumean sartzeko egokitzapenaren proposamena (1. eta 3. eranskinak).

c) Talde multiprofesionalak txosten bat egingo du. Bertan agerian utziko du egindako egokitzapenarekin bat datorrela, edo aldatzekoak diren aldeak proposatuko. Gainera, diagnosi-informazio kodifikatua eta hezkuntza-premia berezien laburpen bat emango du, eta beharrezkoak jotzen dituen baliabide materialak edota pertsonalak propoposatuko ditu (6. eranskina).

d) PATeko zuzendariak curriculumean sartzeko egokitzapenaren kopia bat, talde multiprofesionalaren txostenarekin batera, bidaliko du Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza Orokorrera behar diren baliabideak lortzeko beharrezko erabakiak har ditzan.

e) Pedagoki Berrikuntzarako Zuzendaritzak baliabideak eskatzeko epeak ezarriko ditu horiek behar bezala planifikatzea eta lortzea errazteko.

2. Eskolarizatu baino lehen, hezkuntza-premia bereziak antzemanez gero, aprobatzeko prozedura c), d), eta e) ataletara mugatuko da.

CURRICULUMAREN NORBANAKO EGOKITZAPEN NABARIAK HAUR, LEHEN MAILAKO, ETA DERRIGORREZKO BIGARREN MAILAKO HEZKUNTZAN

**8. atala** - Curriculumaren norbanako egokitzapen nabaria. Kontzeptua.

1.- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabaria aparteko neurria da; bere bitartez, curriculumaren derrigorrezko elementuetan aldaketa garrantzitsuak sartzen dira, arloko, zikloko edo etapako helburuen zati garrantzitsu bat egokitzen edo deusesten.

2.- Neurri hori aplikatuko da bakarrik nahikoak ez direnean zikloko curriculuma egokitzeko ohiko neurri guztiak, arloko edo gaiko programazioa, hezkuntza-indartzea, kurtsoan edo zikloan urte bat baino gehiago egotea, eta abar.

3.- Haur Hezkuntzan eta Lehen Mailako Hezkuntzan curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak izango dira curriculumaren erreferentea ikaslea eskolarizatuta dagoen bestelako ziklo edo etapa batean dagoenean.

4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan curriculumaren norbanako egokitzapenak izango dira curriculum-erreferentea ikaslea eskolarizatua dagoen bestalako etapan dagoenean, beti ere eskola-ziklo bat baino handiagoko curriculum-aldea badago.

**9. atala**.- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabari globalak, ziklokoak eta arlokoak.

1.- Zikloko curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak dira curriculum-arloetan oinarrizko eta funtsezkotzat jotzen diren helburu eta edukin orokorrak deustetzen dituztenak. Horren ondorioz, funtsean aldatzen dira helburu orokorrak eta ebaluatzeko irizpideak.

2.- Arloko curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak dira helburuak, edukinak eta irizpideak arlo batean edo hainbat arlo jakinetan aldatzen dituztenak, bide batez etaparen helburu berdinak mantenduz. Horien helburua da ikasleek etapa amaitzean dagokien titulazioa lor dezaten.

3.- Minusbaliotasun fisiko edo sentsoriala egonez gero, arloko curriculumaren egokitzapen nabariak gertatuko dira ere berariazko curriculumaren bitartez gizartera egokitzeko trebetasun jakin batzuk garatzean, premia bereziak dituzten ikasleek gizartean normal jarduteko.

**10. atala**.- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien edukia.

1.- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabari guztiek, gutxienez, hurrengo atal hauek eduki beharko dituzte:

- Curriculuma egokitzen zaien ikasleen datuak, baita inplikatutako profesionalena ere, ikaslea eskolarizatuta dagoen ikasturtea zehaztuz (1. eranskina).
- Ziklo edo etapa osoan zehar era nabarian aldatzen diren esperientzia-arloak, baita bere curriculum-erreferentzia ere (2. eranskina).
- Egokitzen diren curriculum-arloei dagokienez, ikasleak gaur egun duen gaitasun-maila (3. eranskina).
- Ikaslearen hezkuntza-premia berezien definizioa (3. eranskina).
- Egokitutako curriculuma; egokitzen diren esperientzia-arloak zehaztuko ditu, baita zikloan zehar garatzekoak diren helburuak eta edukiak ere.(4. eranskina).
- Erabili behar diren uneak, formak eta ebaluatzeko irizpideak, egokitze-jarraipenaren planifikazioa barne (5. eranskina).

2.- Kasu batzuetan autismotik, buruko atzerapen gogorratik eta garapenaren bestalako arazoetatik eratorritako hezkuntza-premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleak ohiko ikastetxetan, ikasgela iraunkorretan eta ikastetxe berezietan eskolarizatuta daude. Horrelakoetan, berezitutako curriculuma izan ahalko da dagokien curriculuma norbanakoari egokitzapenaren erreferentzia-eremua eta aukera egongo da curriculum hori etapari dagozkion arloen inguruan antolatzeko.

**11. atala** - Izapidatzea.

1.- Curriculuma norbanakoari egokitze nabariek Haur Hezkuntzan, Lehen Mailako Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan honako prozedura honi jarraituko diote onartuak izateko:

a) Irakasle tutoreak ikaslearen hezkuntza-premia bereziak definituko ditu, ikastetxeak dauzkan zerbitzuen laguntzaz (orientatzailea, irakasle aholkularia, laguntza-irakaslea) orientatzeko eta laguntzeko eta, hala badagokio, PATeko talde multiprofesionalaren aholkuarekin. Horretaz gain, curriculum-egokitzapena egingo du 10. atalean ezarritako xehetasunak jasoz, eta ikaslearen aitak, amak edo legezko ordezkariak proposamena ezagutzen duela agerian utziz.

Proposatutako curriculumaren norbanako egokitzapen nabaria erabiliko da eskola-ikastaroa eta dagozkion unitate didaktikoak programatzeko; egokitzapena aldatuko da horrela erabakitzen badute talde multiprofesionalak zein Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak.

b) Ikastetxeko zuzendariak PATera bidaliko du curriculumaren egokitzapenaren proposamena.

c) Talde multiprofesionalak txosten bat egingo du; bertan agertuko da edo egindako egokitzapenarekin ados dagoela edo aldatzeko proposatzen dituen alderdiak, kodetutako diagnosi-informazioa barne, eta, hala behar izanez gero, beharrezko baliabide materialak edota pertsonalak proposatuko ditu (6. eranskina).

d) PATeko zuzendariak curriculum-egokitzapenaren kopia bat bidaliko du, talde multiprofesionalaren txostenarekin batera, dagokion bilguneko Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikara. Horrek, prozeduraren alde legalak ondo daudela konprobatu ondoren, ontzat emango du, edo, bestela, interesatutako zentroei eta talde multiprofesionalari jakinaraziko dizkie aldatzekoak diren alderdiak (7. eranskina).

e) Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak Pedagogi Berrikuntzarako Lurraldeko Zuzendaritzara bidaliko du Haur Hezkuntzako, Lehen Mailako Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien zerrenda, beti ere horiek badute talde multiprofesionalak ontzat emandako txostena eta Ikuskaritzaren ontzat emana. Zerrendari agindu honen 6. eta 7. eranskinen kopia erantsiko diote (Talde multiprofesionalaren eta Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren txostena). Curriculum-egokitzapen horiek une horretatik aurera behin-behingoz onartutzat emango dira.

f) Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Zuzendaritzak idazki baten bidez jakinaraziko die ikastetxeko arduradunei Talde Multiprofesionalak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak ontzat eman dituztela curriculum-egokitzapenak eta, horrenbestez, onartutzat ematen direla. Ikastetxeko arduradunek idatziz jakinaraziko diete (Pedagogi Berrikuntzarako Lurraldeko Zuzendaritzaren jakinarazpenaren kopia eta guzti) ikasleen gurasoei edo euren legezko ordezkariei curriculumaren norbanako egokitzapen nabaria behar bezala baimenduta izan dela.

g). Jakinarazpen hori agerian geldituko da ikaslearen espedientetan eta Eskolaketa-Liburuan.

e) Pedagogi Berrikuntzarako Lurraldeko Zuzendaritzak Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzara bidaliko du aprobatutako curriculum-egokitzapenen zerrenda, ezarriko den informazioa barne.

2.- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak aprobatzeko prozesuan parte hartzen duen estamentu bakoitzak aurkeztu behar dituen epeak ikasturtearen hasierako jarraibideetan ezarriko dira.

**12. atala** - Derrigorrezko eskolatzean, salbuespenik ez.
Haur Hezkuntzan, Lehen Mailako Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Mailako Hezkuntzan ez da egongo hezkuntza-premia berezien araberako currriculum-arloetako inolako salbuespenik. Edozein arrazoia dela-eta, (minusbaliotasun fisiko edo sentsorial garrantzitsua, eskolarizatze eza, eta abar...) ikasle batek curriculumaren area, gaia edo edukin-multzoko funtsezko alderdiak egiteko ezintasun objetiboa azaltzen badu, curriculumaren norbanako egokitzapen nabari bat egingo da, agindu honen 9., 10. eta 11. ataletan ezarritakoaren arabera.

CURRICULUMAREN NORBANAKO EGOKITZAPEN NABARIAK ETA SALBUESPENAK DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDOKOAN, GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAN ETA HELDUENTZAKO HEZKUNTZAN

**13. atala** - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan litezkeen egokitzapenak.
Derrigorrezko Bigarren Mailako Hezkuntzako titulua lortu duten eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko Bigarren Mailako Hezkuntza ikasi nahi badute, curriculumean sartzeko egokitzapenak egiteaz gain, curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak egin ahalko dira Batxilergoko ikasgai batzuetan edo modulu profesionalen batean. Edozein kasutan ere, Batxilergoaren edo Lanbide Heziketako heziketa-zikloaren helburu orokorrak mantenduko dira. Batxilergoan soilik egin ahalko dira kasu jakin batzuetan aldi bateko salbuespenak edo salbuespen osoak. Egokitzapen horiek guztiek beti eduki beharko dute Pedagogi Berrikuntzako Zuzendaritzaren edo Lanbide Heziketako Zuzendaritzaren ageriko ontzat emana.

**14. atala** - Alde bateko salbuespena edo salbuespen osoa Batxilergoan.
Entzuteko, ikusteko edo mugitzeko arazo larriak dituzten ikasleentzat bakarrik egingo da Batxilergoko ikasgai jakin batzuen salbuespen osoa edo alde batekoa, baldin eta behar bezala egiaztatutako aparteko baldintzak direla eta horrela jardutea egokia bada.

**15. atala**.- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak Batxilergoan eta Maila Ertainetako eta Goi Mailako heziketa-zikloetan.
Derrigortasunezkoaren Ondorengo Hezkuntzan Batxilergoko ikasgaien edo Prestakuntza Zikloko modulu profesionalen edukiak aldatzen dituztenak dira curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak, helburu eta ebaluatzeko irizpide batzuetan eragin dezaketenak. Dena den, ikasgai bakoitzari dagozkion gaitasunak lortzeko maila nahikoa duela bermatu behar dute, Batxilergoko helburu orokorrak erreferentziatzat hartuta, edo modulu profesionalen kasuan tituluari dagokion gaitasun orokorra lortzeko oinarrizko gaitasun profesionalak bermatu behar dituzte.

**16. atala**.- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien edukia Batxilergoan eta heziketa-zikloetan, baita Batxilergoko salbuespenei buruzko dokumentazioa ere.
Curriculuma egokitzeko neurriak eta salbuespenak izapidatzeko dokumentazioak hurrengo elementu hauek jaso behar ditu:

1.- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabaria:
- Curriculumaren egokitzapena egiten zaion den ikaslearen datuak (1. eranskina).
- Ikastaroan edo zikloan zehar era nabarian aldatzen diren gaiak edo moduluak (2. eranskina).
- Ikasleak gaur egun duen gaitasun-maila, egokitzekoak diren ikasgaiekin edo curriculum-moduluekin lotuta (3. eranskina).
- Ikaslearen hezkuntza-premia berezien definizioa (3. eranskina).
- Proposatzen den curriculum egokitua, helburu orokorrak eta etapan zehar garatzekoak diren edukiak zehaztuz, egokitzekoa den gaian edo modulu profesionalean, baita horiek ebaluatzeko irizpideak ere (4. eta 5. eranskinak).

2.- Salbuespena Batxilergoan:
- Salbuespena eskatzen duen ikaslearen datuak, eskolarizatuta dagoen ikasturtea zehaztuta (1. erankina).
- Gurasoek edo tutoreek egindako salbuespen-eskaera edo, horrela badagokio, ikasleek beraiek egindakoa, baldin eta adinez nagusiak baldin badira.
- Ikastetxeak egiten duen proposamena, eskaeraren komenigarritasunari buruzko txostena barne.
- Ikaslearen minusbaliotasunari buruzko txosten medikoa, eskaera justifikatzen duena.

**17. atala**.- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak eta salbuespenak baimentzeko prozedura Batxilergoan eta heziketa-zikloetan.

1.- Batxilergoan eta Maila Ertaineko zein Goi Mailako heziketa-zikloetan egiten diren curriculumaren norbanako egokitzapen nabariek honako prozedura honi jarraituko diote onartuak izan ahal izateko:

a) Irakasle-tutoreak definituko ditu ikasleen hezkuntza-premia bereziak, beti ere ikastetxeak dituen orientatzeko eta laguntzeko zerbitzuen, eta, behar izanez gero, dagokion PATeko talde multiprofesionalaren aholkua jaso ondoren. Horretaz gain, curriculum-egokitzapena ere egingo du, 16. ataleko atalak jasoz eta proposamenaren berri duela egiaztatzen duen agiria ere bai. Agiri hori ikaslearena berarena izango da, adinez nagusia bada, edo, bestela, bere legezko ordezkoarena.
Proposatutako curriculumaren norbanako egokitzapen nabaria egin den unetik erabiliko da ikasturtea batxilergoan edo heziketa-zikloa eta dagozkion gai eta prestakuntza-moduluak programatzeko. Egokitzapena aldatu egingo da talde multiprofesionalak eta Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak horrela eskatuz gero.

b) Ikastetxeko zuzendariak PATera bidaliko du curriculuma egokitzeko proposamena.

c) Talde multiprofesionalak txosten bat egingo du, egindako egokitzapenarekin bat datorrela agerian uzteko, edo bere ustez aldatu behar diren elementuak proposatzeko; hori guztia kodifikatutako diagnosi-informazioa barne eta agerian utziz, beharrezkotzat joz gero, beharrezko baliabide materialak edota pertsonalak (6. eranskina).

d) PATeko zuzendariak dagokion bilduneko Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikora bidaliko du curriculumaren egokitzapenaren kopia bat, talde mutiprofesionalaren txostenarekin batera. Ikuskaritzak prozeduraren lege-alderdiak konprobatu eta gero, ontzat emango du, eta, hala badagokio, interesa duten ikastetxeei eta Talde Multiprofesionalari aldatzekoak diren aldeak jakinaraziko dizkie (7. eranskina).

e) Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak talde multiprofesionalaren aldeko txostena eta Pedagogi Berrikuntzarako Lurraldeko Zuzendaritzaren ontzat emana duten curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak bidaliko ditu, Batxilergoari dagozkionak Berrikuntza Pedagokikoko Zuzendaritzara izapidetzeko, eta Maila Ertaineko eta Goi Mailako Ziklokoak, berriz, Lanbide Heziketako Zuzendaritzara. Curriculum-egokitzapen horiek une horretatik aurrera behin-behingoz gainditutzat emango dira:

f) Pedagogi Berrikuntzarako eta Lanbide Heziketako Zuzendaritzek erabakiko dute horiek onartzea edo bertan behera uztea. Erabakitakoa ikastetxetara bidaliko da eta horien zuzendaritzak idatziz jakinaraziko die ikasleen legezko ordezkariei, edo ikasleei beraiei, adinez nagusia badira.

g) Ebazpena agerian geldituko da ikaslearen espedientean eta eskolaketa-liburuan.

2.- Batxilergoan salbuespenak eskatzeko prozedura:

a) Legezko ordezkariek edo interesdunak berak -adinez handia bada- eskatuko dute salbuespena, ikastetxeko zuzendaritzaren laguntzaren bitartez, eta irakasle tutorearen eta ikastetxearen orientatzeko zerbitzuen aholkua eta, hala badagokio, PATeko talde multiprofesionalaren laguntza jaso ondoren. Eskaera justifikatzeko, ikaslearen minusbaliotasunari buruzko txosten medikoa aurkeztuko dute.

b) Ikastetxeko zuzendariak Pedagogia Berrikuntzako Lurraldeko Buruzagitzara bidaliko du salbuespen-eskaera; eskatzen den dokumentazioari salbuespenaren komenigarritasunari buruzko txostena erantsiko dio.

c) Pedagogi Berrikuntzarako Lurraldeko Zuzendaritzak salbuespen hori buruzko txosten bat eskatuko dio talde multiprofesionalari, ikaslearen hezkuntza-premia berezien eta Hezkuntzak eskaeraren legaltasunari buruz egindako ikuskaritzaren arabera.

d) Pedagogi Berrikuntzarako Buruzagitzak Pedagogi Berrikuntzarako Lurraldeko Buruzagitzara izapidetuko du salbuespen-eskaera. Azken horrek, ebazpenaren bidez, baimenduko edo ukatu egingo du. Ebazpen hori ikastetxetara bidaliko da eta zuzendaritzak horren berri emango die ikasleen gurasoei, edo legezko ordezkariei, edo ikasleei beraiei, adinez nagusiak badira.

e) Ebazpen hori agerian geldituko da ikaslearen espedientean eta eskolaketa-liburuan.

3.- Estamentu partehartzaile bakoitzak curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak aprobatzeko prozesuan dokumentazioa aurkezteko dituen epeak, eta, hala badagokio, Batxilergoko salbuespenenak ezarriko dira ikasturte hasierako jarraibideetan.

Minusbaliotasun bat sortuz gero eta, ondorioz, Batxilergoko ikasgairen batean salbuespenen bat beharrezkoa izango balitz, prozesua hasiko litzateke hori gertatzen den unean bertan.

**18 atala**. Curriculumaren egokitzapenak helduen hezkuntzan.

Curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien edukiak eta helduen hezkuntzan onartzeko prozedura agindu honetako 10. eta 11. ataletan arabera arautuko dira.

## CURRICULUMAREN NORBANAKO EGOKITZAPEN NABARIAK DITUZTEN IKASLEEN EBALUAZIOA, PROMOZIOA ETA TITULAZIOA

**19. atala**- Ebaluazioa.

1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ebaluazioa norbanakoa, iraunkorra eta prestatzekoa izango da, ez-unibertsitarioa den hezkuntzaren etapa bakoitzean ikasleen ikaste-prozesuaren ebaluazioa arautzen duten aginduen izaera orokorraren arabera. Edozein modutan ere, ebaluazioa egingo da Hezkuntza Sailak aginduen bidez onartutako curriculum-egokitzapenetan ezarritako helburu, eduki eta ebaluatzeko irizpideen arabera. Agindu horien arabera, Haur eta Lehen Mailako hezkuntzan, globala izango da; Bigarren Mailako Hezkuntzan, berriz, integratzailea baina arloen eta gaien arabera berezituta; eta Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, ikasgaien edo moduluen arabera berezituta.

2. Ebaluazioaren emaitzak hona azalduko dira: ikaslea eskolarizatuta dagoen termino berdinetan eta bere etapan erabiltzen diren eskala berdinetan, eta eskolaketa-liburuan islatuko dira ezartzen den prozeduraren bidez.

3. Hasiera batean, ikasleari edo legezko ordezkariei emango zaion informazioa proposatzen den curriculum-egokitzapenaren dokumentua izango da. Gainera, informazioarekin eta familiekin lotutako guztia aplikatzekoa izango da. Informazio horrekin batera beti emango da ikasleak dagokion curriculum-egokitzapenean proposatutako helburuen arabera izan duen aurrrerapenari buruzko balorazio kualitatiboa.

**20. atala**.- Zikloa edo kurtsoa igarotzea

1. Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek zikloa edo kurtsoa igarotzea edo jarraitzea erabakiko da 1993ko maiatzaren 5eko Aginduaren 17. atalaren eta 1996ko uztailaren 16ko Erabakiaren III. kapituluaren arabera (lehena Lehen Mailako ebaluazioari buruzkoa da eta bigarrena, berriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ebaluazioari buruzkoa). Kontuan hartuta, curriculum-egokitzapenarekin ikasitako arloek, egokitzapenean ezarritako irizpideen arabera positiboki ebaluatuak izan badira, ohiko curiculumaren arabera positiboki ebaluatuek adina balio izango dutela.

2.- Erreferentzi-eremua bestelako etapa baten helburuak direnean, zikloa igarotzeko irizpideak amaitu beharko dira curriculumaren egokitzapenean bertan.

**21. atala**.- Bigarren Mailako Hezkuntzako graduatuaren titulua.

1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, arloko curriculumaren norbanako egokitzapen nabariekin egin badu eta etapa horretarako ezarritako helburuak lortu baditu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulua jasoko du eta, horri esker, Batxilergoan edo Maila Ertaineko Lanbide Prestakuntzan sartzeko aukera izango du.

2 - Irakasle-taldeak proposatuko ditu Bigarren Mailako Hezkuntzako graduatuaren titulua emateko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, beti ere ebaluazioa gainditu badute arlo guztietan curriculumaren norbanako egokitzapen nabarian ezarritako ebaluatzeko irizpideen arabera. Gainera, era berean, irakasle-taldeak berak

(beti ere bi herena behintzat ados egonda) proposatuko dituzte beste ikasle batzuk titulua emateko, uste badute 213/1994 Dekretuaren 4. atalean oro har ezarritako gaitasunak lortu dituztela, nahiz eta arlo batzuetan ebaluazio positiborik lortu ez. Eta ikasle horiei ezin zaizkie aplikatu 1996ko uztailaren 16ko Aginduaren 21. atalean ezarritako mugak. Agindu hori Derrigorrezko Bigarren Mailako Hezkuntzaren ikasleen ebaluazioari buruzkoa da.

3.- Edonolaz ere, ikasleak ikasketak amaituta, bere ikastetxeak dagokion agiria emango dio eta bertan agerian geldituko dira emandako ikasturteak, baita arlo eta ikasgaietan lortutako kalifikazioak ere; era berean, ikaslearen etorkizun akademikoari eta profesionalari buruz orientatzeko aholkua emango zaio. Horretarako beharrezko informazioa, ikasle bakoitzarentzat egokitzat ematen diren proposamenak barne, emango zaio, kontuan hartuta ikaslearen lehentasunak, baita gaitasunak era osatuago batez garatzen uzten dituzten hezkuntza-ibilbideak ere. Horren guztiaren helburua da ikasleak ikasketak era egokian eta errealistan hautatzea.

4.- Zikloko curriculuma egokitzapen nabari globala duen ikaslea bada, hau da, hezkuntzako etapako helburuak eta ebaluatzeko irizpideak era nabarian aldatzen bazaizkio, dagokion eskolaketa-agiria emango zaio.

**22. atala**.- Batxilergoa eta Lanbide Heziketa Bereziko titulua emateko proposamena, salbuespenak edo curriculumaren egokitzapen nabariak dituzten ikasleentzat.

1.- Entzuteko, ikusteko edo mugitzeko arazo larriak izateagatik Batxilergoa edo hori osatzen duten ikasgai batzuk salbuespenarekin edo curriculumaren norbanako egokitzapen nabariekin egiten dituzten ikasleek baldin eta bai horiek zein beste ikasgai guztiak gainditu badituzte, orduan proposatuko da horiei Batxilergoko titulua ematea.

2.- Maila Ertaineko edo Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasketak gainditu dituzten eta, era berean, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak proposatuko dira dagokien titulazioa emateko.

**23. atala**.- Salbuespenak agerian gelditzea dokumentazio akademikoan.

1.- Salbuespena agerian utziko da ikaslearen espediente akademikoan, "salbuetsita" hitza jarrita dagokion ikasgaiaren laukitxoan. Salbuespena ematen duen Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzaren ebazpenaren kopia bat erantsiko zaio aipatutako espedienteari.

2.- Batxilergoko Noten Liburuko "Iruzkinak" izeneko atalean, aurreko puntuan ezarritako eran jarriko da agerian eta dagokion dilijentzia beteko da ebazpen-dataren erreferentzia argia eginez. Ebaluazio-agirietan salbuespena utziko da agerian "SA" laburpenaren bidez.

3.- Unibertsitatera sartzeko probetan aurkezten diren ikasleen zerrenda zehatzean salbuespenaren baldintza agerian utziko da. Batxilergoko batezbesteko nota ezartzeko, ez dira kontuan hartuko salbuetsitako ikasgaiak.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

**Lehena**.- Curriculumaren egokitzapenak araubide bereziko ikasketetan.

1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek araubide bereziko ikasketak egin nahi badituzte, honako agindu honetan Derrigorrezko Hezkuntzaren ondorengo Bigarren Mailako Hezkuntzan curriculumean sartzeko egokitzapenei buruz ezarritakoa aplikatuko zaie.

2. Musika-ikasketen Oinarrizko Maila eta Maila Ertaina ezartzen duen 288/1992 Dekretuaren arabera, ikastetxeek Derrigorrezko Bigarren Mailako Hezkuntzako proposatzen diren curriculumaren norbanako egokitzapen nabariei jarraiki, eta curriculumaren helburuak funtsean errespetatuz, curriculumaren egokitzapenak proposatuko dituzte minusbaliotasunak dituzten ikasleentzat.

3.- Egokitzapen horiek Hezkuntza Ikuskaritzara bidaliko dira. Azken horrek txostena egingo du helburu horiek funtsean errespetatzen diten ala ez azaltzeko.

4.- Hezkuntzako Ikuskaritzak, derrigorrezko txostena egin ahal izateko, alde multiprofesionalari eskatuko dio txosten psikopedagogikoa (6. eranskina) eta Ikastetxeko Lurraldeko Buruzagitzara bidaliko du curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien agiria, bi txostenekin batera.

5.- informazio-multzoa bidaliko du Ikastetxetako Zuzendaritzara. Azken horrek jakinaraziko dio dagokion ikastetxeko zuzendaritzari zer erabaki den, hau da, eskatutako curriculumaren norbanako egokitzapen nabaria aprobatu edo uko egin den. Jakinarazpenean barruan ikaslearen dokumentazio akademikoa egon beharko da; gainera, idatziz emango zaie gurasoei edo legezko ordezkariei edo ikasleari berari, baldin eta adinez nagusia bada.

6.- Ikasturtearen hasierako jarraibideetan ezarriko dira parte hartzen duen estamentu bakoitzak dituen epeak, araubide bereziko ikasketetan curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak onartzeko prozesuan dokumentazioa aurkezteko.

**Bigarrena**.- Behin-behineko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak.

1. Behin-behineko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek, premia horiek gaixotasun baten edo behin-behineko minusbaliotasun baten ondorioak badira, hezkuntza indartzeko neurriak edukiko dituzte, eta, hala badagokie, curriculumaren egokitzapena. Behar izanez gero, curriculumean sartzeko neurriak ere hartuko dira eta ikastetxea izango da horiek egitearen eta garatzearen erantzulea.

2.- Baldin eta behin-behineko minusbaliotasun hori ikasturte bat baino gehiago luzatuko balitz, dagokion arloko edo ikasgaiko curriculumaren egokitzapena egingo da, agindu honetan ezarritakoari jarraiki.

BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA

Hezkuntzari buruzko lege orokorratik, abuztuaren 4ko 14/1970 Legetik, eratorritako ikasketak indarrean dauden bitartean, ikasketa horiek egiten dituzten eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ebaluazioa honako Agindu honetan ezarritakoaren arabera arautuko da. Ikasketa horien arautegia lege horretan aurreikusita ez dauden puntuetan bakarrik erabiliko da.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehena**.- Hezkuntza Sailburuordetzak baimena du agindu hau bere irizpideei jarraituz aplikatu, interpretatu eta garatzeko.

**Bigarrena**.- Honako agindu hau indarrean egongo da EHAAn argitaratzen den egunetik hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko uztailaren 24a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

*I. ERANSKINA*

| **CURRICULUMA NORBANAKOARI EGOKITZEA** |
|---|
| IKASLEAREN DATU PERTSONALAK |
| 1.ABIZENA ................................................................................................................................<br>2. ABIZENA ...............................................................................................................................<br>IZENA.......................................... .......... IEZ ..........................................................................<br>ADINA............................... JAIOTEGUNA ...........................................................................<br>ESKOLATZEA<br>*Etapa..........................* *Zikloa...............* *Maila*.......................................................................... |
| CNE EGITEN PARTE HARTU DUTEN IRAKASLEAK |
| TUTOREA: .............................................................................................................................<br>LAGUNTZA IRAKASLEA: ......................................................................................................<br>ARLOKO IRAKASLEA ...........................................................................................................<br>.................................................................................................................................................<br>.................................................................................................................................................<br>:................................................................................................................................................<br>ORIENTATZAILEA: ...............................................................................................................<br>PAT.: .......................................................................................................................................<br>BESTELAKO PROFESIONALAK: ..........................................................................................<br>.................................................................................................................................................<br>................................................................................................................................................. |
| ZENTROAREN DATUAK |
| ZENTROAREN IZENA: ...........................................................................................................<br>KODEA: ................................................................................................................................... |

*II. ERANSKINA*[1]

| |
|---|
| ☐ **ZIKLOKO C.N.E. NABARI GLOBALA** |
| *Curriculum erreferentzia* ................................................................................................... |
| ☐ **C.N.E. NABARIA HURRENGO CURRICULUM-ARLO HAUETAN** |

| *Arloak/Gaiak/ era nabarian aldatzen diren moduluak* | *Curriculum erref.* |
|---|---|
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |
| ........................................................................................................ | .................................................... |

[1] II. eranskina, 1998ko abenduaren 22an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak signatutako aginduaren *Atal bakarra 4.* puntuaren arabera, idatzita dago.

*III. ERANSKINA*

| **IKASLEAK GAUR EGUN DUEN GAITASUN MAILA,<br>CURRICULUM ARLO/GAI/MODULUEN ARABERA** |
| --- |
| ***Arloa/Gaia/Modulua*** ........................................................................................................................ |
| |
| **HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK** |
| |

*IV ERANSKINA*

| **IKASLEAREN CURRICULUM EGOKITUA** | | |
|---|---|---|
| *Arloa/Gaia/Modulua*: . ........................................................................................................................................................................................................................................ | | |
| *HELBURU OROKORRAK*<br>*Arloa/Gaia/Modulua* | *Erref.* | *EDUKI MULTZOAK* |
| | | |

V. ERANSKINA[2]

| **IKASLEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK** | | |
|---|---|---|
| Arloa/Gaia/Modulua: . ............................................................................................................................................................................................................<br>Aurreikusitako ebaluazio-datak: | | |
| Eduki erref. | EBALUATZEKO IRIZPIDEAK | Lortzeko aurreikusten den data |
| | | |
| ................................................................(e)n, .................ko .....................................ren ..................(e)an<br>Irakasle tutorea, Ikastetzekozuzendaria, legezko ordezkaria, | | |

[2] V. bis eranskina, 1998ko abenduaren 22an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak signatutako aginduaren *Atal bakarra 3.* puntuaren arabera, idatzita dago.

*VI. ERANSKINA*

## TALDE MULTIPROFESIONALAREN TXOSTENA

......................lurraldeko .......zk. duen PATko talde multiprofesional ....................................................... ikastetxeko irakaleek ........................................................................................................ ikaslearentzat egindako curriculumaren egotzapena aztertu ondoren, uste du egokitzapena egokia dela ikaslea ...........................ikasturtean/zikloan behar bezala eskolarizatzeko.

### DIAGNOSI LABURPENA

*Diagnosi ardatzak*

*Hezkuntza premia berezien laburpena*

### BEHARREZKO BALIABIDEAK

| *Mota* | *Zeintzuk* | *Zertarako* | *Beharrezko denbora* |
|---|---|---|---|
| *Materiala* | | | |
| *Pertsonak* | | | |

*..............................(e)n, .................ko .....................................ren ...................(e)an*

*TMP* *PATko ZUZENDARIAREN OI*

*VII. ERANSKINA*[3]

| HEZKUNTZAREN IKUSKARITZA TEKNIKOAREN TXOSTENA |
|---|
| ..................... Lurraldeko...................... barrutiko Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak ..................................................................... ikaslearen .................. ziklorako/kurtsorako curriculum egokitzapena onartzeko eskaria jasota. Ikuskaritza honek uste du aipatutako “curriculumaren norbanako egokitzapenaren nabari” horrek baimendua izateko betebeharrak betetzen dituela.<br><br>☐ Zikloko curriculumaren norbanako egokitzapen nabari globala.<br><br>☐ Curriculumaren norbanako egokitzapen nabaria hurrengo curriculum-arlo hauetan:<br><br>Data: Sinadura: |

[3] VII. eranskina, 1998ko abenduaren 22an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak signatutako aginduaren *Atal bakarra 4.* puntuaren arabera, idatzita dago.

*VIII. ERANSKINA*

| **CURRICULUM EGOKITZAPENAREN JARRAIPENA** | | |
|---|---|---|
| *DATA* | *LANDUTAKO GAIAK* | *HARTUTAKO AKORDIOAK* |
| | | |
| *PARTE HARTU DUTEN PROFESIONALAK* | | |
| *DATA* | *LANDUTAKO GAIAK* | *HARTUTAKO AKORDIOAK* |
| | | |
| *PARTE HARTU DUTEN PROFESIONALAK* | | |
| *DATA* | *LANDUTAKO GAIAK* | *HARTUTAKO AKORDIOAK* |
| | | |
| *PARTE HARTU DUTEN PROFESIONALAK* | | |

*IX. ERANSKINA*

**JAKINARAZPENA PEDAGOGI BERRIKUNTZARAKO LURRALDEKO ZUZENDARITZARENA, CURRICULUMAREN NORBANAKO EGOKITZAPEN NABARIA ONARTU IZANARENA**

.............................................ko Pedagogi Berrikuntzarako Lurraldeko buruak honako hau jakinarazten dizu: “curriculumaren norbanako egokitzapenaren nabariari” buruz den, eta talde multiprofesionalak prestatu duen aldeko txostena jasota, eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren On Iritzia ikusita,

Ikaslea:.........................................................................................................................
matriculatua: maila..................hezkuntza mota..........................................................
Ikastetxea: ....................................................................................................................
Ikastetxeko herria: .........................................................................................................

Aipaturiko ikasleari dagokion

- ❑ Zikloko curriculumaren norbanako egokitzapen nabari globala.
- ❑ Curriculumaren norbanakoa egokitzapen nabaria hurrengo curriculum-arlo hauetan:

BAIMENDUTA gelditu da behean agertzen den egunean.

*Data:* *Zigilua eta sinadura:*
*Pedagogi Berrikuntzarako Lurraldeko burua*

*Ikastetxeko zuzendaria::*

# *CURRICULUMERAKO SARBIDERAKO EGOKITZAPENAK*

| | |
|---|---|
| **Kontzeptua** | **Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek ikaskuntzarako sarbidea izan dezaten proposatutako sarbide-neurrien edo beharrezko laguntza teknikoen eta pertsonalen multzoa da.** |

## Curriculumerako sarbide-neurriak eskatzeko prozedura.

| | |
|---|---|
| **Tutorea** | **Ikaslearen hezkuntza-premia bereziak eta egokitzapen-proposamena definituko ditu.** |
| **Ikastetxeko Zuzendaritza** | **Proposamena PATera bidaliko du.** |
| **TMP:** | **Baliabide materialak eta pertsonalak adieraziko eta proposatuko ditu** |
| **PATaren Zuzendaritza** | **Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzara bidaliko du** |
| **Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutza** | **Erabakiko du.** |

## NOIZ

**Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak adierazitako eskaera-epeetan.**

# *CURRICULUM-EGOKITZAPEN INDIBIDUAL ESANGURATSUAK*

## HAUR HEZKUNTZAN, DERRIGORREZKO LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAN

**Kontzeptua** ______

**Arlo bateko edo gehiagotako, zikloko edo etapako helburuen zati handi bat egokituz edo baztertuz, curriculum baten derrigorrezko elementuetan aldakuntza garrantzitsuak egiteko neurri berezia da.**

| | Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza | DBH |
|---|---|---|
| **Curriculum-erreferentea** | **ikaslearena ez den beste ziklo edo etapa bat** | **ikaslearena ez den beste etapa bat eta gutxienez bi zikloko curriculum-distantziakoa** |
| **Motak** | ***Zikloko CEI esanguratsu orokorrak.***<br>**•Helburu orokorrak eta oinarrizko edukiak eta gune direnak kentzen dira hainbat arlotan.**<br>**•Nabarmen aldatzen dituzte helburu orokorrak eta ebaluaziorako irizpideak**<br><br>***Arloko CEI esanguratsuak***<br>**•Arlo jakin batean edo batzuetan helburuak, edukiak eta ebaluaziorako irizpideak aldatzen edo ordezten dituzte**<br>**•Etapako helburu berdinei eusten diete**<br>**•Ikasleak titulua lortu ahal izango du** | |
| **Edukia** | **•Ikaslearen eta inplikatutako profesionalen datuak**<br>**•Esanguratsuki aldatzen diren esperientzia-eremuak edo arloak**<br>**•Uneko gaitasun-maila**<br>**•Hezkuntza-premia berezien definizioa**<br>**•Zikloan zehar garatu beharreko helburuak eta edukiak zehaztuko dituen curriculum egokitua**<br>**•Ebaluaziorako erabiliko diren uneak, moduak eta irizpideak,**<br>**•Jarraipenaren plangintza** | |

**Derrigorrezko hezkuntzan curriculum-egokitzapen esanguratsuak onartzeko prozedura.**

| | |
|---|---|
| **Tutorea** | Ikaslearen hezkuntza-premia bereziak eta egokitzapen-proposamena definituko ditu. |
| **Ikastetxeko Zuzendaritza** | Proposamena PATera bidaliko du. |
| **TMP:** | Baliabide materialak eta pertsonalak adieraziko eta proposatuko ditu |
| **PATeko Zuzendaritza** | Ikuskaritza Teknikora bidaliko du |
| **Ikuskaritza Teknikoa** | Oniritzia emango du edo ikastetxeari eta PATari aldaketak adieraziko dizkio |
| **Ikastetxea eta PAT** | Aldakuntzak egingo dituzte |
| **Ikuskaritza Teknikoa** | Onartuta Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzara bidaliko ditu |
| **Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutza** | Ikastetxeei onarpenaren berri emango die |
| **Ikastetxea** | Tutoreei eta legezko ordezkariei berri emango die |

# *CURRICULUM-EGOKITZAPEN INDIBIDUAL ESANGURATSUAK*

## BATXILERGOETAN ETA HEZIKETA-ZIKLOETAN

**Kontzeptua** — **Batxilergoko jakintzagaietako edo heziketa-zikloetako lanbide-moduluetako edukiak aldatzen dituztenak dira.**

| | | |
|---|---|---|
| **Honakoak bermatu behar dituzte** | **Batxilergoan** | **Jakintzagai bakoitzari dagozkion gaitasunetan maila nahikoa, erreferentzia gisa helburu orokorrak hartuta.** |
| | **Heziketa-zikloetan** | **Tituluari dagokion gaitasun orokorra lortzeko oinarrizko lanbide-gaitasunak.** |

| | Batxilergoa | Heziketa-zikloak |
|---|---|---|
| **Curriculum-erreferentea** | **Jakintzagaia bera** | **Modulua bera** |
| **Mota** | ***Jakintzagaiko edo moduluko CEI esanguratsua***<br>**•Edukiak aldatzen dituzte** | |
| **Edukia** | **•Ikaslearen eta inplikatutako profesionalen datuak**<br>**•Esanguratsuki aldatzen diren jakintzagaiak eta moduluak**<br>**•Uneko gaitasun-maila**<br>**•Hezkuntza-premia berezien definizioa**<br>**•Helburu orokorrak, eduki-multzoak eta ebaluaziorako irizpideak zehaztuko dituen egokitutako curriculuma.** | |

**Batxilergoan eta heziketa-zikloetan curriculum-egokitzapen esanguratsuak onartzeko prozedura.**

| | |
|---|---|
| **Tutorea** | Ikaslearen hezkuntza-premia bereziak eta egokitzapen-proposamena definituko ditu. |
| **Ikastetxeko Zuzendaritza** | Proposamena PATera bidaliko du. |
| **TMP:** | Baliabide materialak eta pertsonalak adieraziko eta proposatuko ditu |
| **PATeko Zuzendaritza** | Ikuskaritza Teknikora bidaliko du |
| **Ikuskaritza Teknikoa** | Oniritzia emango du edo ikastetxeari eta PATari aldaketak adieraziko dizkio |
| **Ikastetxea eta PAT** | Aldakuntzak egingo dituzte |
| **Ikuskaritza Teknikoa** | Onartuta Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzara bidaliko ditu |
| **Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutza** | Batxilergokoak Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzara bidaliko ditu eta heziketa-zikloetakoak Lanbide Heziketako Zuzendaritzara. |
| **Ped. Ber. Zuzendaritza LHko Zuzendaritza** | Onarpenaren berri emango die ikastetxeei |
| **Ikastetxea** | Tutoreei eta legezko ordezkariei berri emango die |

# *BATXILERGOKO SALBUESPENAK*

## Batxilergoan bakarrik izango dira zati baten salbuespenak edo salbuespen osoak.

| | Batxilergoa |
|---|---|
| Zein ikaslerentzat | Entzumenaren, ikusmenaren eta mugimenaren inguruko arazo larriak dituztenentzat. |
| Motak | Zatikakoa edo osoa |
| Edukia | •Ikaslearen datuak.<br><br>•Adinez nagusi diren ikasleen edo beren legezko ordezkarien eskaera<br><br>•Ikastetxeko proposamena, eskaera komenigarria den baloratuz<br><br>•Ez-gaitasunari buruzko medikuntza-txostena. |

**Batxilergoan eta heziketa-zikloetan curriculum-egokitzapen esanguratsuak onartzeko prozedura**

| | |
|---|---|
| **Adinez nagusi diren ikasleak edo legezko ordezkariak** | **Eskaera egingo dute** |
| **Ikastetxeko Zuzendaritza** | **Eskaera txostenarekin batera bidaliko du Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzara** |
| **Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutza** | **TMPen eta Ikuskaritza Teknikoaren txostenak bilduko ditu** |
| **Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzara** | **Agiriak Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzara bidaliko ditu** |
| **Ped. Ber. Zuzendaritza LHko Zuzendaritza** | **Onarpenaren berri emango die ikastetxeei** |
| **Ikastetxea** | **Tutoreei eta legezko ordezkariei berri emango die** |

**AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat.**

Hezkuntzarako eskubidea dela-eta, aginte publikoek -betebeharra dute- kalitatezko hezkuntza eskaini behar dute, hezkuntzaren helburuei erantzuteko modukoa eta herritar batzuek eta besteek dauzkaten premien araberakoa.

Gure gizartean hainbat berdintasun-hutsune dago bai ekonomiaren aldetik eta bai bestelako premien aldetik ere, eta, ondorioz, gizarteko talde batzuek besteek baino aukera gutxiago dituzte, hau da, besteak baino okerrago daude, ez dute-eta besteek daukaten ez erraztasunik eta ez baliabiderik derrigorrezko hezkuntza, pertsona guztioi omen dagokigun hori, lortzeko. Beste alde batetik, demografia-mugimendu jakin batzuek egoera-aldaketak eragiten dituzte, eta egoera berri horietako zenbaitetan, talde batzuk zokoratuta geratzen dira kultura edo etnia berezia dutelako; besteena, hau da, gehiengoarena ez bezalakoa dutelako, alegia. Hezkuntza halako taldeei ere erantzunak ematen saiatzen da. Gure elkarteetara hainbat inmigrante etortzen da, bakarka nahiz taldeka eta hainbeste arrazoik bultzata (ekonomia, gizartea, politika...), eta berariazko neurriak behar dituzte, bestelako gizarte baterako sarbidea aurki dezaten (bestelako hizkuntza, harremanak, kultura...).

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoa kapitulu oso bat dauka, bosgarrena, hezkuntzan berdintasun-hutsune horiek nola bete azaltzeko. Hainbat ekintzabide zehazten ditu, osabidezko neurriena besteak beste. Neurri horiek aukera gutxiagoko pertsona, talde edo lurraldeei begira hartu behar dira, berdintasun-gabeziak konpontzeko, gizarteak berak eragindakoak izan, edo ekonomiak, kulturak, geografiak, etniak edo beste arrazoiren batek eragindakoak izan; eta, beti ere, horretarako behar hainbat baliabide jarrita. Hara zer jartzen duen 65.3. atalean: “ikastetxeren bateko ikasleei bereziki zaila gertatzen bazaie, baldintza sozialak direla-eta, oinarrizko hezkuntzako helburu orokorretara iristea, hezkuntzako administrazioek behar hainbat baliabide (langile nahiz materialak) eman beharko diote, egoera hori berdintzeko. Ikastetxe horietako antolaketa eta eskola-programaketa ikasleen premia berezietara egokitu beharko dira”.

Euskal Eskola Publikoaren Legeak honela zehazturik dauzka bere ezaugarriak: “plurala, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzurako egina, inguruko gizarte eta kulturaren erroetatik edaten duena, parte hartzailea, berdintasun-hutsuneak bete zalea eta dibertsitatea integratzeko balio duena; halakoxea da, izatez, euskal eskola publikoa, eta halakoxeak dira bere barruko ikastetxe guzti-guztiak”. Eta hona hemen, berriz, bere helburuetako bat: “ikasleen artean jatorriz nabari diren berdintasun-aldeak leuntzeko lan egitea, maila, etapa, ziklo eta gradu guztietan.”

Beste alde batetik, Ikastetxeen Partaidetza, Ebaluazio eta Gobernuari buruzko 9/1995 Lege Organikoan (azaroaren 20koan) honela banatuta ageri dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak: alde batetik, ezintasunen bat duten ikasleak; eta, beste alde batetik, oso jokaera moldagaitza dutenak eta aukera gutxiagoko gizarte-maila edo kulturak eragindako premiak dituztenak.

Heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna antolatzeko 1998ko ekainaren 23ko 118/1998 dekretuan, aukera gutxiagoko gizarte-maila edo kulturak erangindako aldi baterako premia bereziak dituzten ikasleak ere ageri dira, eta horiekin batera, oso jokaera moldagaitza dutela-eta ikasle-garaiko denbora-tarteren batean laguntza osagarri berezi edo berariazko arreta-motaren bat behar dutenak ere bai, jokaera moldagaitz hori benetako oztopo baita gizartean edo eskolan ondo moldatzeko. Eta hori bada agindu honen kokalekua, helburua, berriz, egoera horietarako erantzun egokia antolatzea da.

Ikuspuntu horretatik abiatuta, Aginduak halako irizpide argigarri batzuk dakartza, bai batzuei nola besteei eskolaren aldetik zein erantzun eman jakiteko, hau da, bai eskolara egokitzeko zailtasun pertsonal bereziak dituzten ikasleei, eta bai gizartearen edo kulturaren aldetik aukera gutxiago dituztenei ere. Lehenengo taldekoei dagokienean, eskolara behar bezala egokitzen uzten ez dieten gorabehera pertsonal horiek gainditzen laguntzeko neurriak aipatu behar ditugu, eskolan hartu beharko direnak; eta, bigarrenak direla-eta, berriz, heziketan lehentasuna eman beharra da aipatu beharrekoa, horrela lortuko dugulako, benetan, bai aukera-berdintasuna eta bai heziketarako eskubidea behar bezala gauzatzeko hainbat neurri hartu ahal izatea ere: egitura, antolaketa, pedagogia eta baita curriculumen aldetik ere. Horregatik, honako hau

XEDATU DUT

## I. ATALBURUA
## HELBURUA, KONTZEPTUA ETA HATSAPEN OROKORRAK

### 1. atala. Helburua, norabidea eta non aplikatuko den.

1.- Hona hemen agindu honen helburuak:
a.- Gizartearen edo kulturaren aldetik aukera gutxiago dituzten ikasleei erantzunen bat ematea heziketaren aldetik.
b.- Eskolan ondo egokitzeko arazo larriak dituzten ikasleen heziketa-premia bereziak betetzeko heziketa-neurriak arautzea.

2.- Proposatutako neurrien bidez, hezkuntzari norabide jakin bat eman nahi zaio: neurriak hartzeko orduan, ingurunerik normalizatuenak eta betiko baliabideak erabiltzea da; eta neurri bereziak egoera bereziagoetarako edo erantzun konplexuagoa behar dutenetarako uztea.

3.- Aplikatu, berriz, hona hemen non aplikatuko den agindu hau: derrigorrezko hezkuntzako etapetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko diru publikoarekin lan egiten duten ikastetxeetan (unibertsitatekoak ez direnetan).

### 2. atala.- Norentzako den.

1. Heziketa-neurri hauek laguntza osagarriren bat edo agindu honetan jasotako heziketa-neurri jakinen bat behar duten ikasleentzat dira. Batzuetan, behar horiek ikasle bakar batek izango ditu, eta, beste batzuetan, ikasle-talde batek; batzuetan, beharrak denbora-tarte baterako izango dira, eta, beste batzuetan, eskola-garai osorako.

2. Hona hemen baldintza txar horiek zein gorabeheragatik sortzen diren (ikasle bakar batek edo ikasle-talde batek jasan behar izaten ditu -talde jakin batek batzuetan, eta ikastetxe osoak beste batzuetan-):

- Ikasleak dituen gaitasunen eta ikasten ari den ikasturteko curriculumaren artean oso alde handia dago, aukera gutxiagoko gizarte-talde edo kultura-talde batekoa delako.
- Eskolara ondo egokitu ezinik dabil, aukera gutxiagoko gizarte-ingurune edo kultura-ingurune batekoa delako. Ondorioak: piperrak eta ikastetxeko besteekin harremanak izateko arazoak.
- Berandu hasi zen eskolan, gizarte-talde edo kultura-talde zokoraturen batetik datorrelako.
- Ikasketetan ez du jarraipenik izan, batetik bestera ibili behar izan duelako, gurasoek aldi baterako lanak zeuzkatela-eta.
- Beste leku batzuetatik etorri da (etorkina), eta hizkuntzaren beharretara egokitu beharra dauka, eskolak aprobetxatuko baditu.

3. Eskolara ondo egokitzen ez diren beste ikasle batzuentzat ere izan daiteke: ikasten oso atzera ibiltzen dira askotan; sarri askotan jarrera moldagaitza izaten dute, bai irakasleekin eta bai beste ikasle batzuekin ere; piper egiten dute behin eta berriz; eta ikastetxean elkar bizitzarako ezarritako arauak ere behin eta berriz hausten dituzte.

**3. atala.- Helburuak eta erantzuna emateko printzipioak.**

1.- Hezkuntzaren esparruko berdintasun-hutsune horiek gainditu nahi badira, lehentasunezko ekintza batzuk garatu beharko ditugu, honako helburu hauekin:

a) Ikasle guztiek derrigorrezko hezkuntzara heltzeko aukera berberak izan behar dituzte, edozein izanik ere haien baldintza pertsonalak, gizarte-taldea, ekonomia, jatorria nahiz kultura. Horretarako, aukera gutxiagoko gizarte-talde edo kulura-inguruneren batetik datozenen aldeko diskriminazioa bultzatu beharko dugu, txikitatik has daitezen eskolara joaten.

b) Ikasle guztiei gizartean eta hezkuntza-sisteman integratzen laguntzea eta aukera-berdintasuna indartzen saiatzea. Horretarako, sistemara sartu eta bertan geratzeko bide bereziak eskaini behar dizkiegu gizarte, kultura edo hizkuntzarengatik besteek baino aukera gutxiago dituzten ikasleei, eta bestea onartzeko eta errespetatzeko jarrerak ernarazi behar ditugu ikasle guztien artean. Era berean, kultura batzuetako eta besteetako baloreak ikastetxera ekartzeko ahaleginak egin behar ditugu eta ikasle nahiz etxekoen partaidetza ere bultzatu beharra dago, ikastetxeko erabakiak hartu behar direnerako.

c) Gizartean besteek baino aukera gutxiago dituzten ikasleei erantzun egokia eta kalitatezkoa eskaintzea heziketaren aldetik. Kontua derrigorrezko hezkuntzako helburuak ohiko ikastetxeetan lortzea denez -hala baita-, ikastetxeak eta eskola-inguruneak egin beharko dituzte egin beharreko aldaketak, ikaslearen premia eta ezaugarrietara egokitzeko. Horrela, pertsona prestuak bilakatuko dira, gizarte konplexu honetan integratzen jakin eta hartarako gai izango direnak.

d) Eskolan ondo egokitu gabe dauden ikasleei berriro saiatzeko prozesuak eskaintzea, eskolaren funtzionamenduarekin uztartu ezin diren jarrerak gainditzen laguntzeko, eta beren beharretarako erantzun egokia aurki dezaten hezkuntza-sisteman.

2.- Helburu horiek lortze aldera hezkuntzaren aldetik lehenengo zer egin zehazteko orduan, jarduteko honako printzipio hauek hartu beharko ditugu kontuan, egoera bakoitzerako estrategiarik egokiena zehazteko jokaleku orokor modura ere balio dute-eta:

a) Hartu beharreko neurriak ikastetxe-mailako egitasmotan egituratu behar dira, eta egitasmo horiek irakasleek sortu behar dituzte. Egitasmo horietan zehaztu beharko da neurriak nola antolatu, garatu, jarraipena nola egin eta ebaluaketa ere nola egin. Egitasmo horiek zehatzak izan behar dute; oso gogoan izan behar dute kulturak, interesak, gaitasunak eta egoerak askotarikoak direla; eta irakasleak lanera eta beren buruak prestatzera bultzatu behar dituzte. Horrelako egitasmoetan erabili behar dira baliabideak.

b) Gaitzari erantzuna eman ez baino, aurrea hartu behar zaio; elkar urrunketa ez baino, integrazioa bultzatu behar da; curriculuma murriztu edo sinpletu ez baino, aberastu egin behar da. Eta, horretarako, hartu beharreko neurrietan, alde batetik, diferentziari zor zaion errespetua zaindu, eta, bestetik, eskubide eta aukera berberak eman beharra ere begiratu beharko da, biak uztarri berean lotuta.

c) Ikasleak nolako behar, interes, ezaugarri, esperientzia eta kultura-maila dituen, hartara egokitu beharko dugu heziketaren aldetik eman beharreko erantzuna. Hau da, erantzun malguak eman eta eperientziak arrakastaz burutu, espero ziren emaitzetako asko lortzeaz bat.

d) Familiak eta komunitateko beste batzuk ere parte hartzera bultzatzea, bai erabakiak hartu behar direnerako, bai interbentzio-egitasmoak garatu behar direnerako ere.

## II. ATALBURUA
## XEDAPEN OROKORRAK

### 4. atala.- Ekintza orokorrak.

Haur Hezkuntzan eta derrigorrezko hezkuntzaren gainerako etapetan, hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzunak, ahal dela, premia bereziak dituzten ikasleen beharretara egokitu behar du -bai behar horiek gizarte-baldintza edo kultura-baldintza eskasak eragindakoak izan, bai norberaren egokitzapen-arazoak eragindakoak izanik ere-, eta hezkutzako administrazioak egokitzapen hori lortzeko ahaleginak egin behar ditu. Horretarako, ekintza orokor bat edo bat baino gehiago edukiko du, aukeran, egiteko:

a) Ikasle horiek txiki-txikitatik eskolaratzen saiatzea beste administrazio, erakunde eta eragile batzuekin batera. Horretarako, Lehen Hezkuntzako eta, batez ere, lehen zikloko plazak, lehenengo, gizarte-baldintzen edo kulturaren aldetik okerren bizi diren ikasleak dauden ikastetxe edo eskualdeetan eskaini behar ditu, eta halaxe kontuan hartu planifikazioa egiteko orduan.

b) Udal-administrazioekin, edo foru-administrazioekin bestela, lan-programa batzuk egitea piperren aurka egiteko, osasuna zaintzen irakasteko, garbitasuna erakusteko, jendearekin harremanak nola izan, lana nola aurkitu, heldutasunerako igarobidea, baloreen garrantzia eta abar; ikasle horien ezaugarri eta beharren arabera, beti ere. Era berean, ikasle horien ikastetxeetan jantokiak jartzea eta, ikasle horien motibagarri eta osagarri, eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea.

c) Ikasle etorri berriei hizkuntza berria ikasten laguntzeko programak sortzea, bestela gizartetik kanpora geratzeko arriskua daukatenez; eta gutxiengoen hizkuntzak eta kultura mantentzen eta zabaltzen saiatzeko ekinaldiak egitea.

d) Umeen eskolaratzearekin zerikusia daukaten erabakiak hartu behar direnean eta eskolaratze horren jarraipena egin behar denean, beren etxekoek eta talde eta kultura zokoratu horietako ordezkariek ere parte hartu behar dute. Horixe da bultzatu behar dena.

e) Ikasle eta irakasleen artean hobeto komunikatzen irakastea, eskolara egokitzeko lagungarri, gaitzari aurrea harturik. Ikasleei atzera hezkuntza-bidera itzultzen laguntzeko balioko duten trebezia sozialak, baloreak eta jarrerak indartzea.

f) Irakasleek, ere, egonkortasuna behar dute eta egokiak izan behar dute. Horretarako, lan-talde egonkorrak sortu behar dira, ahal dela; lehentasuneko heziketa-ekintzetarako egitasmoetan beren kasa parte hartzen duten irakasleen lana sustatu behar da; eta irakasleak, zuzendaritza-taldeak eta laguntza-zerbitzuak ondo prestatzeko programak antolatu behar dira.

**5. atala.- Ikastetxea, lehentasuneko heziketa-ekintzen kokaleku.**

Egoera horri erantzuteko eta erantzuna ikastetxeetatik bertatik antolatu eta egituratzeko, bi egitasmo-mota dauzkagu:

- Aukera gutxiagoko inguruetako ikastetxeetan osotasunean esku hartzeko egitasmoak.
- Heziketa-ekintza zehatzetarako egitasmoak.

**6. atala.- Aukera gutxiagoko inguruetako ikastetxeetan osotasunean esku hartzeko egitasmoak.**

1.- Ikasleen %50 baino gehiago honako egoera batean duten ikastetxeak izango dira, agindu honen ondorioetarako, aukera gutxiagoko inguruetako ikastetxeak:

- Etxeko errenta ikasketa-beka jasotzeko gehienezkoa baino txikiagoa dute.
- Talde etniko txikiren batekoa da eta gizarteak baztertu egiten du.
- Familia kanpotik etorri berria da edo, aldian behin, hiru hilabete baino gehiago kanpoan pasatzen dituzte.

2. Egitasmoak aukera gutxiko inguruetako ikastetxeetan osotasunean esku hartzeko izango badira, ikastetxeak edo ikastetxe barruko etapa batek, egitasmo horren bidez, ikasleen premiei heziketaren aldetik nola erantzun adierazi behar du, ikastetxean osotasunean esku hartzearen bidez beti ere; eta, gainera, irakasle guztiek edo gehienek parte hartu behar dute.

Egitasmo horien bidez hainbat ekintza-mota eramango da aurrera: antolaketaren ingurukoak, curriculumaren ingurukoak edo tutoretzen ingurukoak (9.3 eta 10.2 ataletan proposatutakoak, esate baterako). Egitasmo horiek, azkenean, ikastetxeko oinarrizko dokumentuetan erabiltzeko balio behar dute: IHP eta IIP; baina hori bai, behar diren saiakera guztiak egin ondoren eta errealitatera doitu eta gero.

Aukera gutxiagoko inguruetako ikastetxeetan osotasunean esku hartzeko egitasmoak egiteko, bi aukera daude: ikastetxeek beren kasa ekitea lanari; edo hezkuntzako administrazioak proposatzea ikastetxe jakin bati. Baina, bide bat zein bestea erabili, behin halako egoeraren bat antzemanez gero, kontua izango da ikastetxeak hartzea planifikazioaren

eta interbentzioaren ardura nagusia, beti ere, inguruko laguntza-zerbitzuen aholku-lana ere erabiliz; gizarte-egokitzapeneko teknikariena batez ere.

3.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztuko du egitasmo horiek nolakoak izan behar duten eta nola garatu behar diren, horretarako deialdi berezi batzuen bidez. Osotasunean esku hartzeko egitasmo bat onartzearekin batera, egitasmo hori aurrera eraman behar duten langileak ere zehaztu beharko ditu, eta plazetako batzuk edo denak postu berezi joko ditu.

4. Ikastetxean osotasunean esku hartzeko egitasmoek lau urterako balioko dute, nahiz eta epe hori berriro luzatu ere egin daitekeen. Onartu, berriz, irakasleen klaustroak (boto guztien bi heren beharko ditu gutxienez) eta Ordezkaritza Organo Gorenak edo Ikastetxeko Eskola Kontseiluak onartu beharko ditu.

**7. atala.- Heziketa Ekintza Zehatzetarako Egitasmoak.**

1.- Ikasle batzuek hezkuntza-premia bereziak izaten dituzte, aukera gutxiagoko gizarte-inguru edo kultura-talde batekoak direlako edo eskolara egokitzeko arazo larriak dituztelako. Ikastetxeak, ordea, behar bada ez ditu 6.1 ataleko baldintzak beteko, edo ez du osotasunean esku hartzeko egitasmorik izango. Egoera horretan diren ikasleentzat dira, bada, Hezkieta Ekintza Zehatzetarako Egitasmoak.

Heziketa-ekintza zehatzetarako egitasmo horietan, 9.3 eta 10.2 ataletan jasotako neurrien modukoak erabiliko ditugu premia horiei erantzuna emateko. Neurri horiek aplikatzeak, era berean, IIPen orokorrean zehaztutako gauza batzuk aldatzea dakar, batzuetan curriculumaren eta beste batzuetan antolaketaren eta/edo funtzionamenduaren aldetik. Berez, osotasunean esku hartzeko egitasmoak baino puntualagoak dira, ikastxeak ez du-eta halako inplikazio orokorrik erakutsi behar; eta beste alde batetik, igerritako beharrei eman beharreko erantzuna antolatzeko orduan malgutasun handiarekin jokatzeko tokia uzten dute.

2.- Egitasmo horiek bi urterako balioko dute, nahiz eta epe hori berriro ere luza daitekeen. Tartean diren irakasleek proposatu beharko dituzte; Irakasleen Klaustroari ere jakinarazi beharko zaizkio; eta Ordezkaritza Organo Gorenak edo Ikastetxeko Eskola Kontseiluak onartu beharko ditu. Ikastetxe osoari eragiten dioten neurriak -antolakuntzakoak nahiz funtzionamendukoak- bi erakunde horiek onartu beharko dituzte.

**8. atala.- Esku hartzeko egitasmoak nola diseinatu.**

Ikastetxean Osotasunean Esku Hartzeko Egitasmoetan nahiz Ekintza Zehatzetarako Egitasmoetan, honako puntu hauek jaso beharko dira:

a) Egitasmoa egin beharra dakarten arazoen eta ikastetxeak egitasmo hori aurrera eramateko duen gaitasunaren azterketa.

b) Esku hartzeko proposamenaren barruan honako puntu hauek zehaztu beharko dira:
- Egitasmoa zein ikaslerentzako den.
- Curriculum-planteamendu orokorra, eta egoera bakoitzerako zehatza.
- Tutoretzaren aldetik eta/edo banakako hezkuntza-orientazioaren aldetik tutoreek eta ikastetxeko orientatzaileak zer egin behar duten.

- Aurrera eramateko balaibideak (bai dirua, bai langileak nahiz materiala) eta kanpoko aholku-laguntza jasotzeko plana (halakorik balego). Antolakuntzako eta funtzionamendu-mailako neurriak. Ikastetxeak prozesu guztian parte hartu beharra.

- Gizarte-zerbitzuekin eta zerbitzu soziokomunitarioekin lankidetzan aritzeko plana, ikasle nahiz etxekoen artean eragina daukaten ekintzak koordinatzeko.

c) Jarraipena eta barruko ebaluaketa egiteko prozedura diseinatzea eta egitasmoa ebaluatzeko irizpideak.

## III. ATALBURUA
## HEZIKETAREN ALDETIK ZER EGIN BEHAR LEHENENGO.

**9. atala.- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, heziketaren aldetik zer egin lehenengo.**

1.- Hezkuntzak ikasleen premien araberakoa eta ikastetxearen inguruan nabari diren premien araberakoa izan behar du, eta horretara zuzenduta egon behar dute lehenengo hartu beharreko neurriek. Azken xedea, ordea, ikaslea matrikulatuta dagoen etapak agintzen dituen helburuak behar bezain ondo betetzea izango da.

2.-Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, ikastetxea eta gela izango dira oinarrizko erreferentziak, besteek baino aukera gutxiago dituzten ikasleei erantzunen bat emateko orduan. Horrela, dena delako erantzunak, orokorrean behinik behin, dagoenik eta inguru hezitzailerik normalizatzaileenean kokatuko ditugu, eta oso-oso ondo mugatu beharko dugu -eta orduan bakarrik zabaldu hartarako bidea- erantzun hori noiz eman betiko gelatik kanpora eta taldekoaz bestelako irakasleekin.

Beste irakasle batzuek ere parte hartu behar baldin badute, denei batera lan eginarazten saiatu beharko dugu, partaidetza hori koherentziaz eta koordinatuta egingo bada.

Lehentasunezko heziketa-ekintza horiek edo heziketa-ekintza zehatzak garatzen dituzten ikastetxeek lehentasuna izango dute hezkuntza-sistemako laguntza-zerbitzuentzat. Lehentasunezko heziketa-ekintzak ikastetxeko egitasmo orokor batean jaso beharko dira.

3.- Lehentasunezko heziketa-ekintza horien artean, honako hauek daude:

- Curriculum-mailakoak: curriculuma ikaslearen benetako premietara egokitzea; oinarrizko gaitasunak garatzen lagunduko duten -mailak maila, beti ere- eta elkarri laguntzeko eta zuzenean parte hartzeko metodologiak bultzatuko dituzten aktibitateak sortzea; ikastetxean nabari diren kultura eta gizarte-talde bateko eta besteko elementuak jasotzea; komunikatzeko gaitasunak garatzea; ikasleen ezaugarrien araberako materialak egitea.

- Antolakuntza-mailakoak: lan-orduak ikasleen beharretara egokitzea; bai eskola-orduetan eta bai kanpoan, gure buruak aberasteko neurriak; aktibitate batzuetan irakaslea ere taldean bertan egotea, eta, beste batzuetan, taldea bitan banatzea; taldeak egiterakoan malgu jokatzea; gelaz kanpoko lanetan beste irakasle batek ere parte hartzea, kasu puntualetan edo sistema jakin bati jarraituta; aldi baterako unitateak sortzea, eskolara denbora-tarte baterako baino joango ez diren ikasleekin lan egiteko.

Tutoretzak: tutoretza-lanean, ikasleen jarraipena banan-banan egitea; senitartekoak ikastetxera hurbilarazteko programak; familia eta eskola arteko programak garatzea; ikasleak hartu eta ondo egokitzen laguntzeko atalak sortzea.

**10. atala.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, heziketaren aldetik zer egin lehenengo.**

1.- DBHko ikastetxeetan lehenengo egin beharreko heziketa-ekintzek, irizpide modura, ahalik eta integratzaileenak izan behar dute. Etapak ulergarria izan behar du aurrerantzean ere, nahiz eta ondo jakin etapa honetan agertuko zaizkigun egoerak konplexuagoak direla, eta erantzunek, ere, hortaz, halakoxeak izan behar dutela.

Ikastetxeetan osotasunean esku hartzeko egitasmoetan edo heziketa-ekintza zehatzetarako egitasmoetan zehaztutako ekintza guztiek zentzu bera izan behar dute: besteek baino aukera gutxiago dituzten ikasleen premiei erantzun bat ematea. Eta horretarako egitasmo, estrategia eta lehentasuneko heziketa-ekintzak zehazteko orduan, erantzun kalitatezkoa eta egokia eman behar dugula izan behar dugu gogoan, lehen irizpide modura.

Lehentasunezo heziketa-ekintza horiek edo heziketa-ekintza zehatzak garatzen dituzten ikastetxeek lehentasuna izango dute hezkuntza-sistemako laguntza-zerbitzuentzat. Lehentasunezko ekintza horiek egitasmo orokor batean jaso beharko dira.

2.- Lehentasuneko heziketa-ekintzen artean, honako hauek ere badauzkagu, lehen aipatu ditugunez gainera:

- Curriculum-mailakoak: curriculumeko arlo batzuk eremutan sartzea; kultura gutxituekin zerikusia duten aukerakoak jartzea denentzat, eta gutxiengoen hizkuntzak garatzeko aukerakoak; piperrei kontra egiteko programak; jendarteko ohiturak garatzeko programak; halako ikasleak ikastetxeetan hartzeko programak.

- Antolakuntzakoak: talde edo ikasle baten irakasleen artean koordinatzeko denbora-tartea, baldin eta boladaren batean Hezkuntza Premia Bereziren bat badauka talde edo ikasle horrek; gela batetik irakasle gutxiago pasatzea; tailerreko aktibitateen bidez motibazioa lortzeko eta oinarrizko gauzak ikasteko atalak; hizkuntza lantzeko talde bereziak.

**11. atala.- Baliabide bereziak: langile eta material lagungarriak.**

1.- Aukera gutxiagoko gizarte-ingurune edo kultura-taldeen artean lehenengo egin beharreko heziketa-ekintzetarako zehazten diren baliabideak lotuta egongo dira, alde batetik, ikastetxeek egindako aktuazio-egitasmoetara; eta, beste alde batetik, Ikuskaritza Teknikoak erabilera dela-eta egindako ebaluaketara.

2.- Hona hemen, zehaztutako premien arabera eta egindako egitasmoak kontuan, zer-nolako baliabideak izan ditzakegun:

a) Lehendik dauzkagun langileak ahalik eta ondoen erabiltzea da aukeretako bat, eta, horretarako: langileak zentzuz antolatzea, hau da, irakasleak lanean inplikatzea, lan-taldetan banaturik edo ikasle-talde jakinekin; prestakuntza-prozesuak egitasmoan zehaztutako interbentzio-ereduaren arabera; aholkuak emateko eta erabakiak hartzen parte hartzeko

erakunde egokiak, kanpokoak ez baino barrukoak izango direnak.

b) Langile gehiago hartzea: arlo edo eremuko irakasleak; gutxiengoen hizkuntzak eta kulturak ezagutzen dituzten irakasleak; justu DBHrako orientatzailea.

c) Laguntza, prestakuntza eta aholkuak: PATetako zerbitzuen aholkuak (noizik eta behin edota sistematikoki) edo beste zerbitzu edo erakunde batzuenak (unibertsitatea, lan-taldeak); laguntza-talde soziokomunitarioek ikastetxeko lanean parte hartzea; ikastetxeko prestakuntza-egitasmoak; eskolaz kanpoko jarduera osagarriak; familiekin lan egiteko planak; langileak nola erabili jakiteko, irizpide malguak erabiltzea.

d) Ikastetxeek dirua ere eska dezakete, bai programa aurrera eramateko behar dituen materialak lortzeko, bai Hezkunzako administrazioak ez dituen zerbitzuak kontratatzeko.

## IV. ATALBURUA
## EGITASMOAK ONARTZEA ETA JARRAIPENA ETA EBALUAKETA EGITEA

### 12. atala.- Egitasmoen deialdia, aurkezpena eta onarpena.

1.- Deialdiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egingo ditu, bai aukera gutxiagoko inguruetako ikastetxeetan osotasunean esku hartzeko egitasmoak aurkezteko deialdiak (agindu honetako 6. atalean aipatutakoak), bai heziketa-ekintza zehatzetarako egitasmoak aurkezteko deialdiak ere (7. atalean aipatutakoak).

2.- Ikastetxeko zuzendaritzak eskaria Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko du, dena delako epean (zehaztuko da). Eskariarekin batera, egitasmoaren diseinua (8. atalaren arabera) eta 6.4 eta 7.2 ataletan egitasmo-mota bakoitzerako agindutakoa azaltzeko aktak ere aurkeztu beharko ditu.

3.- Pedagogi Berrikuntzarako lurralde-buruak honako txosten hauek bildu beharko ditu, gero eskariari eransteko:
a) Talde multiprofesionalaren txostena: proposamena ikasleen premietara ondo egokituta dagoen baloratuko du, eta proposatutako neurriek ahalik eta bazterketarik txikiena ekarriko dutela kontu hartuko du.
b) Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren txostena: egitasmoa agindu honetan eta deialdian zehaztutako baldintzetara eta ikastetxeko ezaugarrietara ondo egokituta dagoen azalduko du, eta baliabide-eskariak aztertzeko ere balioko du.

4.- Batzorde bat osatuko da, propio, balorazioa egin eta ikastetxeak aurkeztutako egitasmoak onartzeko. Batzorde horrek egokiak iruditzen zaizkion aldaketa guztiak egin ahal izango ditu. Onarpen horretan, Sailak kasuan kasu emango dituen baliabide bereziak ere zehaztu beharko ditu, egitasmo bakoitza zein epetarako onartu duten azaltzearekin batera. Batzordeak txostena Hezkuntzako sailburuordearen eskuetan utzi beharko du, eta horrek erabakiko du, azkenean, egitasmoak onartzen diren ala ez.

### 13. atala.- Egitasmoen jarraipena eta ebaluaketa; betetzen diren jakiteko.

1.- Osotasunean esku hartzeko egitasmoetan edo heziketa-ekintza zehatzetarako egitasmoetan lan egiten duten ikastetxeek egitasmo horien ebaluaketa bat egin, eta urteroko txostenari erantsi beharko diote, hobetzeko proposamenekin batera.

2.- Egitasmoa martxan jartzen den jakiteko ebaluaketa (kanpokoa) Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak egin beharko du ikasturtean zehar, eta, horretarako, ebaluaketa-txostena ere egin beharko du. PATak, ikasturte amaieran, beste txosten bat egin beharko du, egindako jarraipena azaltzeko.

3.- Ikastetxean osotasunean esku hartzeko edo ekintza zehatzak egiteko egitasmoren bat onartuta daukaten ikastetxe guztiek baloraketa-saio bateratu bat izango dute, Ikuskaritza Teknikoak deiturik. Saio horretan, ikastetxearen hobekuntza-proposamenak, PATeko txostena eta Ikuskaritza Teknikoaren ebaluaketa-txostena aztertuko dituzte. Ikuskaritza Teknikoak, era berean, ebaluaketa-txosten bat egin beharko du, bere eskualdean agindu honetako egitasmoren bat lantzen ari den ikastetxe bakoitzeko. Txosten hori, gero, Pedagogi Berrikuntzarako lurralde-burutzara bidali beharko du.

4.- Jarraipen eta ebaluaketa-prozesu horretatik sortutako txostenak kontuan hartuko dira, jakina, osotasuneko egitasmoak nahiz heziketa-ekintza zehatzetarako egitasmoak berritu behar direnean, hau da, indarrean egoteari uzten diotenan, balio-epea amaiturik.

## V. ATALBURUA
## ESKOLARATZEKO PROGRAMA OSAGARRIAK

### 14. atala.- Definizioa.

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasle jakin batzuen premiei erantzuna emateko bide arrunt eta berezi guztiak agortu ondoren, eta gizarte-baldintza txarretan diren edo eskolara egokitzeko arazo larriak dituzten ikasleei -berdin bakar bati nahiz talde oso bati- erantzunak emateko, salbuespen modura, berariazko erantzunak antolatu ahal izango dira, Eskolaratzeko Programa Osagarrien bidez eta hamasei urte baino gutxiagoko ikasleentzat, beti ere.

2. Eskolaratzeko Programa Osagarriek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasteko aukera emango dute, asteko eskola-orduetatik tarte bat hartuta batzuetan, eta bolada batean denbora guztia hartarako erabiliz beste batzuetan. Kanpoko unitate berariazkoak erabiliko ditugu, eta garrantzirik handiena ohiko sistemara itzultzeko edo heldutasunera eta bizimodu aktibora heltzeko faltan dituzten edukinei emango diegu. Curriculuma ikasleen beharretara egokitu beharko da, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak garatu behar dituen oinarrizko gaitasunak bazterrean utzi gabe. Edonola ere, programa horietan parte hartzen duten ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeren batean egongo dira matrikulatuta eta ikastetxe horretako ikasleak izango dira, ondorio guztietarako.

### 15. atala.- Eskolaratzeko Programa Osagarriak ematen dituzten ikastetxeak.

1. Eskolaratzeko Programa Osagarriak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ikastetxeetan edo harekin homologatutakoetan eraman beharko dira aurrera. Irakasle-talde espezializatua eduki beharko dute eta halako programei ekiteko beharrezko instalazio eta ekipamenduak ere bai. Ikastetxe horiek Ikastetxeko Egitasmo Sozioedukatibo bat ere eduki beharko dute, ikasleen premietara egokiturik.

2. Eskolaratzeko programa osagarriak ematen dituzten ikastetxeak homologatu egingo ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak; eta lehenengo, aukeran, Lanbide Hastapeneko programak eta osabidezko hezkuntzako programak ere garatzen dituzten ikastetxeak -bete beharreko baladintzak ere zehaztuko ditu-. Progama horiek egiteko, beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuekin hitzarmenak izenpetzeko aukera ere badu. Eta baita beste aukera bat ere: talde nahasiak sortzea, Saileko eta erakunde laguntzaileko langileekin.

**16. atala- Ikasleak nola sartuko diren eskolaratzeko programa osagarrietan.**

1. Ikasleak banan-banan sartuko dira eskolaratzeko programa osagarrietan, eta, lehenago, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ohiko arauetan jasotako neurriak agortu ondoren.

2. Horretarako, honako izapide hau bete beharko dugu:

a.- Ikastetxeak txosten bat egin beharko du, azaltzeko zergatik komeni zaion, ikasleari, Eskolaratzeko Programa Osagarrietan parte hartzea.

b.- Banan banako curriculum-proposamena, ohiko ikastetxean eta programa osagarrian garatzeko. Zehaztu beharrekoak: helburuak, edukinak, ebaluaketarako irizpideak, zenbat denbora programa osagarri barruan, eta proposamenak zenbat iraungo duen hasiera batean behintzat.

c.- Ikasleen legezko ordezkariek eta ikasleak berak zer deritzoten neurri hau garatzeari.

d.- DBHko ikastetxea eta programa osagarria koordinatzeko plana. Erreferentziako pertsona bat jartzea ikastetxerako eta programa osagarria eman behar duen ikastetxerako.

e.- Pedagogi Aholkutegiko talde multiprofesionalaren txostena, Eskolaratzeko Programa Osagarri batean parte hartzea komeni den ala ez eta arrakasta izango badu zein baldintza bete behar dituen azaltzeko.

f.- Ikuskaritza Teknikoaren txostena, neurri hori hartzeko aholkatzeko, eta programetan parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituztela ziurtatzeko.

g.- Pedagogi Berrikuntzarako lurralde-burutzaren onarpena.

**17. atala. Ikasleen egoera akademikoa.**

1.- Ikasleak DBHko institutuan edo ikastetxean matrikulaturik egongo dira, eta hor izango dute espedientea zabalduta. Eskola-ziurtagiriak matrikulaturik dauden DBHko institutuek egin beharko dituzte.

2.- Etengabeko ebaluazio prozesuan, ikaslea zein egoeratan den azaldu beharko da. Arlo jakin batzuetan -zehaztuko dira zeinetan- heziketa osatu edo curriculuma egokitze aldera zer egin den azaldu beharko da, ebaluaketaz ebaluaketa.

Gurasoei eman beharreko informazioa DBHko institutuak eta Eskolaratzeko Programa Osagarriko arduradunek egingo dute, elkarrekin.

"Curriculuma Egokitzeko Neurri" modura agertuko dira jasota ikastaroko azken ebaluaketan, agiri akademikoetan, eskolaketa-liburuan eta dagozkion arloetan.

3.- Ikasle horiek tituluak lortu ahal izateko, Ikastetxeko Curriculum Egitasmoan zehaztutako ebaluaketa-irizpideak erabili beharko dira. Edonola ere, ondo bermaturik geratu beharko du etapako gaitasunak behar bezain ondo eskuratu dituztela.

4.- 16 urte betetzen dituztenean, Curriculuma Zabaltzeko Programetan parte hartzeko aukera izango dute -matrikulaturik dauden bigarren hezkuntzako ikastetxean-, eta baita Lanbide Hastapeneko Programetan ere.

**18. atala.- Eskolaratzeko Programa Osagarriak nola betetzen diren jakiteko, jarraipena eta ebaluaketa.**

1.- Hiru hiletik behin, gutxienez, programa horietan dabilen ikasle bakoitzarekin halako jarraipen bat egin beharko da. Ofizialki matrikulaturik dagoen ikastetxeko ikasketa-buruak egingo du deia, honako hauek biltzeko: ikaslearen tutorea edo erreferentzi ikasturteko irakasleren bat, ikastetxean Eskolaratzeko Programa Osagarria ematen duen pertsona bat, eta erreferentziako ikastetxea dagoen eskualdeko talde multiprofesionaleko beste pertsona bat.

Ikasleak zenbat ikasi duen eta bestelako baldintzek ere komenigarria dela erakusten badute, batzorde horrek ikaslea DBHko dagokion ikasturtean sartzea erabakitzeko ahalmena izango du.

2.- Ikasturtean behin, gutxienez, Eskolaratzeko Programa Osagarriak ematen dituzten ikastetxe bakoitzean zer egin den baloratzeko saio bat egin beharko da. Saio horietako burua Pedagogi Berrikuntzarako lurralde-burua edo ordezko izendatzen duena izango da, eta honako hauek parte hartuko dute, ikastetxeko arduradunarekin batera: Osabidezko Hezkuntzako Zerbitzuetako burua, ikastetxea dagoen lurraldeko Osabidezko Hezkuntzako Unitateko teknikaria, eta dagozkion ikuskaritza teknikoko eta PATeko kide bat. Ebaluaketa-saio horietatik, txosten bat sortu beharko da, ikastetxeko egitasmo sozioedukatiboa eta funtzionamendua hobetzeko aholku batzuekin.

**GEHIGARRIZKO XEDAPENA.**

Aukera gutxiagoko gizarte-inguru edo kultura-talde batekoa dela-eta hezkuntzaren aldetik premia bereziak dituen ikasleari zein erantzun ematen ari zaion jakiteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erantzun horren jarraipena egingo du, horretarako osatuko den batzorde baten bidez. Agindu honetako 13 eta 18. ataletan aipatutako batzordeek zer-nolako txostenak egiten dituzten ikusita, egokiak iruditzen zaizkion hobekuntza-proposamenak aztertu, eta Hezkuntza sailburuordearen eskuetan utzi beharko ditu, kontuan har ditzan.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lehena.-** Hezkuntza Sailburuordetzak baimena du agindu hau bere irizpideei jarraituz aplikatu, interpretatu eta garatzeko.

**Bigarrena**.- Honako agindu hau indarrean egongo da EHAAn argitaratzen den egunetik hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko uztailaren 30.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

**AGINDUA, aldekoak ez diren kultur eta gizarte-egoerei eta eskolan egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleei buruzkoa.**

## HARTZAILEAK

**Bakarka nahiz taldeka laguntza edo hezkuntza-eskuhartze jakin batzuk behar dituzten ikasleak**

**Arrazoiak**

- Bere gaitasunen eta bere mailako curriculumaren arteko curriculum-distantzia handia izatea, aldekoa ez den kultur edo gizarte-talde batekoa izatearen ondorioz.
- Eskola huts egitea eta hezkuntza-ingurunearekin harremanak izateko zailtasuna isla izaten dituzten eskolara ezin egokituzko egoerak, aldekoa ez den ingurune soziokultural bateko kide izatearekin zerikusia dutenak.
- Aldekoak ez diren ingurune soziokulturalekin zerikusia duen eskolatze berantiarra.
- Familiaren aldi baterako lana dela eta ohikoak diren desplazamenduek eragindako eskolatze irregularra.
- Egokitzapen linguistiko bat behar izatea hezkuntza-ingurunea aprobetxatzeko, beste gizarte-ingurune batzuetatik datozen ikasleak izateagatik (inmigranteak).

**Arrazoiak**

- Eskola-ingunera ez egokitzea, oro har ikaskuntzako atzerapenarekin batera izan ohi dena eta maiz jokabidearen inguruko arazoekin adierazi ohi dena.

## JARDUKETA-PRINTZIPIOAK

- Hezkuntza-erantzuna ikaslearen premia, interes, ezaugarri, esperientzia eta kulturara egokitzea, berori malgutzea eta igurikapen handiei eutsiz esperientzia arrakastatsuak garatzea ahalbidetuz.

- Prebentziorako estrategiak sustatzea erreaktiboen gainetik;
- integratzaileak banatzaileen gainetik;
- curriculuma aberastea curriculuma gutxitzearen edo sinplifikatzearen gainetik;
- Desberdintasunarekiko errespetua eskubideen eta aukeren berdintasunarekin lotzeko jarduerak sustatuz.

- Jarduketak ikastetxeko proiektuetan egituratzea baliabideen esleipena aniztasun sozio-kulturalaren tratamenduarekin koherente izango diren proiektu zehatz horiei lotuz.

- Familien eta komunitateko beste elementu batzuen partehartzea sustatzea erabakiak hartzerakoan eta eskuhartze-proiektuen garapenean.

**JARDUKETA OROKORRAK**

- Hezkuntza goiztiarra sustatzea.
- Eskola huts egitearen aurkako programak garatzea, osasuna, garbiketa, gizarte-ohiturak, lan-mundurako sarbidea, helduarora bideratzea, balioen hezkuntza eta abar sustatzea.
- Jantoki-zerbitzuak garatzea eta eskolaz kanpoko jarduera motibatzaileak eta indartzaileak garatzea.
- Bigarren hizkuntza garatzeko programak ezartzea eta gutxienen taldeen hizkuntza eta kulturari eusteko eta horiek zabaltzeko esperientziak gauzatzea.
- Familien eta ordezkarien partehartzea sustatzea.
- Ikasleen eta irakasleen arteko komunikazio-trebetasunak sustatzea, aldi berean, gizarte-trebetasunak, balioak eta eskola-munduan berriz sartzeko jarrerak garatuz.
- Irakasleen egonkortasuna eta egokitzapena sustatzea.

## LEHENTASUNEZKO HEZKUNTZA-EKINTZA

| **Aldekoa ez den inguruneko ikastetxeetako eskuhartze orokorrerako proiektuak.** | **Berariazko hezkuntza-eskuhartzerako programak** |
|---|---|
| Ikastetxe edo etapa batek eskuhartzeko modua ikasleekin batera<br>eta<br>irakasle guztiekin edo gehienekin batera definituko du eta<br>aldeko ingurunekoa ez den ikastetxeko ezaugarriak beteko ditu. | Eskuhartze-proiektuaren definizioa ez da orokorra<br>edo<br>irakasleetako batzuena bakarrik<br>eta<br>aldekoa ez den ingurune bateko ikastetxeko ezaugarriak ez ditu betetzen. |

Ikastetxe bat aldekoa ez den inguruneko ikastetxea dela esango dugu bere ikasleen %50 baino gehiagoa honako egoera hauetakoren batean dagoenean:

- Familiako errenta ikasketa-bekak izateko gehienezko kopuru gisa ezarritakoa baino txikiagoa denean.
- Gutxiengo talde etnikoetako edo gizarte-diskriminazioko egoeran dauden taldeetako kide denean.
- Orain gutxi inmigratutako edo hiruhilekoa baino luzeagoak diren aldi baterako ausentziak dituen familietakoa denean.

## ESKUHARTZE OROKORRERAKO PROIEKTUAK

**Definizioa**

Ikastetxe batek edo bertako etapa batek bere ikasleen hezkuntza-premiei erantzuteko modu bat ezartzen du ikastetxeko eskuhartze orokorren planteamendutik eta irakasle guztiak edo gehienenak inplikatzen dira.

**Ezaugarriak**

- Helburua ikastetxearen oinarrizko agiriak dira: IHP, ICP eta AJA.
- Ikastetxeen beren ekimenez edo hezkuntza-administrazioaren proposamenez egiten dira.
- Abian jartzeko deialdiak ezarriko dira.
- 4 urteko iraupena izango dute eta berritu ahal izango dira.
- Klaustroaren edo OOGren 2/3arekin edo Eskola Kontseiluaren bidez onartzen dira.

## BERARIAZKO HEZKUNTZA-ESKUHARTZERAKO PROIEKTUAK

**Definizioa**

ICPan oro har ezarritako curriculumaren, antolamenduaren edo/eta funtzionamenduaren inguruko hainbat alderdi aldatuko dituzten berariazko jarduketen bidez ikasle horiei erantzuteko modua planteatzen da.

**Ezaugarriak**

- Bi urte iraungo dute eta berritu ahal izango dira.
- Eragindako irakasleek proposatuko dituzte.
- Ikastetxeko Klaustroari jakinaraziko zaizkio.
- OOGren edo Eskola Kontseiluaren bidez onartzen dira.

**ESKUHARTZE-PROIEKTUEN DISEINUA**

**a) Proiektua justifikatzen duten arazoen eta horri heltzeko ikastetxeak duen gaitasunaren azterketa.**

**b) Eskuhartze-proposamena**

- Proiektua zein ikasleri zuzenduta dagoen mugatzea.
- Egoera bakoitzerako curriculum-planteamendu orokorra eta berariazkoa.
- Tutoretzako edo/eta hezkuntza-orientazio pertsonalerako eskuhartzeak, ikastetxeko tutore-irakasleek eta orientatzaileek garatu beharrekoak.
- Burutzeko beharrezko baliabideak, ekonomikoak, pertsonalak nahiz materialak, eta kanpoko agenteen aholkularitza-plana, egongo balitz. Antolamenduko eta funtzionamenduko neurriak. Ikastetxea prozesu guztian inplikatzea.
- Gizarte-zerbitzuekin eta soziokomunitarioekin lakidetzan aritzeko plana, adinez txikikoengan eta beren familiengan eragiten duten ekintzak koordinatzeko asmoz.

**c) Jarraipenerako eta barruko ebaluaziorako prozeduraren diseinua eta proiektuaren ebaluazirako irizpideak.**

## LEHENTASUNEZKO HEZKUNTZA-EKINTZA

| HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA |
| --- |
| • Ikastetxea eta gela izango dira oinarrizko erreferentzia.<br>• Ondo mugatutako egoera berezietan bakarrik eskainiko dute taldekoak ez diren irakasleek gela arruntatik kanpoko arreta.<br>• Beste irakasle batzuek esku hartzen dutenean, baterako eskuhartzerako joera izango da.<br>• Lehentasunezko arreta-zentro izango dira laguntza-zerbitzuetatik hezkuntza-sistemarainokoak. |

| DBH |
| --- |
| • Ahalik eta integratzaileenak izango dira.<br>• Lehentasunezko arreta-zentro izango dira laguntza-zerbitzuetatik hezkuntza-sistemarainokoak. |

| ESKUHARTZE-MOTAK | |
|---|---|
| **HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA** | **DBH** |

**CURRICULUMAREN INGURUKOAK**

- Curriculuma ikasleen premia errealetara egokitzea.
- hainbat mailari jarraiki oinarrizko gaitasunen garapena sustatzen duten eta lankidetzazko metodologia aktiboak sustatzen dituzten jarduerak diseinatzea;
- ikastetxean dauden kultur eta gizarte-talde desberdinen elementuak barne hartzea;
- komunikaziorako gaitasunak garatzea;
- ikaslearen ezaugarrietarako egokiak diren materialak prestatzea.

DBH:

- curriculumaren hainbat arlo eremuetan integratzea;
- gutxienen kulturekin zerikusia duten aukerako gaiak izatea ikasle guztiek eta gutxiengoen hizkuntzak garatzeko aukerako gaiak;
- eskola huts egitearen aurka borrokatzeko programak;
- gizarte-trebetasunak garatzeko programak;
- ikasle horien ikastetxeetako harrera-programak.

**ANTOLAMENDUAREN INGURUKOAK**

- Ordutegiak ikasleen premietara egokitzea;
- eskolako orduetan eta eskolaz kanpokoetan aberasteko ekintzak egitea;
- jarduera batzuetan talde berean bi irakasle izatea eta beste batzuetan taldeak banatzea;
- taldekatze malguak;
- beste irakasle batzuek gelatik kanpo eskuhartze puntualak/sistematikoak egitea;
- aldi batean zehar bakarrik eskolatu diren ikasleekin lan egiteko aldi baterako unitateak sortzea.

DBH:

- talde baten edo aldi baterako hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle baten eta irakasleen arteko koordinaziora bideratutako uneak;
- gela bakoitzetik pasatzen diren irakasleen kopurua murriztea;
- lantegiko jarduerak motibaziorako eta oinarrizko alderdien ikaskuntzarako erabiliko dituzten unitateak;
- lan linguistikorako berariazko taldeak.

**TUTORETZAREN INGURUKOAK**

- Banan-banako jarraipenerako tutoretza-lana;
- familia eskolara hurbiltzea sustatuko duten programak;
- familia-eskola programak garatzea;
- harrerarako eta egokitzapenerako unitateak sortzea.


BALIABIDE PERTSONAL ETA MATERIAL BEREZIAK
Dauden giza baliabideak optimizatzea
Giza baliabide berriez hornitzea
Laguntza, prestakuntza eta aholkularitza
Baliabide ekonomikoak


ONARPENA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deialdiak ezarriko ditu
Ikastetxeko Zuzendaritza
Eskaera
Proiektua
Aktak
Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutza
TMParen txostena
Ikuskaritza Teknikoaren txostena
Batzordea
Balorazioa
Onarpena (osoa edo aldaketekin).
Hezkuntza Sailordetza
Erabakia
Jarraipena eta ebaluazioa
Ikastetxeek urteko Memorian proiektu horien balorazioa eta hobekuntzarako proposamenak hartuko dituzte barne.
Ikuskaritza Teknikoak kanpoko ebaluazioa eta ebaluaziorako txosten bat egingo ditu.
PATek egindako jarraipenaren txosten bat egingo du.
saioa
Ikuskaritza Teknikoak ikastetxe bakoitzaren ebaluaziorako txosten bat egingo du.

# ESKOLATZE OSAGARRIRAKO PROGRAMAK

**Definizioa**

Aldi batean, kanpoko izaera duten berariazko unitateetan, sistema arruntera berriz egokitzeko edo helduaro aktiborako sarbidea errazteko helburuarekin eta, DBHko oinarrizko gaitasunei uko egin gabe, beren premietara egokitutako curriculum batekin DBH egiteko aukera eskaintzen duten programak dira.

**Zeinentzat**

Gizarte-zailtasun berezian dauden edo eskolara egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleentzat edo ikasle-taldeentzat.

**Ikastetxeak**

- Sailaren ikastetxeak.
- Sailak homologatutako ikastetxeak (irakasle-talde espezializatua eta intalazio eta ekipamenduak dituztenak).
- Sailak lehentasuna duten ikastetxeak homologatuko ditu, lanbide-hastapenerako programak eta osabidezko hezkuntzako programak ere ematen dituztenak.
- Entitateekin, publiko nahiz pribatuekin, hitzarmenak sinatu ahal izango dira.

**Sarbidea**

Ikasleak banan-banan sartuko dira, DBHaren araubide arruntean aurreikusitako neurriak agortu ondoren.

**Prozedura**

- Ikastetxearen txostena
- Ikastetxe arruntean eta programa osagarrian garatzeko curriculum-proposamen indibiduala.
- Legezko ordezkarien eta ikaslearen beraren iritzia.
- Derrigorezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko eta programa osagarriko koordinazio-plana. Erreferentziako pertsonak.
- Talde multiprofesionalaren txostena
- Ikuskaritza Teknikoaren txostena
- Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzaren onarpena.

**ERABAKIA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza Sailordetzarena, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena.**

Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuaren arabera (eta dekretu horretan dago arauturik hezkuntzaren aldetik zein erantzun eman behar zaien -eskola ulerkor eta integratzaile batean- heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei), aparteko gaitasun intelektualak dituzten ikasleei, hezkuntzaren bidez, ikasketa-etapa baterako eta besterako zehaztuta dauden helburuak lortzeko gaitasunak neurriz garatzen lagundu behar diegu batez ere. Horretarako, hainbat neurri ematen dizkigu aukeran, eta, besteak beste, derrigorrezko eskolatze-aldia laburtzeko aukera ere bai, baldin eta, beti ere, komenigarria bada, ikaslea nahikoa garatu eta heldurik dagoelako, bai pertsona modura, eta bai afektibitate eta hartu-emanen aldetik ere.

Aparteko gaitasun intelektualak dituztela-eta heziketa-premia bereziak dituzten ikasle horien eskolatze-aldiaren iraupena -salbuespen modura- nola malgutu (baldintzak eta jardunbidea) 1996ko apirilaren 24ko Agindu batean dago araututa. Agindu hori oinarrizko araua da.

Beste alde batetik, egin beharreko ebaluaketa psikopedagogikoak eta aplikatu beharreko aparteko curriculum-neurriak ere zehaztu beharko ditugu, benetan bermatu nahi baldin badugu aparteko gaitasunak dituen ikasle horrek bere ahalmenak bete-betean, neurriz eta eskola-inguru normalizatu batean garatuko dituela.

Curriculumaren barruan erabakirik hartu aurretik, behar bezain ondo arrazoitu beharko ditugu, eta, alde horretatik, ikaslea eskolaratzeko araudi orokorra aldatzea ere komeni da.

Hori guztia ikusirik; dagozkigun aginpideak bitarteko; heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei eskola ulerkor eta integratzaile batean hezkuntzaren aldetik zein erantzun eman arautzen duen 118/1998 Dekretuan zer jartzen duen kontuan; aparteko gaitasun intelektualak dituztela-eta heziketa-premia bereziak dituzten ikasle horien eskolatze-aldiaren iraupena -salbuespen modura eta oinarrizko arauen indarrarekin- nola malgutu (baldintzak eta jardunbidea) arautzen duen xedapenean (1996ko apirilaren 24ko Aginduko azken xedapenetan bigarrenean) erabakitakoa betetzeko, Hezkuntza Sailordetzak honako hau

ERABAKI DU:

**Lehenengoa.- Non aplikatuko den.**

Erabaki honek Euskal Autonomia Erkidegoan derrigorrezko hezkuntza ematen duten ikastetxeetarako balio du.

**Bigarrena.- Xedea.**

Hona hemen erabaki honek zein xede duen: eskolatze-aldia malgutzeko eskatzeko zer egin behar den zehaztea; zein ebaluaketa beharko den zehaztea; aparteko curriculum-neurriak erregistratzeko sistema zehaztea (halakorik hartu behar bada); eta aparteko gaitasunak dituztela-eta heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzunak zer-nolakoa izan behar duen argitzea.

**Hirugarrena.- Hezkuntzak eskaini beharreko arreta.**

1.- Aparteko gaitasun intelektualak dituztela-eta heziketa-premia bereziak dauzkaten ikasleek ohiko eskoletan ikasi behar dute.

2.- Ikasle horiek direla-eta curriculumean egokitzapenik egitekotan, aparteko gaitasun intelektualak dituzten ikasleei beren ahalmenak bete-betean, neurriz eta eskola-inguru normalizatu batean garatzen laguntzeko balio beharko dute aldaketa horiek.

3.- Aparteko gaitasunak dituztela-eta heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna bi bidetatik etor daiteke: curriculuma zabaltzea; edo derrigorrezko eskolatze-aldia malgutzea eta curriculumak banan-banan egokitzea, beraz.

4. Neurri berezi horietako bat edo bestea hartu, ikaslearen legezko tutoreei jakinarazi behar zaie aukera horren berri. Neurriak martxan jarri aurretik, ados daudela eta onartu ere egiten dutela adierazi beharko dute idatziz.

**Laugarrena.- Ebaluaketa psikopedagogikoa.**

1.- Ikasleari buruz jasotako informazioak honako alderdi hauek bildu behar ditu derrigorrez:

a) Ikasleari buruzkoak: ikasle bakoitzaren aparteko gaitasunak; eskolako ibilbidea; curriculum-mailako gaitasuna; nola ikasten duen; curriculumean garatzen diren gaitasunak zenbateraino betetzen dituen, eta, batez ere, inolako oreka-gabeziarik ba ote duen intelektoaren eta alderdi psikomotorraren artean, hizkuntza eta arrazoitzeko gaitasunaren artean, sentimenduak eta intelektoaren artean; autokontzeptua; zein eratara ikasten duen eta zein eduki eta aktibitate nahiago dituen, arloka banaturik; buruhausteak konpondu eta berriak sortzeko abilidadea; helburuak, ekina ote den eta ikasteko erritmoa.

b) Eskolari buruzkoak: hezkuntza-interbentzioaren ezaugarriak; taldeko edo gelako beste ikasleekin eta irakasleekin zer-nolako harremanak dituen; hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nola antolatu.

c) Familiari eta gizarteari buruzkoak: familiaren ezaugarriak; inguruaren ezaugarriak; gurasoek zer espero duten; programarik antolatzen bada, laguntzeko gertu dauden; ikasleak, bere inguruan, pertsona modura garatzen lagunduko dion beste baliabiderik ba ote duen kulturaren edo gizartearen esparruan.

2. Ebaluaketaren ondorengo txosten psikopedagogikoan aurreko puntuko edukin horiek denak hartu beharko dira kontuan, eta nondik jo behar dugun adierazi beharko digu. Beharrezkoa bada, curriculuma zabaltzeko edo derrigorrezko eskolatze-aldia malgutzeko proposatuko digu. Kasu batean zein bestean, curriculuma egokitu egin beharko da, banan-banan.

Curriculum-egokitzapenean kontuan hartu beharreko berezitasunak ere zehaztu beharko ditu.

**Bosgarrena.- Curriculum-neurriak.**

1. Ikaslearen aparteko etekina arlo jakin batzuetakoa dela ikusten bada ebaluaketa psikopedagogikoan, orduan curriculuma egokitu eta zabaldu egin beharko dugu. Horixe bera egin beharko dugu, ikaslearen aparteko emaitzak orokorrak eta jarraiak izanagatik ere, afektibitatearen aldetik edo gizartearekiko harremanetan hutsunerik erakusten badu.

Aipatu dugun banan banako curriculum-egokitzapenaren bitartez, helburuak eta edukinak aberastu, ebaluaketa-irizpideak malgutu eta, ikasleak nola ikasten duen kontuan harturik, zein metodologia zehatz erabiltzea komeni den azaldu beharko dugu.

Zabaltze-egokitzapen hori dezenteko curriculum-egokitzapen modura hartu beharko dugu.

2. Ebaluaketa psikopedagogiko horretan, eskolaratuta dagoen zikloko edo ikasturteko helburuak dagoeneko lortuak dituela agertzen bada, derrigorrezko eskolatze-aldia lehenago hasteko aukera eman, edo garai hori laburtu ere egin daiteke, baldin eta, horrela, ikasleari mesede egingo diogula uste badugu, bai haren oreka pertsonala garatzeko, bai eskola-lanetarako ere. Neurri bata zein bestea, dena dela, 1996ko apirilaren 24ko aginduan xedatutakoaren arabera hartu beharko dira.

Batean zein bestean, curriculuma egokitu egin beharko da banan-banan, eta egokitzapen horren barruan: helburuak eta edukinak egokitu edo areagotu, ebaluaketa-irizpideak malgutu eta, ikasleak nola ikasten duen kontuan harturik, zein metodologia zehatz erabiltzea komeni den azaldu beharko dugu.

3. Banan banako curriculum-egokitzapen hori Haur Hezkuntzan egin behar denean, aukeretako bat -ikastetxearen ahalemenak kontuan, beti ere- hasiera-hasierako eskola-mailetatik justu gorogoko arlo edo ezagutza-esparruren bat lantzen hastea da. Beste aukera bat ikaslea aberasteko hainbat neurri hartzea da: besteak beste informatika eta musikako lenguaiak ikasi eta garatzeko, edo atzerriko hizkuntzak ikasteko.

4. Aparteko gaitasun intelektualak dauzkaten ikasleen banan banako curriculum-egokitzapenak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan egin behar direnean, ere, arlo bat edo bat baino gehiago -aukerakoak izan edo ez- justu goragoko mailan lantzeko aukera izango dugu. Horretarako, ikasleak, jarraian-jarraian, arlo horietan etekin handia lortzen duela erakutsi beharko du, eta dagokion ziklo edo mailan ikasiko lituzkeen ezagutza eta gaitasunak dagoeneko ikasiak eduki beharko ditu.

5. Metodologiaren aldetik, berriz, estrategia modura, antolakera malguak erabil ditzakegu, ikasleak, batzuetan, beste maila batzuetako taldeetan parte hartzeko aukera izan dezan, hau da, curriculum-gaitasunen aldetik adinez dagokionaz besteko mailetan.

6. Curriculumean dezente egokitu ditugun arlo edo ikasgaietan ikasle horiek zer ikasi duten ebaluatzeko, dagozkion egokitzapenetan ikasle horientzat berariaz zehaztutako ebaluaketa-xede eta ebaluaketa-irizpidak erabili beharko ditugu.

**Seigarrena.- Zer egin curriculum-mailako neurri egokiak eskatzeko ikasle horientzat.**

1.- Curriculumaren zabaltze-egokitzapena:

Curriculuma egokitu eta zabaltzeko baimena emateko, banan banako curriculum-egokitzapen esanguratsuetarako aginduan zehazten den bide bera erabili beharko da (1998ko uztailaren 24ko agindua). Dena dela, ebaluaketa psikopedagogikoaren txosten osoa ere erantsi beharko diogu, erabaki honetan zehaztutako beste gorabehera jakinekin batera.

2.- Eskolatze-aldia aurreratzea edo laburtzea, Derrigorrezeko Hezkuntzan:

Hona hemen zein bide erabili behar dugun, Lehen Hezkuntzan eskolatze-aldia lehenago hasteko eskatzeko, edo derrigorrezko hezkuntzako zikloren bat laburtzeko eskatzeko:

a.- Ikaslearen ezaugarriei antzemanik, eta hezkuntza-premia bereziak dituela ikusirik, ikastetxeko zuzendariak, dagokion ziklo hasieran, egoera legezko tutoreei azaldu, eta, haien baimenarekin -idatziz beharko du izan- talde multiprofesionalei deituko die. Talde horiek egingo dute erabaki honetako laugarren puntuan zehaztutako ebaluaketa psikopedagogikoa.

b.- Ikastetxeko zuzendaritzak eskaria Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzaren eskuetan utzi beharko du. Eskari horri, honako agiri hauek erantsi beharko dizkio, beti:

- Irakasle-taldearen txostena. Koordinazioa ikaslearen tutoreak egin beharko du eta aholkualaritza-lana, berriz, irakasle aholkulariak edo ikastetxeko orientatzaileak halakorik baldin badago.
- Curriculuma egokitzeko proposamen zehatza, ikastetxeko zuzendariaren izenpearekin. Hona hemen proposamen horri nahitaez erantsi beharrekoak: zein helburu, edukin eta ebaluaketa-irizpide proposatu nahi diren; metodologiaren aldetik egokienak iruditzen zaizkigun aukerak; eta ikastetxeak antolakuntza dela-eta zein neurri hartzeko asmoa duen: taldeketetarako, baliabideetarako eta tokia eta denbora banatzeko.
- Agiri bat, idatziz adieraziko duena legezko tutoreak ados daudela proposaturiko interbentzio-planarekin.

c.- Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzak txosten psikopedagogikoak egiteko eskatuko die talde multiprofesionalari eta Hezkuntzako Ikuskaritzari. Azken horretan, curriculuma egokitzeko proposamenek indarrean dagoen legedia betetzen duten eta ikaslearen eta familiaren eskubideak bete diren edo ez zehaztu beharko da.

d.- Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzak hamabost eguneko epea izango du a) eta b) puntuetan aipaturiko agiriak Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzara bidaltzeko.

e.- Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak hiru hilabeteko epea izango du erabakia hartzeko (eskaria lurralde-ordezkaritzan aurkezten duten egunetik aurrera). Erabaki hori ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, idatziz; eta zuzendaritza horrek helaraziko die interesatuei.

3.- Ikasturte hasierako argibideetan zehaztuko da zein epe dagoen bai curriculumaren zabaltze-egokitzapena izapidetzeko, bai eskolatze-aldia aurreratzeko edo eskolatze-aldi hori murrizteko ere (derrigorrezko irakaskuntzan, beti ere).

**Zazpigarrena.- Aparteko neurriak erregistratzea.**

1.- Eskolatze-aldia malgutzekotan, horrela jaso beharko da ebaluaketa-agirietan:

a) Lehen Hezkuntza:

Eskolatze-aldia aurreratu edo laburtu egiten badugu, "Derrigorrezko eskolatze-aldi malgututa: lehenago hasi da" edo "laburtu egin dugu" jarri beharko dugu ikaslearen espedientean, hain zuzen ere, "datu mediku eta psikopedagogiko garrantzitsuak" izeneko atalean. Txosten psikopedagogikoa eta curriculum-egokitzapena ere jaso beharko ditugu espedientean.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: Eskolatze-aldia laburtu egiten badugu, "Derrigorrezko eskolatze-aldia malgututa: laburtu egin dugu" jarri beharko dugu ikaslearen espedientean, hain zuzen ere, "datu mediku eta psikopedagogiko garrantzitsuak" izeneko atalean. Ebaluaketa psikopedagogikoko txostena eta cirriculum-egokitzapena ere espedientean jaso beharko ditugu.

c) Eskolatze-aldia malgutu egiten baldin badugu -Lehen Hezkuntzan nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan-, Oinarrizko Hezkuntzako Eskolaketa Liburuan zehaztu beharko dugu, Oharren artean. Zehaztapen horretan, laburtzeko baimena emateko erabakia zein egunetakoa den ere jarri beharko dugu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren iraupena malgutu ondoren ikasleak ez baldin baditu beretzat egokituriko helburuak lortzen, eta proposamena lehen zikloa laburtzeko baldin bazen, bigarren ikasturtea amaitzen denean erregistratuko da ebaluaketa eskolaketa-liburuan. Bigarren eta hirugarren ikasturteetarako bada, lehen zikloko eta hirugarren ikasturteko ebaluaketak bananduta erregistratuko dira; eta horixe bera egingo dugu hirugarren eta laugarren ikasturteetarako bada ere.

2.- Ikastetxeak Lehen Hezkuntzako lehen ikasturteko ikasleentzako eskolaketa-liburua eskatzen duenean, ikasleen zerrenda ere aurkeztu beharko du, eta, zerrenda horretan, aparteko gaitasunak dituztela-eta ikasturte horretan behar baino -edo adinez egokitu baino- urtebete lehenago hasi behar duten ikasleak ere zehaztu beharko ditu. Eskariarekin batera, baimen-erabaki guztien -banan-banan ikasle guztienak, algia- kopiak ere aurkeztu beharko ditu, eskari horri erantsita.

3.- Curriculum-egokitzapenen erregistroak 1998ko uztailaren 24ko Aginduan erabakitako moduan egin beharko dira, agindu horretan baitaude araututa curriculum-egokitzapenetarako baimenak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleak justu goragoko ikasturteko gairen bat ere ikasten baldin badu, gorabehera hori ikasketa-espedientean, ebaluaketetako notetan eta banan banako ebaluaketa-txostenean ere jaso beharko da. Ebaluaketa-aktetan eta eskolaketa-liburuan dilijentzia bidez jaso beharko dira, eskolaratzeari buruzko Oharren artean.

4.- Ikasleak beste ikastetxe batean hasi behar badu, lehengo ikastetxeak honako agiri hauen kopiak bidali beharko dizkio berriari: txosten psikopedagogikoa, egindako curriculum-egokitzapena eta baimena emateko erabakia.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa.-**

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak eta Hezkuntzako Ikuskaritza Nagusiak -dagozkien aginpideen barruan, beti ere- erabaki honetan xedaturikoa garatu eta betetzeko beharrezko aginduak emateko baimena dute.

**Bigarrena.-**

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean erabaki hau.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko uztailaren 24.

Hezkuntza sailburuordea,
ALFONSO UNCETA SATRÚSTEGUI.

## Aparteko talentuaren baldintza pertsonalekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei buruzko ERABAKIA.

**APARTEKO TALENTU INTELEKTUALAREN BALDINTZA PERTSONALEKIN ZERIKUSIA DUTEN HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK.**

**Curriculum-neurri bereziak**

- Zabaltzeko curriculum-egokitzapena
- Derrigorrezko eskolatzealdia malgutzea

**EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA**

**Ikasleari dagozkionak:**

- Aparteko talentuko baldintza pertsonalak;
- eskola-historia;
- curriculum-gaitasuna;
- ikaskuntza-estiloa;
- baldintza pertsonalak curriculumak garatzen dituen gaitasunei dagozkienean;
- autokontzeptua;
- ikaskuntza-estiloa;
- problemak ebazteko eta planteatzeko trebetasuna;
- helburuak, iraunkortasuna eta ikaskuntza-erritmoa.

**Eskola-testuinguruari dagozkionak:**

- Hezkuntza-eskuhartzearen ezaugarriak;
- gela-taldeko ikaskideekin eta irakasleekin ezartzen dituen elkarreraginak;
- hezkuntza-erantzunaren antolamendua.

**Familiako eta gizarteko testuinguruari dagozkionak:**

- familiaren ezaugarriak;
- ingurunearen ezaugarriak;
- familiaren igurikapenak;
- jarduketa-programa posiblearen garapenean lankidetzan aritzea;
- eskualdeko kultur eta gizarte-baliabideak.

**ZABALTZEKO CURRICULUM-EGOKITZAPENA**

Honakoetan egiten da:

- arlo-kopuru jakin batean errendimendua apartekoa denean.
- errendimendu orokorra apartekoa eta jarraia denean, baina eremu afktiboekin eta gizarteratzeko eremuekin disinkronian dagoenean.

Edukia:

- helburuak eta edukiak aberastea,
- ebaluaziorako irizpideak malgutzea,
- berariazko metodologia

**Prozedura**

Curriculum-egokitzapen indibidual esanguratsuena bezalakoa, delako etapakoa.

+

Ebaluazio psikopedagogikoko txostena

# DERRIGORREZKO ESKOLATZEALDIA MALGUTZEA

Honakoetan gertatzen da:

- bere zikloko edo mailako helburuez jada jabetu denean eta neurri hori bere oreka pertsonala eta gizarteratzea garatzeko egokia dela aurreikusten denean.

Aukerak:

- derrigorrezko eskolatzearen hasiera aurreratzea.
- eskolatzealdia murriztea.

Horrek curriculum-egokitzapen indibiduala dakar.

Derrigorrezko eskolatzealdia malgutzea

**Prozedura**

Ikastetxearen Zuzendaritza

- Legezko ordezkariei jakinaraztea
- TMParen eskuhartzea eskatzea, ebaluazio psikopedagogikoa egiteko.

Eskaera egingo du

- Irakasle-taldearen txostena.
- Curriculuma aldatzeko proposamena.
- Legezko ordezkarien adostasuna.

Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutza

- TMParen txostena
- Ikuskaritza Teknikoaren txostena.

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza

- Erabakia
- Ikastetxeari berri ematea.

# TERMINOEN GLOSATEGIA

**Aldekoa ez den inguruneko ikastetxea**

Bere ikasleen %50 baino gehiago ondoren adierazitako egoeraren batean duen ikastetxeari egiten dio erreferentzia:

*Familiako errenta ikasketa-bekak izateko gehienezko kopuru gisa ezarritakoa baino txikiagoa denean.

* Gutxiengo talde etnikoetako edo gizarte-diskriminazioko egoeran dauden taldeetako kide denean.

* Orain gutxi inmigratutako edo hiruhilekoa baino luzeagoak diren aldi baterako ausentziak dituen familietakoa denean.

**Aldekoa ez den kultur edo gizarte-egoeran dauden ikasleak**

Eskolatzearen aldi batean edo eskolatze osoan zehar aldekoa ez den ingurune soziokultural batekoak izatearen ondorioz laguntza jakin batzuk eta berariazko eskuhartzeak behar dituzten ikasleak edo ikaste-taldeak dira. Ezaugarri hauek izan ohi dituzte:

* curriculum-distantzia handia

* eskola-ingurunera ez egokitzea, eskola huts egitea eta harremanetarako zailtasunak

* eskolatze berantiarra

* eskolatze irregularra, familiako aldi baterako lana dela-eta egin beharreko desplazamenduen ondoriozkoa.

**Aldi baterako hezkuntza-premia bereziak**

Garapenaren une jakin batean agertzen diren eta aurreikus daitekeenez aldi batekoak bakarrik izango diren hezkuntza-premia bereziei egiten die erreferentzia. Aldi baterako hezkuntza-premia bereziak ikasle baten ospitaleratzean, gaixotasunen bat denean, aldi baterako traumatismoen kasuan curriculumerako sarbiderako baliabideak erabiltzerakoan eta abarretan sor daitezke.

**Araubide bereziko irakaskuntza**

Honako hauei esaten zaie araubide bereziko irakaskuntza:

a) irakaskuntza artistikoei.

b) hizkuntzen irakaskuntzari.

**Araubide orokorreko irakaskuntzak**

Hezkuntza-sistemak araubide orokorreko irakaskuntzak honela antolatzen ditu:

a) Haur Hezkuntza

b) Lehen hezkuntza

c) Bigarren Hezkuntza: DBH, Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa.

d) Goi Mailako Lanbide Heziketa

e) Unibertsitate Hezkuntza

**Arloko curriculum-egokitzapen esanguratsua**

Arlo jakin batean edo batzuetan helburuak, edukiak eta ebaluaziorako irizpideak aldatzen edo ordezten dituzten, baina aldi berean etapako helburuei eusten dieten eta ikasleei etapa amaitzerakoan titulazioa lortzea ahalbidetzen dieten egokitzapenak dira.

Ez-gaitasun fisikoren bat edo sentimenen inguruko ez-gaitasunen bat dagoen kasuetan, arloko curriculum-egokitzapena curriculum arruntari gizartean normaltasunez moldatzeko beharrezkoak diren egokitze-trebetasunak garatzera bideratutako berariazko curriculuma gehitzen diona izango da.

**Batxilergoko eta erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloetako curriculum-egokitzapen esanguratsuak**

Batxilergoko jakintzagaietako edo heziketa-zikloetako moduluetako edukiak aldatzen dituzten egokitzapenak dira. Helburu eta ebaluaziorako irizpide batzuetan eragina izan dezakete, baina jakintzagai bakoitzari dagozkion gaitasunetan ikasleak maila nahikoa lortu duela bermatu behar dute.

**Berariazko curriculuma**
***Hezkuntza Bereziko ikastetxeen curriculuma. Curriculum berezitua***

Egokitze-maila koalitatiboki eta koantitatiboki oso esanguratsua duten curriculumei egiten die erreferentzia. Horrenbestez, curriculum horiek bereziak eta oso desberdinak izango dira. Gisa horretako curriculum bereziek curriculum arruntaren elementu gehienak funtsean aldatzea eskatzen dute eta ikasleen premiei curriculum arruntaren edo/eta baliabide arrunten bidez erantzun ezin zaienean proposatu ohi dira modu berezian, adibidez, Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan eta ikastetxe arruntetako gela egonkorretan. Berariazko curriculumak ikaskuntza funtzionalari, autonomia pertsonalaren garapenari eta komunikazio- eta gizarte-trebetasunen jabekuntzari ematen dio lehentasuna.
(IKUS*: Hezkuntza Bereziko ikastetxeak. GNO duten ikasleentzako gela egonkorrak)*

**Berariazko hezkuntza-eskuhartzerako proiektua**

Aldekoa ez den inguruneko ikasleei bideratutako proiektua da, familiako errenta baxua dutenen, gizartean diskriminatutako taldekoak direnen edo orain gutxi inmigratutako familiako kide direnen kopurua ikasleen erdia baino gehiago ez denean edo ikastetxean eskuhartze orokorrerako proiektu bat aurreikusi ez denean. Bi urteko iraupena izango dute.
(IKUS*: Ikastetxeetako eskuhartze orokorrerako proiektua. Aldeko kultur edo gizarte-egoeran ez dauden ikasleak)*

**Berariazko hezkuntza-eskuhartzerako proiektua**

Aldekoa ez den inguruneko ikasleei bideratutako proiektua da, “aldekoa ez den kultur edo gizarte-egoeran dauden ikasleei” izeneko atalean definitutako baldintzak betetzen ez dituztenean edo ikastetxean eskuhartze orokorrerako proiektu bat aurreikusi ez denean egiten dena. Ikastetxearen inplikazioa ez da hain orokorra baina erantzuna malgutasun handiarekin antolatzea ahalbidetzen du. Bi urteko iraupena izango dute.
(IKUS*: Eskuhartze orokorrerako proiektua. Aldeko kultur edo gizarte-egoeran ez dauden ikasleak)*

**Berariazko ikastetxe edo Hezkuntza Bereziko ikastetxe**

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, horien larritasunaren eta iraunkortasunaren arabera, hezkuntza egokitua eskaintzea helburu duen ikastetxea dugu.

Gisa horretako ikastetxe bateko ikasleak ez daude ikastetxe arruntetan ematen den derrigorrezko curriculuma egiten ari direnen araudi akademikoari lotuta. Gisa horretako ikastetxeetako curriculum-proiektuak curriculum-egokitzapen esanguratsuak izan ohi dira.

(IKUS*: Berariazko curriculuma)*

**Buruko atzerapen larria duten ikasleak**

Ikasle horiek beren gaitasun eta trebetasunen garapen orokor baxua dute. Ikasteko eta ikasitakoa orokortzeko zailtasuna dute ezaugarri. Beren AK 25-40 artekoa izan ohi da.

Mugimen-garapen pobrea eta gutxieneko hizkuntza-gaitasunak dituzte: oro har autolaguntzako entrenamenduak ez die onurarik sortzen. Gutxi komunikatzen dute. Hitz egiten eta komunikatzen ikas dezakete, oinarrizko autolaguntza-trebetasunei dagokienean entrena daitezke eta ohituren entrenamendu sistematikotik izaten dute onurarik. Laguntza intentsiboak eta konstanteak behar dituzte.

**Buruko atzerapen sakona duten ikasleak**

Ikasle horiek beren gaitasun eta trebetasunen garapen orokor baxua dute. Ikasteko eta ikasitakoa orokortzeko zailtasuna dute ezaugarri. Beren AK 25-40 artekoa izan ohi da.

Erabateko atzerapena, sentimenei eta mugimenari dagozkien arloetan funtzionatzeko gutxieneko gaitasunekoa. Mugimen-garapenen bat badu, autolaguntzako entrenamenduan maila mugatu batean erantzun dezake. Laguntza intentsiboak eta konstanteak behar ditu.

**Buruko atzerapena duten ikasleak**

Gaur egungo buruko atzerapenaren definizioak batez bestekoarena baino esanguratsuki baxuagoa den funtzionamendu intelektual orokorrari, garapenaldian agertzen denari eta egokitze-jokabidearen defizitarekin batera agertu ohi denari, egiten dio erreferentzia. Definizio horrek ez-gaitasuna duen pertsonak ohiko ingurunean duen egokitze- eta funtzio-maila hartzen ditu barne, Adimen Koefizientetik eratorritako atzerapen-maila baino gehiago. Burutiko Atzerapenerako Elkarte Amerikarraren (A.A.M.R) arabera, honakoetan izango dugu buruko atzerapena:

* uneko funtzionamenduan funtsezko mugapenak daudenean
* funtzionamendu intelektuala batez bestekoarena baino esanguratsuki baxuagoa denean
* egokitze-trebetasunen 2 arlo edo gehiagotan mugapenak daudenean
* atzerapena 18 urte izan baino lehen agertzen denean

(IKUS: *Egokitze-trebetasunak*)

**Curiculum-egokitzapen indibiduala (CEI)**

Ikasle batek eskolatzearen aldi batean edo eskolatze osoan zehar izan

ditzakeen hezkuntza-premia bereziei erantzuteko curriculumaren elementuetan (helburu, eduki, ebaluaziorako irizpide, metodologia eta antolamenduan) egiten diren aldaketak dira.

**Curriculum-aniztasuna**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiteko modu alternatiboa da, ebaluazio psikopedagogikoa egin ondoren, irakasleen ustez etapako gaitasun orokorrak berariazko programen bidez bakarrik lor ditzaketen hamasei urte baino gehiago eta hamazortzi baino gutxiagoko ikasleei bakarrik eskaintzen zaiena.

Programa horiek eskola-ikasturte batean edo bitan garatu ahal izango dira.

**Curriculum-egokitzapen indibidual esanguratsua (CEI)**

Arlo bateko edo gehiagotako, zikloko edo etapako helburuen zati handi bat egokituz edo baztertuz, curriculum baten derrigorrezko elementuetan aldakuntza garrantzitsuak egiteko neurri berezia da.

Haur eta Lehen Hezkuntzan curriculum-egokitzapentzat joko ditugu curriculum-erreferentea ikaslearena ez den beste ziklo edo etapa batean dutenak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan curriculum-egokitzapentzat joko ditugu curriculum-erreferentea ikaslearena ez den beste etapa batean dutenak, curriculum-distantzia eskola-ziklo bat baino gehiagokoa denean.

**Curriculumerako sarbiderako baliabideak**

Sarbidetasunaren kontzeptuak normalizazioaren ikuspegitik eta ez neurri berezienetik guztien partehartzea errazteko ingurunearen plangintzari egiten dio erreferentzia. Curriculumerako sarbiderako baliabideak minusbaliotasun-motaren bat edo hezkuntza-premia bereziren bat duten pertsonak eskola-curriculumera iristea eta bertan parte hartzea ahalbidetzen duten tresna, laguntza tekniko, bitarteko material eta ingurunearen baldintzak dira. Curriculumerako sarbiderako baliabideen adibideetako batzuk honakoak dira: eraikuntza-oztopoak kentzea, komunikaziorako sistema alternatiboak, itsuek erabili ahal izateko ikusmen-estimuluak ukimen-estimulu bihurtzeko material tifloteknikoa, idazmakina bereziak eta abar. (IKUS*: Eraikuntza-oztopoak kentzea. Laguntza teknikoak)*

**Curriculumerako sarbiderako egokitzapena**

Egokitzapen-mota hori beharrezkoa izango da ikasleak sistemarako eta hezkuntza-jarduerarako sarbiderako bitarteko arruntak erabiltzea eragozten dioten hezkuntza-premia bereziak dituenean. Ikaskuntzarako sarbidea izateko beharrezkoak diren laguntza tekniko eta pertsonalei egiten die erreferentzia.

**Curriculum-eremua**

Curriculuma antolatzeko modu bat da. Eremu batean arlo-multzo bat, eta hala badagokio, curriculumaren jakintzagaiak, biltzen dira. Horiek osotasunean ematen eta ebaluatzen dira.

Hezkuntza-premia berezien markoan curriculuma modu funtzionalean antolatzeko, orokortzeko eta elkarrekin lotzeko era hau honako curriculum-proiektuetan gauza daiteke: gela egonkorren, zereginen ikaskuntzarako gelen, Hezkuntza Bereziko ikastetxeen, aldekoa ez den inguruneko ikasleak dituzten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen curriculumetan.

**Ebaluazio psikopedagogikoa**

Ebaluazio psikopedagogikoa irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren prozesuan esku hartzen duten elementuei buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko, aztertzeko eta baloratzeko prozesua da. Berorren helburua beren garapen pertsonal edo/eta akademikoan desegokitzeak dituzten edo izan ditzaketen ikasleen hezkuntza-premia bereziak identifikatzea da, baita curriculum-proposamenaren eta beharrezkoak izan litezkeen laguntza-moten inguruko erabakiak oinarritzea eta zehaztea ere. Honakoetan oinarrituko da:

* curriculum-ebaluazio batean
* ikaslearen eta irakasleen eta ikaskideen arteko elkarreraginaren behaketan. Horietan kontuan izango da eskolako eta familiako testuingurua.

(IKUS*: HPBen testuinguruzko ebaluazioa)*

**Egokitze-trebetasunak**

"Egokitze-jokabide" terminoa ordezkatzen du eta nor bere kabuz gizartean moldatzeko beharrezko irizten diren gaitasunen multzo zabal bati egiten dio erreferentzia. Burutiko Atzerapenerako Elkarte Amerikarrak (A.A.M.R.) 10 egokitze-trebetasun definitzen ditu eta buruko atzerapenaren adierazle gisa hartzen du bi egokitze-trebetasunetan edo gehiagotan mugapenak izatea. Hona hemen egokitze-trebetasun horiek:

* Komunikazioa.
* Autozaintza.
* Etxeko bizitzako trebetasunak.
* Gizarte-trebetasunak.
* Komunitatearen erabilera.
* Autozuzendaritza
* Osasuna eta segurtasuna.
* Akademiko funtzionalak
* Aisia eta astialdia
* Lana

**Egun-zatiko eskolatzea**

Hezkuntza Bereziko ikastetxe bateko eta ikastetxe arrunt bateko integrazioaren artean elkarbanatutako eskolatze-sistema dugu. Egun-zatiko integrazio hori ikaslearen jatorrizko ikastetxeak, matrikula izango duenak, eskatuko du.

**Eskola-egokitzapenerako arazo larriak dituzten ikasleak**

Eskola-ingurunera egokitzen ez diren ikasleei egiten die erreferentzia. Egokitze-eza irakasleekiko eta berdinen taldearekiko jokabide-arazoetan eta ikastetxeko elkarbizitzarako arauak sistematikoki haustean adierazten da.

**Eskolatze osagarrirako programak**

*Eskolatzeko programa osagarriak*

Hamasei urte baino gutxiagoko ikasleei kanpoko izaera duten berariazko unitateetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza astean aldi batez edo aldi jakin batean zehar egun osoz egiteko aukera eskainiko dieten programak ditugu. Programa horietan parte hartuko duten ikasleek Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntzako ikastetxe batean egon behar dute matrikulatuta eta alderdi guztiei dagokienean bertako ikasle izango da.

Programa horiek administrazioak berak ezar ditzake edo gizarte- eta hezkuntza-eskuhartzerako erakunde eta entitateekiko hitzarmenen bidez egin daitezke.

Izen ematea banakakoa izango da eta araubide arruntean aurreikusitako neurri guztiak agortu ondoren egingo da. Hamasei urte betetzen dituztenean ikasleek curriculum-aniztasunerako programetarako sarbidea izango dute.

**Eskolatzea malgutzea:**

*** zabaltzea**

Derrigorrezko Hezkuntza egiteko arau gisa aurreikusitakoa baino denbora gehiago emateari egiten dio erreferentzia. Gehienez ere bi urte luzatu ahal izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren artean. Alabaina, horien artean hartuko da barne Haur Hezkuntza luzatzeko urtea, hala egin bada behintzat.

Derrigorrezko Hezkuntzaren ostekoan, Batxilergoa mailetako curriculuma osatzen duten jakintzagaiak bloketan zatituz egin ahal izango da. Batxilergoa egiteko urte-kopurua bira zabal liteke.

Erdi Mailako edo Goi Mailako Berariazko Lanbide Heziketari dagokionean, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek eskolatze arrunterako aurreikusitako denbora bikoitzean banatu ahal izango dituzte moduluak.

*** murriztea**

Eskolatzearen hasiera aurreratzeari edo/eta berorren denbora murrizteari dagokio. Hori ebaluazio psikopedagogikoan bere zikloko edo mailako helburuez jada jabetu dela irizten denean eta bere oreka pertsonala eta sozializazioarena garatzeko neurri hori egokia dela aurreikusten denean egin ahal zango da. Aparteko talentu intelektualari lotutako erantzun-neurri bat da.

(IKUS: *Goi-mailako gaitasunak dituzten ikasleak*)

**Eskuhartze orokorrerako proiektua**

*** aldekoa ez den ingurunean**

Aldekoa ez den ingurunean dagoen ikastetxe baten proiektuari egiten dio erreferentzia. Eskuhartze orokorrerako proiektutzat joko dugu ikastetxe batek edo bertako etapa batek bere ikasleen hezkuntza-premiei ikastetxeko eskuhartze orokorren planteamendutik erantzuteko ezartzen duen eta irakasle gehienak inplikatzen dituen proiektua. Antolamenduaren, curriculumaren eta tutoretzen alderdien inguruko jarduketak konbinatzen dira. lau urte iraungo dute eta horien ondoren berritu ahal izango dira.

**Ez-gaitasun fisikoa edo mugimenaren ez-gaitasuna duten ikasleak**

Nerbio-sistemako arazoetatik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ditugu. Nerbio-sistemako arazo horien jatorria burukoa izan liteke buruko paralisiaren eta traumatismo kraneo-entzefalikoen kasuan adibidez, edo bizkarrezurrekoa, bizkarrezur erdibituaren, traumatismo medularren eta poliomelitisaren kasuan esate baterako. Arazoak muskulu-sisteman, distrofiak

adibidez, edo sistema osteo-artikularrean, sortzetiko malformazio, mugimen-urritasun eta abarrengatik.

**Garapenaren nahaste orokorrak dituzten ikasleak (GNO)**
***Garapenaren nahaste sakonak dituzten ikasleak***

Garapenaren nahaste orokorra terminoak, garapenaren nahaste sakona ere deitu izan denak, gizarte-elkarreraginaren garapenean, komunikazioan eta irudimenean eragina duten nahasteen espektro bati egiten dio erreferentzia. Gehienetan nahaste horiek buruko atzerapena izaten dute lagun eta kronikotzat jo ohi dira. Hori dela eta, gisa horretako nahasteak dituzten pertsonek hezkuntza-premia berezi iraunkorrak izango dituzte. GNO duten ikasleak gizarte-harremanen alterazio iraunkorrak eta garrantzitsuak dituzte, komunikazioaren, hitzezkoaren nahiz hitzezkoa ez denaren, narriadura koalitatiboa dute eta esterotipiak eta mugimendu errepikakorrak sortzen dituzten jardueren eta interesen errepertorio mugatuak dituzte. GNOen artean dugu autismoa.

**Gela egonkorra**

Ikastetxe arruntetan, zailtasun larriak izateagatik eta beharrezko curriculum-egokitzapenak egin arren, curriculum arrunta ikaskideekin elkarbanatu ezin duten edo gutxieneko zati batean bakarrik elkarbana dezaketen ikasleei erantzuteko sortutako gelak ditugu.

Gela horiek baliabide-mota finko batzuk izan ohi dituzte esleituta, asetzen diren premien eta larritzat edo iraunkortzat jotzen direnen motaren arabera.

**Gelako curriculum-proiektua**

Bertan arreta eskaintzen zaien ikasleen ezaugarrietara esanguratsuki egokitutako hezkuntza-proposamena azalduko duen agiria emaitza gisa izango duen prozesuari egiten dio erreferentzia. Irakasteko gaien eta moduen, denbora eta lekua antolatzearen, erabili beharreko laguntzen, metodologiaren eta abarren inguruko erabakiak biltzen ditu. Gelako curriculum-proiektua ikastetxe arrunt baten barruan larritasun handiagoa duten hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei berariaz erantzutera bideratutako gela bat dagoenean egiten da. Gelako curriculum-proiektu hori ikastetxeko curriculum-proiektuak hartuko du barne eta gelako programazioa eta lan-plan indibiduala egiteko marko izango da.

*** Zereginen ikaskuntzarako gelako curriculum-proiektua**

Gela horren ikastetxeko curriculum-proiektuak bere baitan hartuko du eta gelako irakasleek egingo dute ikastetxeko orientazio-zerbitzuen lankidetzarekin eta TMParen aholkuekin.

*** Gela egonkorreko curriculum-proiektua**

Autismoa, garapenaren nahaste orokorrak edo buruko atzerapen larria edo sakona dituzten ikasleen hezkuntza-premia berezietara egokitutako proiektua, gela horren ikastetxeko curriculum-proiektuan barne hartzen dena, da. Gela egonkorreko curriculum-proiektua onartzea curriculum-egokitzapen indibidualtzat jotzen da, hezkuntza-helburuak esanguratsuki egokitzen baitira. *(*IKUS*: Curriculum-egokitzapenak. Ikastetxeko curriculum-proiektua)*

**Goi-mailako gaitasunak dituzten ikasleak**

Ikasleen talde zabal eta heterogeneo bati, beren hezkuntza-premia orokorrei, beren ikaskideekin elkarbanatzen dituztenei, berariazkotasunen bat, hainbat mailatakoa eta hartutako adierazleren batekin edo batzuekin zerikusia duena, gehitzen diotenari, egiten dio erreferentzia.

Nahitaez honako alderdi hauek bete beharko ditu pertsona batek aparteko talentukoa dela esan ahal izateko: batez bestekoa baino adimen orokor handiagoa izatea; errendimendu akademiko ona izatea (errendimendu hori negatiboki baldintza dezaketen motibazio-arazorik edo beste nolabaitekorik ez bada); ikaskuntzarekiko motibazio nabarmena.

**Hautemate goiztiarra**

Urritasun fisiko, psikiko, sozio-kultural edo sentimenen inguruko bat susmagarri egiten duen sistematologia bat egiaztatzeko edo identifikatzeko prozesua, urritasuna agertu bezain laster egiten dena, dugu. Helburua hezkuntza-neurri prebentiboak eta osabidezkoak hartzea da, ahal den neurrian eteteko eta gaitasun-gabezia batek eta ingurugiroko estimuluen gabezia batek garapenean izan ditzakeen ondorioak prebenitzeko.

**Hezkuntza Bereziko berariazko irakasleak:**

*** Pedagogia terapeutikokoa**

Beharrezko prestakuntza duen irakasleen taldeko irakasle bat izan ohi da. Honakoak dira bere funtzioak:

* Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin banaka edo talde txikitan esku hartzea, gela arruntean zein laguntza-gelan.
* curriculuma ebaluatzerakoan lankidetzan aritzea
* curriculum-egokitzapen indibidualak egiterakoan eta garatzerakoan lankidetzan aritzea
* material didaktikoak prestatzerakoan lankidetzan aritzea
* familiekiko harremanetan lankidetzan aritzea
* irakasleekin lankidetzan aritzea ikasleen aniztasunari erantzuteko.

*** Entzumena eta hizkuntzakoa**

Irakasleen taldekoa da eta aipatutako prestakuntza edo espezializazioa du. Zailtasunak identifikatzeko eta beharrezko egokitzapenak egiteko tutore-irakasleekin eta ikastetxearen kanpoko eta barruko laguntzarako pertsonekin lankidetzan aritzea du funtzio. Bestalde, hizkuntza berriz ikasteko programak prestatzen eta garatzen dituzte ezarritako norabideen arabera eta larritasun eta premia handieneko egoerei lehentasuna emanez.

**Hezkuntza-indartzea**

Irakasleak diseinatutako eta prozesu didaktikoari lotutako bananako nahiz taldekako hezkuntza-neurriei, ebaluazio-prozesuan zehar hauteman den zailtasunen bat duten ikasleei proposatutako helburuak lortzen laguntzera bideratutakoei, dagokie.

**Hezkuntza-premia berezi iraunkorrak**

Ez-gaitasun fisiko edo psikiko edo sentimenen ingurukoetatik eratorritakoak diren eta sakontasun-maila dela eta ustez iraunkorrak izango diren hezkuntza-premia

bereziei egiten die erreferentzia. Hona hemen horien adibide batzuk: buruko atzerapena, gortasuna, mugimen-urritasuna eta abar.

**Hezkuntza-premia bereziak (HPB)**

Hezkuntza-premia bereziak eskolatzearen aldi batean zehar edo eskolatze osoan zehar, ez-gaitasun fisikoak edo psikikoak edo sentimenen ingurukoak izateagatik, jokabide-nahaste larriak izateagatik, aldekoak ez diren kultur edo gizarte-egoeran egoteagatik edo goi-mailako gaitasun intelektualekin zerikusia duten baldintza pertsonalak izateagatik berariazko hezkuntza-laguntza eta -arretak behar dituzten ikasleek dituztenak dira.

**Hezkuntza-premia berezien testuinguruzko ebaluazioa.**

Pertsonaren gaitasunez gain, hezkuntza-zeregina eta ikaskuntza-giroko baldintzak baloratzen dituen hezkuntza-ebaluaziorako eredu bat dugu. Testuinguruzko ebaluazioan ikaslearen diagnostikoa (zailtasunak, curriculum-maila, patologia eta abar) irakaskuntzaren, ikaskuntza-zereginen analisiaren, ikaslearen eta hezkuntza-munduaren arteko elkarreraginaren, irakasleen jokabidearen eta familiako egoeraren balorazio batekin osatzen da.
(IKUS*: Ebaluazio psikopedagogikoa)*

**Ikaskuntza funtzionala**

Funtzionaltasunaren kontzeptuak maiz ingurune naturaletan —eskolan, etxean, lan-munduan, gizartean, komunitatean— eskatu ohi diren eta horietan norberaren kabuz moldatzeko beharrezkoak diren trebetasunen multzoari egiten dio erreferentzia. Ikaskuntza eta irakaskuntza funtzionalak etxean, eskolan eta komunitatean ahalik eta independentziarik eta ekoizgarritasunik handienarekin jarduteko pertsonak duen gaitasunean eragiten duten trebetasunak hartzen ditu barne. Aitzitik, funtzionalak ez diren trebetasunak eguneroko bizitzan beharrezkoak izateko probabilitate gutxi dutenak izango lirateke. Buruko atzerapena duten pertsonen hezkuntzan ikaskuntza funtzionalen irakaskuntza lehentasunezko helburua da.
*(IKUS: Egokitze-trebetasunak)*

**Ikasle itsuentzako gela**

Gisa honetako gelak sortzea hezkuntza-administrazioak sustatuko du, ikastetxe arruntetan itsuei arreta eskaini ahal izateko. Beharrezko baliabideak izango ditu, zeinuen hizkuntza erabiltzen duten irakasleak eta ahozko trebetasunerako logopedak barne.

**Ikastetxeko curriculum-proiektua (ICP)**

Ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-praktikak oinarri izango dituen hitzarmenak jasotzen eta azaltzen dituen agiria da. Irakasle-taldeetako kide bakoitzaren ekimenak artikulatu eta koordinatuko ditu, jarduketa koordinatua ahalbidetuko duen marko orokorra eskainiz.

Proiektu horretan irakasle-taldeak Curriculum Garapenerako Dekretuaren (CGD) derrigortasunetatik eta Oinarrizko Curriculum Diseinuetan (OCD) bildutako orientabideetatik eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak (IHP) adierazitako asmo eta ildoetatik abiatuta ezarriko ditu hitzarmenak.

**Ikastetxeko gizarte- eta hezkuntza-proiektua**

Ikastetxe-mailan eskolatzeko programa osagarriak jasotzen dituen proiektua da.

(IKUS: *Eskolatze osagarrirako programak).*

**Integrazioa**

Ahalik eta mugapen gutxien ezarriko dituen eskola-ingurunea erabiltzearekin du zerikusia (hau da, gainerako ikaskideekin elkarreragiteko aukerak ahalik eta gutxien mugatuko dituen ingurunearekin).

**Irakasle orientatzailea**

Delako espezialitate hori duten Bigarren Hezkuntzako irakasleak dira. Beren zeregin nagusia ikastetxeko irakasleei eta bereziki tutoreei aholkuak eskaintzea, horiek koordinatzea eta laguntzea da, eskola- eta lanbide-orientazioari eta orientazio pertsonalari dagokien zereginetan, ikaslearen ikaskuntza-zailtasunekin eta nortasunarekin zerikusia duten alderdien inguruko eskuhartzearen plangintzan eta aniztasuna lantzeko, hezkuntza-indartzerako, curriculum-egokitzapenerako eta orientaziorako ekintzak garatzerakoan.

**Irakasle-aholkulariak**

Ikastetxean laguntzeko giza baliabide arrunt gisa definitzen dira. Ikastetxeko plantilaren zati dira eta beren zeregina tutore-irakasleei eta irakasle-taldeari laguntza eta orientabidea eskaintzea da.

**Kontseilu orientatzailea**

Irakasle-taldeak ikasle bakoitzari banaka eta konfidentzialtasunez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu osteko bere akademia- eta lanbide-etorkizunari buruz eskaintzen dizkion orientabide edo iradokizunei dagokie.

**Laguntza teknikoak**

Laguntza teknikotzat joko ditugu (LT) ez-gaitasunen bat duten pertsonek erabiltzen dituzten material, tresna eta ekipoak, hainbat konplexutasun-mailatakoak. LTen helburua, autonomia pertsonala lortzeko eta bizitza-kalitatea hobetzeko, ez-gaitasuna duen pertsonaren mugapen edo gabezia funtzionalak osatzea edo ordeztea da. Hona hemen LTen adibide batzuk: komunikaziorako taulak eta komunikatzaile elektronikoak, buruko-likornioa, egokitutako periferikoak eta ordenagailua, idazmakina bereziak, gurpil-aulkiak, aulkiarekin sartu ahal izateko beldar-ibilgailua eta abar.

**Laguntza-gela**

Ustez gela arrunteko baliabideekin bakarrik erantzun ezin diren premiak dituzten ikasleen eskolatzean laguntzeko bitartekoei egiten die erreferentzia. Gisa horretako gelak ikastetxeetan bertan egon ohi dira.

Ikasleei eskainiko zaien arreta egindako premien analisiaren eta testuinguruaren ebaluazioaren araberakoa izango da eta taldekakoa nahiz banakakoa izan daiteke, kasuen arabera. Arreta laguntza-gelaren espazioan eskain daiteke edo gela horretako irakaslea gela arruntera joan daiteke. Gela honetako irakasleek pedagogi terapeutikoko prestakuntza izango dute.

**Laguntza-zerbitzuak**

*** ikastetxetik kanpoko laguntza-zerbitzuak**

Ikastetxean bertan kokatzen ez diren laguntza-zerbitzuak dira. Aitzitik, zonen, lurraldeen edo autonomia-erkidegoen araberako eremua dute.

Zonetan: Pedagogi aholkutegiak eta irakasle ibiltariak.

Lurraldeetan: Itsuentzako baliabidetegiak (IBE)

Erkidegoan: Ikasketa Planak Eratzeko Institutua (IPEI)

(IKUS: *Pedagogi aholkutegia*)

**Lanbide hastapenerako berariazko programak**

Arreta berezia behar duten talde jakin batzuen lanbide-hastapenerako gizarte-bermeko programak dira. Jada badauden lanbide-hastapenerako berariazko programetako batzuk minusbaliotasun jakin batekin, gortasunarekin, ikusmen-urritasunarekin eta abarrekin zerikusia duten hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteei zuzendurikoak dira. Halaber, lanbide-hastapenerako berariazko programatzat jotzen dira bergizarteratzeko programetan edo gizarte-bazterketaren aurkakoetan parte hartzen duten gazteei bideratutakoak.

**Lanbide hastapenerako programak**

DBHko helburuak lortu ez dituzten ikasleei bideratutako programei, lan-munduan sartzea edo arautako irakaskuntzan, ahal bada, erdi-mailako heziketa-zikloetan, beren ikasketak jarraitzea ahalbidetuko dien oinarrizko prestakuntza eta lanbide-prestakuntza eskaintzea helburu dutenei, egiten die erreferentzia. Koalifikazio akademikorik eta lanbide-koalifikaziorik ez duten eta hezkuntza-sistema utzi duten hamasei urteko ikasleentzat daude pentsatuta. Gaur egun lanbide-hastapenerako ikastetxeetan (LHI), itunpeko ikastetxeetan edo entitate prinatuetan ematen dira.

**Lan-plan indibiduala**

Hezkuntza-lanaren plangintza indibiduala, denboraldi baterako pentsatutakoa eta ikasle bakoitzaren egoerara egokitutakoa, biltzen duen agiri bati egiten dio erreferentzia. Eskolatze-proposamen indibidualak eta proposatutako hezkuntza-ibilbidea ezezik, hezkuntza-edukiak, lehentasunezko garapen-eremuak edo -arloak, ebaluaziorako irizpideak, jarraibide metodologikoak eta berrikusteko eta jarraipenerako uneak ere har ditzake barne. Lan-plan indibiduala honako kasu hauetan egiten da:

*** Zereginen ikaskuntzarako gelako ikasleen kasuan.**

Lan-plan indibiduala helduarora bideratzeko proposamen zabalago baten zati da. Ikastetxeko orientazio-zerbitzuen eta TMPko Helduarora Bideratzeko Programaren ardura duen pertsonaren lankidetzarekin eta zonako gizartearen, lanaren eta kulturaren inguruko zerbitzuak eta ikaslearen beraren eta familiaren ekarriak kontuan izanik prestatzen da.

*** Gela egonkorreko ikasleen kasuan.**

Gela egonkorretan eskolatutako ikasleen lan-plan indibiduala ikaslearen hezkuntza-premia zehatzak eta gela egonkorrerako egindako curriculum-proiektua erreferentzia gisa hartuta prestatzen da. Plan hori curriculum-egokitzapen indibidualtzat hartzen da eta antzeko informazioa

biltzen du: ikaskuntzaren lehentasunezko helburuak eta edukiak, metodologia eta egin beharreko egokitzapenak. Plan hori aldi jakin baterako egiten da eta aldizka berrikusten da. Ikaslearen eskola-espedientearen zati da.

*** Ospitaleko eskola-arretaren kasuan**

Ospitale-gela batera joaten diren edo etxeko arreta jasotzen duten ikasleek lan-plan indibidual bat izaten dute, egoera horretan arreta eskaintzen dioten ikasleek eta bere ikastetxeko ikasleek egindakoa. Helburua ikaskuntza ikaslearen egoeraren arabera programatzea da, bi inguruneetan egiten duen lanarekin jarraituz.

*** Hezkuntza Bereziko ikastetxeko ikasleen kasuan**

Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean eskolatutako ikasle bakoitzak lan-plan indibidual bat du, hezkuntza-premia indibidualak eta ikastetxearen curriculum-proiektua aintzat hartuz prestatzen dena. Plan hori curriculum-egokitzapen indibidual esanguratsutzat hartzen da eta honakoa biltzen du: eskolatze-modua, ikaskuntzaren lehentasunezko helburuak eta edukiak, metodologia eta egin beharreko egokitzapenak. Plan hori aldi jakin baterako, ahal dela ikasturte baterako, egiten da eta aldizka berrikusten da, hezkuntza-ziklo bakoitza amaitzen denean.

*(*IKUS*: Curriculum-egokitzapen indibiduala. Curriculum-egokitzapen indibidual esanguratsua)*

**Normalizazioa**

Kulturaren ikuspegitik ahalik eta baliabiderik normatiboenak ahalik eta normatiboenak izango diren portaera eta ezaugarriak ezartzeko edo/eta horiei eusteko erabiltzean datza. Printzipio horrek urritasunen bat duten pertsona guztiei beren gizarteko bizitza-egoera eta -generoetatik ahalik eta gertuen egongo diren bizitza-moduak eta existentzia-baldintzak eskura jartzea esan nahi du. “Bizitza-baldintzen normalizazioan” datza eta ez pertsonaren normalizazioan. Ildo horretatik, normalizazio-printzipioa aplikatzeak ez du ez-gaitasuna duen pertsona pertsona normal bihurtuko, aitzitik, bere bizitza-baldintzak ahalik eta normalenak izan daitezen ahaleginduko da. Helburutzat hartzen den normalizazioa lan-metodotzat hartzen den integrazioaren bidez lortzen da.

**Oinarrizko lanbide-gaitasunak**

Lanbide-zeregin jakin bat garatzeko oinarrizkoak diren trebetasuna eta ezagutzari egiten diete erreferentzia. Horrenbestez, lanbidearen araberakoak izango dira. Titulu bakoitzerako lanbide-profil bat bada, nahiz eta figura bakoitzaren lanbide-esparruak lanpostu-multzo baterako gaitzea bermatzeko eta aldi berean espezializazio bat sustatzeko bezain zabala izan behar duen.

Lanbide-gaitasunak honako eremu hauetan garatu behar dira:

* lanbide-gaitasun teknikoa
* antolamendurako eta ekonomiarako lanbide-gaitasunak
* lankidetzarako eta ingurunearekiko harremanetarako gaitasuna
* kontingentziei erantzuteko gaitasuna

**Oztopoak kentzea**

Termino hori banakakoen eta taldeen erabateko integrazioa eta gizarte-bizitzan beren kabuz moldatzea, eta zehazkiagoa, minusbaliotasunen bat duten pertsonak eskolan eta gizartean integratzea galerazten duten oztopo eta hesiak kentzeari dagokio.

*** eraikuntza- eta urbanizazio-oztopoak**

Mugimen-arazoak dituzten pertsonen desplazamendua zailtzen eta eragozten duten izaera fisikoko ingurune-oztopoak dira. Adiera zabalean, eraikinen diseinutik eratorritako oztopoak ezezik, garraiobideetatik, etxeko tresnetatik, altzarietatik eta abarretatik, izaera fisikoko ingurune-oztopo izan daitezkeenetatik, eratorritakoak ere hartzen ditu barne.

*** informazio eta komunikaziorako sarbiderako oztopoak**

Adiera zabalari jarraiki komunikaziorako oztopo ditugu irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren edukiak ulertzea eta ikaslearen eskola- eta gizarte-ingurunean pertsonekin elkarreragitea eragozten duten oztopo metodologikoak. Hona hemen gisa horretako egoera batzuk: entzungarriak ez diren hitzezko kodeak ikusmen-kode ulergarri —zeinuen hizkuntza, idatzizko hizkuntza…— bihurtu behar dituzten pertsona gorrek horiek erabiltzea; hitzezko hizkuntzarik ez duten eta gizarte-ingurunea ulertzen ez duten buruko atzerapena duten pertsonek erraz ulertuko dituzten komunikazio-sistema alternatiboak edo/eta ikusmen-giltzarriak erabiltzea.

**Pedagogi Aholkutegia (PAT)**

Zonako hezkunta-laguntzarako zerbitzua da, ikastetxeaz kanpokoa, hezkuntza berritzeko eta hobetzeko sortutakoa eta unibertsitate-mailakoak ez direnenetan laguntzeko zerbitzu gisa eratutakoa. Berezko dituzten funtzioak betetzeko PAT bakoitza hainbat jarduketa-eremutan egituratzen da: talde multiprofesinalaren ardurapeko Hezkuntza Berezia; euskalduntzerako teknikaria; ikus-entzunezko bitartekoen, informatikako eta teknologia berrietako teknikaria; orientaziorako teknikaria; arloko eta etapako aholkulariak eta langile ibiltariak: logopedak, fisioterapeutak eta Hezkuntza Bereziko laguntzaileak.

Hona hemen sarea lurraldeka:

| | |
|---|---|
| Araba: | Gasteiz 1 eta Gasteiz 2 |
| Gipuzkoa: | Eibar, Irun, Errenteria, Donostia, Tolosa, Ordizia, Zarautz, Lasarte |
| Bizkaia: | Barakaldo, Basauri, Bilbo (2), Durango, Galdakao, Getxo, Gernika, Leioa, Sestao, Urtuella |

*(IKUS: Talde multiprofesionala)*

**Salbuespena**

Batxilergoan bakarrik har daitekeen neurria dugu. Zatikakoa edo osoa izan daiteke, jakintza gai batekoa edo batzuetakoa. Gisa honetako neurri bat entzumenaren, ikusmenaren eta mugimenaren inguruko arazo larriak dituzten ikasleen kasuan bakarrik hartu ahal izango da, behar bezala egiaztatutako egoera bereziek hala gomendatzen dutenean.

**Talde multiprofesionalak (TMP)**

Laguntza-zerbitzuetan parte hartzen duten psikologoen edo/eta pedagogoen taldeak dira, diagnostiko psikopedagogikoa, eskolatze-proposamena eta

hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslearen jarraipena egitea helburu dutenak. Ikasle horien irakasleen eta laguntzarako langileen aholkularitzaz eta orientabideaz ere arduratzen dira.

Talde horietako kide guztiek funtzio orokor eta funtzio espezialista bana dute prestakuntza espezializatua jaso duten hainbat programatan.
(IKUS: *Talde multiprofesionalen programak*).

**Talde multiprofesionalen programak**

Gisa horretan izendatzen da talde multiprofesionalen jarduketa espezializatuaren eremua:

***Irakasgaitasunaren garapena**

Ikaskuntzarako zailtasun larriak, buruko atzerapen, goi-mailako gaitasunak eta curriculumerako sarbiderako bitarteko teknikoak eskatzen dituen mugimen-urritasuna dituzten ikasleen arreta espezializatura bideratuta dago.

***Hezkuntza goiztiarra**

Programa honen erantzukizuna ikasleen hautemate goiztarra, jarraipena eta eskolatze-aurreikuspena ahalbidetzeko zerbitzu soziokomunitarioekiko koordinazioa garatzea da. Baita hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen familiei horiek eskolatzeko eta haur-eskoletako langileei horiei arreta eskaintzeko aholkuak ematea ere.

***Entzumena eta Hizkuntza**

Hizkuntzaren garapenerako zailtasun larriak, komunikazio-arazoak, gortasuna, entzumen-urritasuna eta ikusmen-urritasuna dituzten ikasleei arreta eskaintzea da programa honen arduradunen helburua.

***Gizarte-egokitzapena**

Eskola- eta gizarte-moldagabeziako egoerak, portaeraren arazo larriak, marjinazio-egoeran dauden kultur eta etnia-gutxiengoak, eta oro har eskola-aberastasunerako eta aldekoak ez diren egoeretako desberdintasunak konpentsatzeko hezkuntza-eskuhartzeak izan ohi dira bere arreta espezializatuaren gune. Baita gaixotasun luze bati lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eskainitako ospitaleko eta etxeko eskolatzea ere.

***Helduarora bideratzeko programa**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan, derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan, lan-munduratzeko egokitutako prestakuntzan eta lan-mundura eta helduarora iragaiteko prozesuetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak integratzeari dagokiona hartzen du barne. Helduen Hezkuntzan ikasle horiei eskaintzen zaien aholkularitzari ere badagokio.

***Garapenaren nahaste orokorrak**

Programa honek autismoa eta garapenaren bestelako nahaste

orokorrak, buruko atzerapen larria eta sakona, eta nortasunaren nahaste larriak dituzten ikasleei erantzun espezializatua eskaintzen die.

**Zabaltzeko curriculum-egokitzapena**

Ebaluazio psikopedagogikoan ikasleak arlo-kopuru jakin batean aparteko errendimendua duela edo aparteko errendimendu orokor eta jarraia baina eremu afektiboekin eta gizarteratzeko eremuekin disinkronian dagoena duela baloratzen duenean gauzatuko den egokitzapena dugu. Curriculum-egokitzapen esanguratsutzat joko dugu.

Aparteko gaitasun intelektualaren ondoriozko hezkuntza-premia bereziekin zerikusia duen erantzun-neurria da.

(IKUS: *Gaitasun altuko ikasleak*)

**Zeinuen hizkuntza**

Pertsona gorren jabekuntza-hizkuntza naturala da, testuinguru esanguratsuetan pertsona gorrarekin elkarreragiten duten hiztun gaituekiko harremanetan ikasten duena.

Hizkuntza horretan sinboloak gorputzaren bidez igortzen dira eta ikusmenaren bidez hartzen. Oinarrizko eraikuntza-elementuak eskema edo parametro formazionalak dira: eskuen konfigurazioa, espazioko lekua, mugimendua, ahurraren orientazioa eta paraleloki egiten diren eskuzkoak ez diren osagaiak.

**Zereginen ikaskuntzarako gela**

Gisa honetako gelak institutuetan, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan egon ohi dira.

Buruko atzerapenarekin zerikusia duten hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, hamasei eta hogei urte artekoei, zuzendutakoak dira.

Bi ziklotan egituratzen diren eta lanerako eta helduaren bizitza aktiborako prestakuntza sustatzea helburu duten lau ikasmaila dira. Bigarren zikloa programa arruntetan edo lanbide-hastapenerako berariazko programetan barne hartuz egin daiteke.

**Zikloko curriculum-egokitzapen indibidual esanguratsu orokorra**

Arloetan helburu orokorrak eta oinarrizko edukiak eta gune direnak kentzen dituzten egokitzapenak ditugu. Horien ondorioz, helburu orokorrak eta ebaluaziorako irizpideak nabarmen aldatzen dira.

## *SIGLAK/* SIGLAS

| | |
|---|---|
| **A.A.M.R.** | American Association on Mental Retardation<br>*Burutiko Atzerapenerako Elkarte Amerikarrak*<br>Asociación Americana de Retraso mental |
| **AACC/*GMGA*** | Altas Capacidades<br>*Goi Mailako Gaitasunak* |
| **AAT/*ZIG*** | Aula de Aprendizaje de Tareas<br>*Zereginen Ikaskuntzarako Gela* |
| **ACI/ *CNEI*** | Adaptación Curricular Individual<br>*Curriculuma Norbanakoari Egokitzea* |
| **ALE/*EHI*** | Audición y Lenguaje<br>*Entzumena eta Hizkuntza* |
| **AT/ *LT*** | Ayudas Técnicas/<br>*Laguntza Teknikoak* |
| **CAPV/ *EAE*** | Comunidad Autónoma del País Vasco<br>*Euskal Autonomi Erkidegoa* |
| **CEE/ *HBI*** | Centro de Educación Especial/<br>*Hezkuntza Bereziko Ikastetxea* |
| **CIP */ LHI*** | Centro de Iniciación Profesional<br>*Lanbide Heziketarako Ikastetxea* |
| **COP */PAT*** | Centro de Orientación Pedagógica<br>*Pedagogi Aholkutegia* |
| **CRI/ *IBE*** | Centro de Recursos de Invidentes<br>*Itsuentzako Baliabidetegia* |
| **DCA/ *IG*** | Desarrollo de Capacidades del Aprendizaje<br>*Ikasgaitasunen Garapena* |
| **DCB */ OCD*** | Diseño Curricular Base<br>*Oinarrizko Curriculum Diseinua* |
| **DDC/ *CGD*** | Decreto de Desarrollo Curricular<br>*Curriculuma Garatzeko Dekretua* |
| **EE/ *HB*** | Educación Especial<br>*Hezkuntza Berezia* |
| **EI/ *HH*** | Educación Infantil<br>*Haur Hezkuntza* |

| | |
|---|---|
| **EMP** ***/TMP*** | Equipo Multiprofesional<br>*Talde Multiprofesionala* |
| **EP** ***/ LMH*** | Educación Primaria<br>*Lehen (Mailako) Hezkuntza* |
| **EPA/** ***HH*** | Educación de Personas Adultas<br>*Helduen Hezkuntza* |
| **ESO/** ***DBH*** | Educación Secundaria Obligatoria<br>*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza* |
| **EX/** ***EX*** | Exención<br>*Exentzioa* |
| **LOGSE** | Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo<br>*Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea* |
| **NEE/** ***HPB*** | Necesidades Educativas Especiales<br>*Hezkuntza Premia Bereziak* |
| **PCC/** ***ICP*** | Proyecto Curricular de Centro<br>*Ikastetxearen Curriculum Proiektua* |
| **PEC** ***/ IHP*** | Proyecto Educativo de Centro<br>*Ikastetxearen Heziketa Proiektua* |
| **CON/*****AHO*** | Profesor Consultor<br>*Irakasle Aholkulari* |
| **PT/*****PT*** | Pedagogía Terapéutica (Profesor de )<br>*Pedagogia Terapeutikoa (Irakaslea)* |
| **TAS/** ***EST*** | Técnico de Adaptación Social<br>*Egokitzapen Sozialeko Teknikaria* |
| **TGD/** ***BNO*** | Trastornos Generalizados del Desarrollo<br>*Bilakaeraren Nahaste Orokorrak* |
| **TVA/*****HBP*** | Transición a la Vida Adulta<br>*Helduarora Bideratzeko Programa* |

| GAI AURKIBIDEA | DEKRETUA | ESKOLATZEKO IRIZPIDEEN AGINDUA | EGOKITZAPENEN AGINDUA | LEHENTASUNEKO HEZIKETAREN EKINTZAREN AGINDUA | GOI-MAILAKO IKAS-GAITASUNEN ERABAKIA |
|---|---|---|---|---|---|
| | **118/1998 DEKRETUA, ekainaren 23koa (EHAA-1998ko uztailak 13), premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.** | **AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa (EHAA-1998ko abuztuak 31) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko.** | **AGINDUA 1998ko uztailaren 24koa, (EHAA-1998ko abuztuak 31) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura.** | **AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa (EHAA-1998ko abuztuak 31) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat.** | **ERABAKIA, 1998ko uztailaren 24koa (EHAA-1998ko abuztuak 31) Hezkuntza Sailordetzarena, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena.** |
| Aukera gutxiagoko inguruetako ikastetxeetan osotasunean esku hartzeko egitasmoak | | | | Atalak: 1 (2a), )5, 6, 8, 12, 13 | |
| Baliabide espezifikoak.: Itunpeko ikastetxeak. | Atalak: 11 | Gehigarrizko xedapena: 1 | | | |
| Baliabide materialak. | Atalak: 9, 19 (3), 21, 25 | Atalak: 22 (2, 3, 4, 5), 26, 28 (1), 36 (3,4), 49 (2) | Atalak: 6, 7. Gehigarrizko xedapena: Lehena (1), Bigarrena (1). Eranskinak: I, III, VI | Atalak: 8 (b), 11, 12 (4) | |
| Buru-urritasunen edo garapenaren nahaste orokorren ondorioz hezkuntza-premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleentzako erantzuna. | Atalak: 7 (1, 8), 18 | Atalak: 3, 6, 8, 13, 14, 25, 27 (1,2) 36, 47 (1,2) | Atalak: 1-13, 19-23 | | |
| Curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak. Xedapen orokorrak. | Atala: 8 | | Atalak: 1, 2, 3, 4, 5. | | |

| GAI AURKIBIDEA | DEKRETUA | ESKOLATZEKO IRIZPIDEEN AGINDUA | EGOKITZAPENEN AGINDUA | LEHENTASUNEKO HEZIKETAREN EKINTZAREN AGINDUA | GOI-MAILAKO IKAS-GAITASUNEN ERABAKIA |
|---|---|---|---|---|---|
| C.N.E. Araubide bereziko ikasketetan. | | | Gehigarrizko xedapena (Lehena). | | |
| C.N.E.. Derrigorrezko hezkuntzaren ondokoan, goi mailako heziketa-zikloan eta helduentzako hezkuntzan. | Atalak: 15 (3, 5), 17 (1) | Atalak: 12(1), 10 (2), 11 (3) | Atalak: 13, 15, 16, 17, 18, 19, 20, y 22<br>Eranskinak. | | |
| C.N.E.. Haur, lehen mailako, eta derrigorrezko bigarren mailako hezkuntzan. | | Atala: 17 (3) | Atalak: 8, 9, 10, 11, 12, 19, 20, 21<br>Eranskinak. | | |
| C.N.E..Behin-behineko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak. | Atala: 23 (1) | | Gehigarrizko xedapena (Bigarrena). | | |
| Curriculumaren zabaltze-egokitzapena. | | | | | Erabakiak: 3., 4., 5., 6 (1), 7 (3,4) |
| Curriculumean sartzeko egokitzapenak. | | | Atalak: 6, 7<br>I, III, VI. eranskinak. | | |
| Diru publikoarekin mantentzen ez diren ikastetxeak. | Gehigarrizko xedapena. | | | | |
| Ebaluazio iraunkorra. Azken ebaluazioa.. | Atala: 8 (3, 5) | Atalak: 2 (5), 5 (1) , 7 (1), 11 (2), 23, 46 (2), 53 (3d), 56 (2c) | Atalak: 4 (4), 19 | Atalak: 13, 17 (2), 18 | Erabakia: 5 (6) |
| Ebaluazio psikopedagogikoa. Aurreko ebaluazioa. Diagnosia. | Atalak: 4 (3), 5, 13 (2), 14, 18 (3), 20 (2), 26 | Atalak: 4 (3), 26, 37 (2), 46 (2, 3), 49 (1, 2), 53 (3a), 55 (2b), 54 (3b, c), 56 (2 a, b, c) | Atala: 3 | | Erabakiak: 2, 4, 5 (1, 2, 6) |
| Entzumen eta mintzamen irakaslea. | Atala: 10 (2) | Atalak: 47 (4), 49 (2) ,50 (1), 52, 56 | | | |

| **GAI AURKIBIDEA** | **DEKRETUA** | **ESKOLATZEKO IRIZPIDEEN AGINDUA** | **EGOKITZAPENEN AGINDUA** | **LEHENTASUNEKO HEZIKETAREN EKINTZAREN AGINDUA** | **GOI-MAILAKO IKAS-GAITASUNEN ERABAKIA** |
|---|---|---|---|---|---|
| Erakundeen arteko lankidetza. | Atalak: 3, 4 (2), 13 (3, 4), 14, 23 (3), 24 (2) | Atalak: 4 (2), 18 (2), 47 (5), 49 (7) | | Atalak: 4 (a, b), 15 (2) | |
| Eskola-moldagabezia larriaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako erantzuna | Atala: 24 | Atala: 47 (3) | | Atalak: 1-18<br>Gehigarrizko xedapena | |
| Eskolaratzeko programa osagarriak. | Atalak: 23 (3), 24 (3) | | | Atalak: 14, 15, 16, 17, 18 | |
| Eskolatzea eta izena ematea. Irizpide nagusiak. | Atala: 4 (4) | Atala: 2 | | | |
| Eskolatzea eta izena ematea. Batxirlegoa eta Lanbide Heziketa. | Atala: 15 | Atala: 10 | | | |
| Eskolatzea eta izena ematea. Erregimen bereziko irakaskuntza. | Atala: 16 | | | | |
| Eskolatzea eta izena ematea. Haur Hezkuntza eta Derrigorezko etapak. | Atala: 7 | Atalak: 1, 2, 3, 6, 7, 8, 14, 15 | | | |
| Eskolatzea eta izena ematea. Helduentzako Hezkuntza ikastetxeak | Atala: 17 | Atala: 12 | | | |
| Eskolatzea. Lanbide-moduloren batean edo batzuetan. | Atala: 15 (6) | Atala: 11 (3) | | | |
| Eskolatze-aldia malgutzea: aurreratzea edo laburtzea. Ohi baino denbora luzeagoan geratzea. | Atalak: 7 (5, 6), 15 (3, 5), | Atalak: 2 (3), 5, 6, 7, 8 (1), 11, 36 (6) | Atala: 20 | Atalak: 3 (2c), 7 (1) | Erabakiak: 3 (3), 6 (2, 3), 7 (1, 2, 4) |

| **GAI AURKIBIDEA** | **DEKRETUA** | **ESKOLATZEKO IRIZPIDEEN AGINDUA** | **EGOKITZAPENEN AGINDUA** | **LEHENTASUNEKO HEZIKETAREN EKINTZAREN AGINDUA** | **GOI-MAILAKO IKAS-GAITASUNEN ERABAKIA** |
|---|---|---|---|---|---|
| Gaitasun handiagoen edo aparteko adimenaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako erantzuna. | Atala: 8, 22 | Atala: 47 (1) | Atalak: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 19.<br>Eranskinak. | | Erabakiak: 1-7.<br>Azken xedapena.k |
| Gela egonkorrak. | Atala: 7 (1), 18 (2) | Atalak: 25, 26, 27, 28, 29, 30, 47 (2) | Atala: 10 (2) | | |
| Giza baliabideak. | Atalak: 10, 19 (3), 21 (1) | Atalak: 21, 22 (1, 2)), 28, 32 (2), 35 (5), 44, 49 (2) | Atalak: 6, 7. Bigarren gehigarrizko xedapena (I). Eranskinak: I, III, VI | Atala: 11 | |
| Gizarte edo kultura-egoera kaltetuaren ondorioz behin-behineko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako erantzuna | Atala: 23 | Atala: 47 (3) | | Atalak: 1-18<br>Gehigarrizko xedapena | |
| Gorreriaren eta entzumen-urritasunaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako erantzuna | Atalak: 10 (2), 15 (4), 19 | Atalak: 36 (3), 47 (4), 50 (1), 52 (1,2), 56 | Atalak: 9 (3), 14, 22 | | |
| Gurasoen eta ikasleen partehartzea. | Atalak: 3, 13 | Atalak: 3 (1), 20, 35 (1) | | Atalak: 3 (2d), 4(d) | |
| Heziketa Ekintza Zehatzetarako Egitasmoa. | | | | Atalak: 7, 8, 12, 13 | |
| Hezkuntza bereziko ikastetxeak. | Atalak: 7 (1), 18 (3) | Atalak: 36, 37, 38, 39, 40, 41, 42, 43, 44, 45 | Atala: 10 (2) | | |
| Hezkuntza bereziko laguntzaileak. | Atala: 10 (2) | Atalak: 27 (2, 3), 28, 44 (3), 50 (2) | Atala: 7 (1) | | |
| Hezkuntza premia bereziak antzematea. | Atalak: 4, 14 | Atalak: 4 (2), 46 (2), 47 (5), 54 (3) | Atala: 7 (2) | | |

| GAI AURKIBIDEA | DEKRETUA | ESKOLATZEKO IRIZPIDEEN AGINDUA | EGOKITZAPENEN AGINDUA | LEHENTASUNEKO HEZIKETAREN EKINTZAREN AGINDUA | GOI-MAILAKO IKAS-GAITASUNEN ERABAKIA |
|---|---|---|---|---|---|
| Hezkuntza-premia berezien kontzeptua. | Atala: 2 | | | | |
| Ikaskuntza-maila motelen eta ikaskuntzako oztopo garrantzitsuen ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako erantzuna | Atala: 26 | Atala: 47 (1) | | | |
| Ikaslearen edota legezko ordezkarien adostasuna eta baimena. | Atalak: 5 (1), 7 (5, 6) | Atalak: 5 (2), 7 (2), 11 (4) | | Atala: 16 (2c) | Erabakiak: 3 (4), 6 (2b) |
| Ikaslearen espedientea. | Atala: 6 (2) | Atalak: 30, 35 (4), 38 (2), 41 (2, 3), 43 (1) | Atalak: 5 (2), 11 (1g), 17 (1g), 17 (2e), 23 (1e), 30 | Atala: 17 (1) | Erabakia: 7 (1, 3) |
| Ikasleen banakako lan-plana. | | Atalak: 20, 23 (1), 26, 30, 34, 35 (4), 36 (3), 41, 55 (2a) | | | |
| Ikastetxe eta ikasgela arruntak. | Atalak: 7 (1), 15 (2), 16 (3), 18 (1), 20 (1), 23 (1, 2), 24 (1), 26 | Atalak: 2 (4), 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 43 (1) | | Atalak: 3 (1c), 9 (2) | Erabakia: 3 (1) |
| Ikastetxeko Egitasmo Sozioedukatiboa. | | | | Atala 15 (1) | |
| Ikusmen-urritasunaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako erantzuna | Atalak: 15 (4), 20 | Atalak: 36 (3), 47 (4), 50 (1) | Atalak: 9 (3), 14, 22 (1) | | |
| Informazioaren tratamendua.<br>Kontserbatzea eta zaintzea. | Atalak: 5 (3), 6 | Atala: 37 (3) | Atalak: 5, 7 (1c), 11 (1c)<br>Gehigarrizko xedapena: lehena (5). | | |
| Irakasle aholkularia eta orientatzailea. | Atala 4 (3), 10 (1) | Atala 22 (1), 46 (1), 49 (2, 5), 52, 53, 54, 55 (2b, 2c, 2e), 56 (2a) | Atala 4 (4), 7 (1a), 11 (11a)<br>Eranskinak | Atala 11 (2b) | Erabakia: 6 (2b) |

| **GAI AURKIBIDEA** | **DEKRETUA** | **ESKOLATZEKO IRIZPIDEEN AGINDUA** | **EGOKITZAPENEN AGINDUA** | **LEHENTASUNEKO HEZIKETAREN EKINTZAREN AGINDUA** | **GOI-MAILAKO IKAS-GAITASUNEN ERABAKIA** |
|---|---|---|---|---|---|
| Irakasle tutorea. Arlo eta eremuko irakaslea. | Atalak: 4 (3), 12 | Atalak: 4, 7, 11, 17 | Atalak: 4 (4), 7 (1), 11 (a), 17 (1a, 2a), 18 | Atalak: 3, 6, 7, 8, 9, 10, 18 | Erabakia: 6 |
| Irakasleen prestakuntza. | Atalak: 12, 23 (2) | Atala: 44 (1) | | Atalak: 3 (2a), 4 (f) | |
| Lan munduan sartzeko prestakuntza egokitua. | Atala: 7 (8) | Atalak: 9, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 27 (2, 3), 36 (5) | | | |
| Lanbide hastapeneko programak. | Atala: 7 (8) | Atalak: 9, 13, 18 (2, 3, 4), 24, 36 (5) | | Atalak: 15 (2), 17 (4) | |
| Langile ibiltariak (logopedak, entzumen eta mintzameneko irakasleak, fisioterapeutak, okupazio-terapeutak, ikusmen-urrituak eskolan integratzeko irakasle-laguntzaileak eta beste) | Atalak: 10 (2), 19 (3), 20 | Atalak: 27 (2, 3), 28, 32 (2), 35 (5), 44 (3), 50, 56, | Atala: 7 (1) | | |
| Legezko ordezkariei edota ikasleari berari informazioa. | Atalak: 6 (4). 13 (2, 3), 19 (2) | Atalak: 2 (5), 47 (5), 49 (6), 51, 55 (2d) | Atalak: 11 (1f), 17 (1f, 2d), 19 (3)<br>Gehigarrizko xedapena (Lehena (5)) | Atala: 17 (2) | Erabakiak: 3 (4), 6 (2a) |
| Mugimenezko ezgaitasunaren eta garun-paralisiaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako erantzuna | Atalak: 9 (2), 21 | Atalak: 36 (3), 47 (1) | Atala: 9 (3) | | |
| Ospitalizazioaren eta gaixotasun luzeen ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako erantzuna | Atala: 25 | Atalak: 31, 32, 33, 34, 35 | | | |
| Pedagogia terapeutikoko irakaslea. | Atalak: 4 (3), 10 (2), 12 | Atalak: 2 (5), 8 (3), 21, 22, 23, 27 (3), 28, 46 (1, 2), 49 (2, 4, 5, 8), 50 (1), 51, 52, 55<br>Gehigarrizko xedapena: lehena (1c) | Atalak: 4 (4), 7 (1a), 10 (1), 11 (1a), 17 (1a)<br>Eranskinak | | |
| Promozioa eta titulazioa. | Atalak: 7 (8), 8 (4), 15 (1) | Atalak: 5, 7, 8, 9, 10 (1), 24 (1) | Atalak: 9 (2), 13, 20, 21,22 | Atala: 17 (3) | |

| **GAI AURKIBIDEA** | **DEKRETUA** | **ESKOLATZEKO IRIZPIDEEN AGINDUA** | **EGOKITZAPENEN AGINDUA** | **LEHENTASUNEKO HEZIKETAREN EKINTZAREN AGINDUA** | **GOI-MAILAKO IKAS-GAITASUNEN ERABAKIA** |
|---|---|---|---|---|---|
| Salbuespenak. | Atala: 15 (4) | | Atalak: 12, 13, 14, 16 (2), 17 (2), 22 (1), 23 | | |
| T.M.P. | Atala: 4 (1, 3,4), 5 (1), 7 (2, 5, 6), 18 (3) | Atalak: 2 (2, 5), 3 (2) 4 (3,4), 5 (2), 7 (2), 11 (4), 19 (1), 20, 22 (1), 24 (3), 26, 29 (2), 32 (4), 37 (4), 39 (2), 41 (3), 43 (3), 46, 47, 48, 49, 54 (3e), 55 (2b), 56 (2b, 2c, 2d) | Atalak: 4 (4), 5 (1, 2), 7 (1a, 1c, 1d), 11 (1a, 1c, 1d, 1e, 1f), 17 (1a, 1c, 1d, 1e, 2a, 2c)<br>Gehigarrizko xedapenak: lehena (4)<br>Eranskinak. | Atalak: 6 (2), 12 (3a), 16 (2e), 18 (1) | Erabakia: 6 (2a, 2b, 2c) |
| T.M.P. Helduen bizitzan hasteko programa. | | Atalak: 20, 22 (1), 24 (3), 47 (6) | | | |
| T.M.P. Oso haur txikien hezkuntza- programa. | | Atalak: 4 (4), 47 (5) | | Atala: 4a | |
| TMP. Entzumena eta mintzamena lantzeko programa. | | Atala: 47 (2) | | | |
| TMP. Garapeneko arazo orokorrak dituzten ikasleentzako programa. | | Atala: 47 (2) | | | |
| TMP. Gizarteratzen laguntzeko programa. | | Atala: 47(3) | | Atala: 6 (2) | |
| TMP. Ikasteko gaitasunak garatzeko programa. | | Atala: 47 (1) | | | |
| Xedea, eskolaren edota erkidegoaren eremua. | Atala: 1<br>Gehigarrizko xedapena. | Atala: 1 | Atalak: 1, 2 | Atala: 1 | Erabakiak: 1, 2 |

| **GAI AURKIBIDEA** | **DEKRETUA** | **ESKOLATZEKO IRIZPIDEEN AGINDUA** | **EGOKITZAPENEN AGINDUA** | **LEHENTASUNEKO HEZIKETAREN EKINTZAREN AGINDUA** | **GOI-MAILAKO IKAS-GAITASUNEN ERABAKIA** |
|---|---|---|---|---|---|
| Zentroaren Hezkuntza-egitasmoa eta Curriculum-egitasmoa. | | Atalak: 19, 29, 30, 33, 36 (3), 39, 40, 41 (1, 2, 4), 42 | | Atalak: 6 (2), 17 (3) | |
| Zereginen ikaskuntzako gelak. | Atala: 7 (8) | Atalak: 9, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19. 20, 21, 22, 23, 27 (3), 36 (5), 47 (6) | | | |